P. Ez, arren: emoten deutsut berbea ezteutsudala aitaturko atsakaba emongo deutsudan gauzarik (1). Alan, egin daiguzan bake osoak; emoidazu esku ori, ta adiskide ga-realako ezaugarritzat egin daigun alborokea, ta au neure diruti.

M. J. Eztirudi orrek ondo. Zuk aterako bazendu ardaoa zeure *kos-tura*, urrengo baten esango zenduke *barberu* ta *zirujauak* direala doillor, prestuez, zikotz batzuk, iñoren le-potik ondo edaten dabeela. Nik *pa-gauko* dot ardaoa, ta *pagau* egizu zuk bazkari arin bat.

P. Aurra bada, izan dedilla alan.

M. J. Neska (dirautso Bizargiñak ardan degiko otsein bati) atera egin *azunbre* bat ardao, ta esaion ugazaba-andreri ipiñi daigula zerbait bazkaitako.

NESKATILLEAK. Enaz ni neskea, neskatilla utsa baiño. Ikasi egizu beste berbeeta bat.

M. J. Au zer da? Guztiak nire kontra? Ozta egin ditut bakeak gizon onegaz, ta esesten deust neska batek. Zer don bada neskatillea neskea baiño *onradago*?

P. *Epaillea* es lo que V. llamaría *karnazerua*. ¿Ha visto V. lo que éstos suelen hacer cuando matan bueyes y cerdos? Se remangan las mangas de la camisa y teniendo consigo un cuchillo sucio andan sacando los trozos de los animales muertos. Pero dejemos esto para más tarde y yo examinaré vuestra gran sabiduría y veremos si es V. o no buen anatómico. ¿Pero qué más da para los vivos, si algo sacara usted de cortar muertos?

M. J. Amigo: yo me voy de aquí a mi casa. Yo no he venido acá sino a echar un trago, y no a oír sus burlas y desvergüenzas.

P. No, por favor: le doy a V. palabra de que no mencionaré cosas con que le dé pesadumbre (1). Así pues hagamos completas paces; déme V. esa mano y para señal de que somos amigos hagamos el alboroque (bebamos juntos), y esto de mi dinero.

M. J. No parece eso bien. Si usted sacara vino a su cuenta, en otra ocasión habría V. de decir que los barberos y cirujanos son ruines, innobles y mezquinos que beben bien a cuenta de otro. Yo pagaré el vino y V. pague una ligera comida.

P. Ea pues, que sea así.

M. J. Muchacha (dice el Cirujano a una criada de la ventera), saca una *azunbre* de vino y dile a la señora ama que ponga algo de comer.

LA MUCHACHA. Yo no soy *neska* sino *neskatilla* neta. Aprenda V. otro lenguaje.

M. J. ¿Qué es esto? ¿Todos contra mí? Apenas he hecho las paces con este hombre y ya me acomete una *neska*. ¿Qué es, pues, la *neska-tilla* de más honrado que la *neska*?

(1) Obeto legoke «atsakaba emongo deustun gauzarik».

(1) Mejor estaría «cosas que le den pesadumbre».

N. Zer dan? Neskatilleak urten lei noranai bere ule-trenza ederragaz; baiña ez neskeak. Aituko dozu onenbestegaz.

M. J. Enekian orrenbeste, ta parkatu egidazu *opendidu* bazaitut, ta atera egizu ardaoa.

P. Eztaigun edan zerbait ian ar-tean. Neskatilla: ekarri egiguzuz to-piñean ikusi ditudan arbi, aza ta okelea erretillu baten. Ezegizu eka-rrri saldarik, ta bai katilu bat, ar-daoo gero edateko.

M. J. Adiskidea, zer da erreti-llua? *Platerean* ateraten dira aza ta okelea.

P. *Erretillua* da euskaldunen *Plat-tera*. Ekarriko deuskuen erretilluak euko (1) ditu gitxienez berrogei urte, ta iraungo dau beste ainbeste urtean. Zure bestelango *platerok* aus-ten dira egunean bein, lurrezkoak badira; ta bestelangoak, edo urtu oi ditu suak, edo ausita saldu edo *trukau* bear izaten dira. Zurezko koillara bat ekarten badeuskue, ezta gitxi izango. Barriz alperrak dira nik etxe batzuetan ikusi ditudan oratzaille, zuek *tenedoren* izena emoten deutseezunak. Zetako emon eus-kuzan Jaungoikoak amar atzak edo atzamarrak? Askoz gozoago dira aza ta okela-zati eskuz ebagi, atzakaz ta ogiz batu ta iaten direanak. Ondo izango da zamau lodi bate-gaz estalduten badeuskue mai ardao-zetakaz zikindua. Euskaldunak ba-gara benetan, bizi bear dogu geure aasabak erakatsi deuskuezan ekan-duakaz. *Serbilleta* oraingoan ordean eztaukazu imiñi baiño aus-zapi edo marrats bat, loitu etzaitan. Ekarri daiguela gaileta baten ura, ardaoari ezarri gura badeutsazu; bada niri urardaoak egingo leusket sabeleko miña. Nik biti bat: edo ardao utsa, edo geienean ur utsa.

LA M. ¿Que qué es? La *neska-tilla* puede salir a cualquier parte con sus hermosas trenzas; pero no la *neska*. Con esto lo entenderá usted.

M. J. No sabía semejante cosa; y perdóneme V. si le he ofendido y saque V. vino.

P. No bebamos hasta comer algo. *Neskatilla*: tráiganos en un pla-to los nabos, berza y carne que he visto en el puchero. No nos traiga caldo y sí una taza para beber después el vino.

M. J. Amigo, ¿qué es *erretillua*? En plato se sacan la berza y la carne.

P. *Erretillua* es el plato de los euskaldunes. El plato que nos trae-rán tendrá (1) por lo menos cua-renta años y durará otros tantos. Esos platos vuestros de otra clase se rompen uno cada día, si son de tierra; y si de otra clase, o les suele derretir el fuego o rotos hay que venderlos o cambiarlos. Si nos traen cuchara de madera no será poco. En cambio son inútiles los *oratzalle*, a los que dais vosotros el nombre de tenedores, que yo he visto en algunas casas. ¿Para qué nos dió Dios los diez dedos? Con mucho son más sabrosas la berza y los pedazos de carne que se parten a mano, se reúnen con los dedos y el pan y se comen. Bueno será si nos cubren con un grueso mantel la mesa ensuciada con manchas de vino. Si somos verdaderamente euskaldunes, debemos vivir con las costumbres que nos enseñaron nuestros ante-pasados. En lugar de las servilletas de ahora no tiene V. más que poner un trapo o una arpillera, para que no se manche. Que nos traigan agua en un *tanque*, por si le quiere V. echar al vino; pues a mí el agua con vino me produciría dolor

(1) *Eukiko*-ren ordeaz.

(1) En vez de *eukiko*.

M. J. *Errazoa* daukazu: eztira alkar ondo *konponduten* ardaoa ta ura. Urte asko da urik edan ezto-dala, saldaan ezpada.

P. Neskatiilla: ingira zaite; sabel-zorria egin iaku ta edan-gurea ainbeste berbaren ondoren. Dulabre ta ezertakoak direan otseñiak, arin egin bear ditue gauza guztiak. Ekarrri eiguzu ekarriko dozuma.

(Maia txarto edo iguingarriro estaldu-ondoan iatekoaz dator neskatilla ta diño:)

N. Egon zaree luzaro barriketan milla berba alper egiten, da gero beingoan ito-bearra. Ona emen lapiko galanta ta pitxar bete ardao: ase zaiteze.

P. Adiskidea: etzazaudaz zeure izenez, ta baketu garean-ezkero, iakin gura neuke zelan deritxun.

M. J. Niri esaten deuste Don Juan Jauna, baiña zuk esaidazu naozun legez: ta zeuk ze izen dozu?

P. Niri estaten deuste Peru batzuk, besteak Periko: eztok nik, umeetatil bere, jaunaren izenik entzuten, da gitxiago *Donemik*. Izen ederra dozu. Done Joan edo San Juan gauza bat dira. Donianeak esaten iakee San Juanetako egunai. Beraz zuk bere Doniane barri batzuk ekarriko dituzu, suak egin, donianbedarrak erre ta egun gozatsu bat igaro eragiteko. Nik esango deutsut emendik aurrera Maisu Juan, ta zuk niri Peru, ta alan aituko dogu alkar, itxirik etxagokuzan Donok abade ta bene benetan andikiak direanai.

de vientre. Yo, una de dos; o vino puro, o la mayor parte de las veces, agua.

M. J. Tiene V. razón. No se componen bien entre sí el vino y el agua. Hace muchos años que no he bebido agua, si no es en el caldo.

P. Muchacha: apresúrese; se me ha hecho un gusano en el vientre (lit. piojo de vientre) y ganas de beber después de tantas palabras. Criados que son activos o de remango deben hacer pronto todas las cosas. Tráiganos lo que ha de traer.

(Viene la muchacha con la comida después de haber colocado la mesa mal y sucitamente, dispuesta, y dice:)

LA M. Han pasado ustedes mucho tiempo en tonterías, diciendo mil palabras inútiles, y después, de golpe, los apuros. He aquí un hermoso puchero y una jarra llena de vino: hártense.

P. Amigo: no le conozco a usted por su nombre y, ya que estamos en paz, quisiera saber cómo se llama.

M. J. A mí me llaman el Señor Don Juan; pero V. llámeme como quiera: y usted ¿qué nombre tiene?

P. A mí me llaman algunos Peru, los demás Perico; yo no he oído, ni aun por parte de los chiquillos, el nombre de señor, ni menos el de Don. Tiene usted un hermoso nombre. *Done* Juan o San Juan son una misma cosa. *Donianeak* se les llama a los días de San Juan. Por consiguiente V. traerá algunos nuevos *Doniane* (fiestas de San Juan) para hacer hogueras, quemar las yerbas del Santo y para hacer pasar un día agradable. Yo le llamaré desde ahora en adelante Maisu Juan, y usted a mí Peru, y así nos entenderemos mutuamente, dejando esos *Dones* que no nos corresponden a los que son sacerdotes o verdaderamente señorones.

M. J. Ondo diñozu, ta egia esango badeutsut, igarten neban etxagotala niri zuri baiño geiago ez *Jaunik* ez *Donik*. Asko da berbarik, ta ekin daiogun aurrean daukagun oni.

(Maisu Juan iaten asterakoan, dirautso Peruk.)

P. Maisua: bedeinkatu daigun maia; nire etxean ta baserrikoen artean beti ian-aurrean alan egin oi da, baita ian-ostean bere eskerrak emon Jaungoikoari, zeñien eskue-tati iatorkuzan on guztiak.

M. J. Ni baiño obeak zaree: eztot nik mairik iñoz bedeinkatu.

P. Zer diñozu? Nun azi zara? Bedeinkatu egizu bada gaur, esan eztaiguen kristiñau gaiztoak ga-reala.

M. J. Baiña eztakit zelan egin ta egizu zeuk.

P. Zagoz isillik. Zer esango litzate entzungo balitz baserri- bategen bedeinkatuten dabela maia, ez iakiñarren *Barberu* ain apaindu ta Madrillen urteak egin dituanak? Eskolaua zara, erabilli ta irakurri dituzu liburu asko ta zelan ikasi eztozu?

M. J. Peru: enaizu lotsatu ta *errezau* egizu zer edo zer agin-arte- an, ta erantzungo dot nik bere al dodana, igarriko ezteuskuen mo- duan nok bedeinkatuten daben maia.

P. Aurra bada: asten naz: «Ai- tearen da Semearen da *Espiritu San- tuaren* izenean: Neure Jauna ta Jain- koa: gure itxadote guztia zuga- n dago, ta emoten dozu bere *denporan* iaateko bear doguna. Zeure eskua zabaldu ta guztiok bedeinkatu ga- giazuz. Aita gurea zeruetan zago- zana...» (Arrenez)

M. J. Eztakit nik euskeraz Aita gurerik ta erantzungo dot erderaz.

M. J. Dice V. bien, y, si le he de decir a V. la verdad, ya se me ocurría (lit. lo adivinaba) que no me cuadra a mí más que a V. ni *Señor* ni *Don*. Basta de palabras y apliquémonos a esto que tenemos delante.

(Empieza a comer Maisu Juan y dícele Peru.)

P. *Maisua*: bendigamos la mesa. En mi casa y entre los de la aldea siempre se acostumbra a hacerlo así antes de comer y también des- pués para dar gracias a Dios, de cuyas manos nos vienen todos los beneficios.

M. J. Sois mejores que yo: yo nunca he bendecido la mesa.

P. ¿Qué dice V.? ¿Dónde se ha criado V.? Bendígala, pues, hoy, para que no nos digan que somos malos cristianos.

M. J. Pero yo no sé cómo ha- cerlo y hágalo V. mismo.

P. Cállese V. ¿Qué se diría si se oyera que un aldeano bendice la mesa por no saber un barbero tan elegante y que ha pasado años en Madrid? Es usted instruido; ha ma- nejado V. y leído muchos libros y ¿cómo no lo ha aprendido V.?

M. J. Peru: no me avergüence usted y rece alguna cosa entre dien- tes y le responderé lo que pueda, de manera que no nos conozcan quién es el que bendice la mesa.

P. Ahí va, pues; empiezo: «En el nombre del Padre, del Hijo y del Espíritu Santo. Mi Señor y mi Dios, toda nuestra esperanza está en Vos y dais a su tiempo lo que necesi- tamos para comer. Abrid vuestra ma- no y bendecidnos a todos. Padre nuestro que estás en los cielos...»

(Reza)

M. J. Yo no sé el Padre nues- tro en bascuence y responderé en castellano.

P. Maisu Juan: etzara ori esaten lotsa? Noz aztu iatzuz txikitán guraso edo eskola-maisuak irakatsi eutsuzan eskaari Eleizeak artuta daukazanak ta Kristo berberak irakatsi eban Aita geurea? Ezkondua zara? Boozu (1) umerik?

M. J. Ezkondua naz, ta baditut iru ume; baiña Amak dauka *doktriña* irakasteko ardurea. Ezta ori nire *opizioa*. Ezeban Jesu-Kristok euskerarik berba egin.

P. Ederto: ezta zure erdera mor-doilloan bere; baiña nok-nai iakin bear dau Aita gurea bere Amaren sabeleti ikasi eban berbeetan. Zuri iagotzu Amari baiña geiago umeai gauza on guztiak irakastea. Baiña ezta orain berba egiteko *denporea* ta gakiozan aurrera. «Doe guztien emolea ta gure Jauna: zure eskutik guk artu ta ian bear dogun guztia, zuk bedeinkatu egizu, Jesu-Kristo zeure Semea gaiti, ta bere izenean. Aita, Seme ta *Espiritu Santuak* guztiok bedeinkatu gagizala, ta Zeruko bere maira betiko eroan gaizala. Alan izan dedilla.»

M. I. Peru, nun ikasi dituzu *erretaila* luze orreek?

P. *Erretailak* esango zenduke Eleizako *erregu* ta mai bedeinkatutekoak gaiti? Obeto egingo zenduan kendu bazendu buruko kerizgarri, zuen aoan *sombreillua* deritxona, guk kenduten dogun legez buru-txapela. Egia da zuen kapela barregarri ta asmo barrikook eztireala gauza, ez euriti, ez eguzkiti gizona gordeeta-ko. Asko da: ian daigun.

P. Maisu Juan: ¿no le da a V. vergüenza el decir eso? ¿Cuándo se le han olvidado a V. las oraciones que tiene admitidas la Iglesia y el Padre nuestro que enseñó Jesucristo y que os enseñaron de pequeño los padres o el maestro de la escuela? ¿Es V. casado? ¿Tiene V. (1) hijos?

M. J. Soy casado y tengo tres hijos; pero la madre tiene el cuidado de enseñarles la doctrina. No es ese mi oficio.

Jesucristo no habló bascuence.

P. Muy bien: ni tampoco en su mal castellano; pero quien quiera debe saber el Padre nuestro en la lengua que aprendió desde el vientre de su madre. A V. le corresponde, más que a la madre, el enseñar a los hijos todas las cosas buenas. Pero no es este (lit. ahora) el tiempo de hablar y sigamos adelante. «Señor nuestro y dispensador de todos los dones: todo lo que de vuestra mano tenemos que recibir y comer bendicidlo, por Jesucristo vuestro Hijo y en su nombre. Que el Padre, Hijo y Espíritu Santo nos bendiga a todos y nos lleve para siempre a su mesa celestial. Así sea.»

M. J. Peru; ¿dónde ha aprendido usted esa larga retahila?

P. ¿Habría V. de decir retahila por el rezo y bendición de la mesa? Mejor hubiera hecho V. si hubiera quitado el *kerizgarri* (sombbrero) de la cabeza, que en vuestros labios (lit. boca) se llama *sombrellua*; así como nosotros nos quitamos la boina. Verdad es que vuestros sombreros risibles y recién inventados no sirven para guardar al hombre de la lluvia ni del sol. Basta; comamos.

(1) *Badozu* esan gura dau.

(1) Quiere decir *badozu*.

M. J. Ze okela-plaga da au? Zalago dago zorua bera baiño. Azook baltzak ta keetsuak iaraozak. Arbiak gogor egosi багаак.

P. Maisua: ondo milika ta bu-perea zagoz. Uste zenduan ipiñiko euskuezala eperrak, oillandak, oil-lagorrak ta andikien maietako ia-nari gozoak? Okelatztat ipiñi iaku aketirenaren aragi gazitua. Idi gizen ta zezin egitekoak eroaten ditugu olagizon ta aberatsen etxeetara, diru ederrak artuteko, ta gulangoen etxe-etarako gordeten ditugu txaaltxu, idisko, bei zar edo aketirenak. Gose onarentzat eztago iaaki dongarik.

Aberatsen maietan etxakee ain go-zoz ekiten geeli gizen ta egaztai, zelan baserri-etxeetan arbi, aketiren, ta aza lurruna darioenai. Ogi zuria aentzat baiño, gozoago da gureztat arto-erregutada galanta. Talo ondo egiña auspean, morokilla, eznea, gaztaiñak ta sagarrak daukazan ne-kezalea, dontsuago da andiki guz-tiak baiño. Milikerien artean ezta aragi sendorik egiten. Begiratu base-ri mutill ta gizon gazteai, zein mar-do ta mamintsuak daukeezan ma-trailla-alde ta zankoak. *Zimentu* onak daukazan etxea iraunkorrago da ar-galak daukazana baiño. Ikusi egizuz andiki askoren alabak loraz ta bi-txiz beteta. Itxurgatu ta zurbilduta, gauza ez batzuk, argal, erkin, aize apur batek oeratuten dituala, oiñak zerbait ezkotu edo bustiten baiakez, estulga ito bear dabeela.

Barriz gure neskatillak, euri ta ateri, eguraldi on edo txar, ortozik edo abarka zulatuakaz dabilzanak,

M. J. ¿Qué plaga de carne es esta? Está más tiesa que la misma suela. Estas berzas están negras y ahumadas. Los nabos duros, sin cocer.

P. Maisu: es V. bien delicado y melindroso. ¿Crefa V. que nos pondrían perdices, gallinas, becadadas (sordas) y las sabrosas viandas de las mesas de los magnates? Por carne se nos ha puesto carne salada de macho cabrío. Los bueyes gordos y cebados los solemos llevar a las casas de los señorones y de los ricos para recibir buen dinero, y para las casas de los de nuestra clase guardamos las terneritas, novillos, vacas viejas y machos cabríos. Para la buena hambre no hay mala comida.

En las mesas de los ricos no se les ataca con tanta gana a la carne de vaca cebada y a las aves como en las casas de las aldeas a los nabos, al macho cabrío y a las berzas que despiden vaho. Más sabroso que para ellos el pan blanco es para nosotros hermosa rebanada de borona. El artesano que tiene torta de maíz bien hecha bajo la ceniza, *morokill* (mezcla de leche y borona), leche, castañas y manzanas es más dichoso que todos los magnates. Entre melindres no se hace carne fuerte. Mire V. a los muchachos y hombres jóvenes de la aldea, qué rollizos y carnosos tienen los carrillos y las pantorrillas. La casa que tiene buenos cimientos es más duradera que la que los tiene débiles. Vea V. las hijas de muchos señores llenas de adornos y de flores. Desfiguradas y macilentas, unas inútiles, débiles, desmazaradas, que un poco de aire las hace encamarse y si se les humedecen o mojan algo los pies teniendo que ahogarse tosiendo.

En cambio nuestras muchachas que, llueva o escampe, haga buen o mal tiempo, andan descalzas o con

zein desbardiñak besteetatik! Atxurren, laietan, irabatuten, landariorraan ta beargeirik gogorrenetan, gizonen albo ibilliarren, eztaoer ain erraz estulik atera; ez osagille edo *mediku*-atzean ibilli.

Barijekuetan okelea iaateko gatxandia bearko dabee. Iatsiko dira Meza entzutera iaiegunetan, indris-ka ta edurra bada bere; ta ain sendo ta indartsuak dira, zein da urun-zaku edo zorro andi bat buruan dabeela, artuko litukee besape bietan andikikume bi, bide luzean eroateko: Ezta alan? Maisu Juan, zetako zabilz bada arpegi txar, iguiña ta mukertasuna agertuten, erretilu onetan bota deuskuezan lapikokoai? Iaizu arin.

M. J. Ian bear zer edo zer, besterik eztagoanean; baiña bildur naz errebesau eztaidan, edo aize dongaz bete enadin.

P. Ian daigunean erdiraiño, emongo deutsu edaaten ardaoa.

M. J. Ezin egon neinde arteetan edan бага. Artu ditut zelan-alan azkada bi aza, aketiren onen atal bat; ta iruntsiko badot, edan bear dot. Ekartzu laster *trago* bat.

P. Eutsi, bada, neure eskuti.

M. J. Au zer da, Peru? Ardao oni ezarri deutsee ura; motela dago, indarririk eztauka. Bestelango bazkaria! Artu daiogun kontu maia *serbietan* dabillen neskatilleari. Ze izen dau?

P. Praiska deritxo: baiña orrelangorik aitatuten badozu emen, izango da atralaka ta baraila andiren bat. Neskatilleak esango deutsa ugazaba-andreari; asiko da agiraka, txilioka; ta barbarik onen esango deutsuna izango da guzurra diñozu. Ta zer dakit nik Pielari dei eginda barregarritzko gauzaren bat emen ikusi eztaigun? Maisu Juan:

las abarcas agujereadas, ¡qué diferentes de las otras! A pesar de andar al lado de los hombres cavando, layando, recogiendo helecho, escardando las plantas, y en los más duros trabajos, no suelen toser tan fácilmente (lit. sacar la tos); no suelen andar detrás de los médicos.

Necesitarán tener grave mal para comer carne en viernes. Bajarán a oír misa en los días de fiesta aun habiendo cerrazón y nieve; y son tan fuertes y forzudas que, teniendo un gran saco de harina en la cabeza cogerían bajo los sobacos a dos hijos de señorones para llevarlos en largo camino. ¿No es así? Maisu Juan: ¿Por qué anda usted manifestando mala cara, asco y esquivéz hacia el puchero que nos han volcado en este plato? Coma V. pronto.

M. J. Haber de comer algo, cuando no hay otra cosa; pero tengo miedo que vomite o que me llene de aires perniciosos.

P. Cuando comamos hasta la mitad le daré a V. de beber vino.

M. J. No podría estar entre tanto sin beber. He tomado así como así dos dedadas de berza y un trozo de este macho cabrío; y si he de tragarlo tengo que beber. Traiga V. pronto un trago.

P. Tome V. pues, de mi mano.

M. J. ¿Qué es esto, Peru? A este vino le han añadido agua: está flojo, no tiene fuerza. ¡Vaya una comida! Tomémosle cuentas a la muchacha que anda sirviendo la mesa. ¿Cómo se llama?

P. Se llama Francisca: pero si menciona V. aquí semejante cosa, habrá alguna pendencia y barullo. La muchacha le dirá a la ama; empezará a reñir, a chillar; y la mejor palabra que le dirá a V. será miente V. ¿Y qué sé yo si llamando al Alcalde no hemos de ver aquí alguna cosa (que nos traiga) a mal traer? Maisu Juan: mejor será estar

obe izango da isillik egotea ta ez ezer aitatutea. Gizon sakatu ta eroapen andikoak ezteutsa kalterik eka-rriko buruari; baiña irritu, aserrakor, sutu, ta miiñ ariñekoak euki lei gerora damukizuna.

M. J. Asko da zuk esatea, Peru; obeto dakizu oneetako barri, ta bazaut, aserratuten bagara, eskatuko deuskula *pagu* andiren bat bazkari txar onegaiti; ta neurdin ezteutsagu ura kenduko ardaoari, ta eztot uste beste zaragietako ardaoa egongo dala *puro*agoa.

Zer daantzut...? Kanteetan... Gagozan isillik zer diñoan... Peru: artu dozu gogoan koplaxua?

P. Bai.
M. J. Zelan da?
P. Ona.

Aita-semeak edanda dagoz
Ama-alabak iokoan;
Ostera bere egongo dira
Soiñoko zaarrak kakoan.

M. J. Nor ete da *kantorea*?

P. Nik eztakit; itanduko deutsa-gu neskatillari ta esango deusku.

M. J. Praiska, nor da alango *kantore* ederra?

PRAISKAK. Aita - seme batzuk ioan dira sabaira, Aita katu andiaz ta semea bere bai zerbaitakoan. Lo egiteko asmoz igon dabee, baiña emon deutsa agureak kanteari. Soiñulari eder bat dozu, ardaoz basa basa eginda bere.

M. J. Peru: esaidazu arren ostera *bersoa*, ta aterako ditut papera ta *tintero*a, beti aldean darabildazan legez: eskribiduko dot aztu ezta-kidan.

P. Entzuizu bada ondo. (Leengo neur-titzak Peruk birresan da Maisu iratsi ta gero diño):

callando y no mentar nada. El hombre sufrido y de gran paciencia no se traerá perjuicio a sí mismo; pero el impaciente, colérico, fogoso y de ligera lengua puede tener a luego de qué arrepentirse.

M. J. Basta que V. lo diga, Peru; mejor sabe V. lo que por aquí ocurre (lit. noticias de estas comarcas) y reconozco que si nos airamos nos ha de pedir algún gran pago por esta mala comida; y como quiera no le hemos de quitar el agua al vino y no creo que el vino de otros odres (pellejos) estará más puro.

¿Qué oigo...? Cantando... Este-mos en silencio (por saber) qué dice... Peru: ¿ha tomado V. la coplita en la memoria?

P. Sí.
M. J. ¿Cómo es?
P. He aquí.

Padre e hijo bebidos,
Madre e hija jugando;
También otra vez habrá
Vestidos viejos en el colgador.

M. J. ¿Quién (si) será el cantor?

P. Yo no lo sé; se lo pregunta-remos a la muchacha y nos lo dirá.

M. J. Francisca, ¿quién es tan hermoso cantor?

FRANCISCA. Un padre y un hijo han ido al pajar: el padre con gran borrachera (lit. gato) y también el hijo con (una) tal cual. Con propósito de dormir han subido, pero el viejo se ha dado al canto. Es un buen músico, aunque de vino esté convertido en puro lodo.

M. J. Peru: dígame V., le rue-go, otra vez el verso y sacaré el papel y el tintero, como que los traigo siempre en el bolso: escribiré para que no se me olvide.

P. Oiga V., pues, bien. (Repite el verso expuesto y lo escribe el Maisu Juan y dice:)

M. J. *Berso* asko irakurri ditut neure aldian erdaldunen liburuetan; baiña ez berba gitxitan gauza geiago esan gura dabenik. Ai ostera *kantauko* baleu! Ai! asi da... Gagozan isillik, Peru: artu gogoan... Kantau ditu *berso* bi: zer diño?

P. Ona zer diñoan:

Egun baten gaba eginda
Niñoian neure etxera,
Larrapastadatar bat eginda
Io neban beeko bidera.
Iaso nenduen danau mankauta
Bizkar-azurra ausirik,
Miñaren miñaz katu guztia
Beingoan niri igarorik.

M. J. Zetan *parau* etezan Piestea? Nok osatu eban? *Berso* onek geiagoen eske dagoz. Banoa eurak *eskribietara*.

(Irasten dabezan artean, ordiak eresten diarduala entzun dantzu). Kontu gogoan artuteaz. Zer esan dau?

P. Ona zer diñoan.

Ekarri eusten egun-sentian
Maisu Juan *Barberua*,
Gurago neban neure alboan
Euki Gaizkin *Deabrua*.

M. J. *Ze deabru?* Nungoa da agure ordi *kantore* au?

P. Nik eztakit, baiña bai zeu aitatuten zaituana, ta *Deabrua* baiño gaizto gogoragotzat zaukazana. Zeure errikoa da ta zeure egokiren bat. Aurra, artu egizu lumea, ta daukazun ur baltz orregaz eratsi eiguzu zapi zuri orretan esan daben laukoa bestean ondoan. Onak ta txarrak, atsakabea ta atsegiña emoten dabeenak artu bear dira aserre bagea. Etxatzu isilduko iazo iakon guztia bere soñuan esan bage. Ara... badarraio. Diño bada:

Borreru arek birau nenduan
Albo bateti bestera,
Egon bear dau onek, ziñoan,
Begira gaur bazterrera.

M. J. Muchos versos he leído en mi tiempo en libros de los extraños; pero ninguno que signifique en pocas palabras más cosas. ¡Ay si otra vez lo cantase! ¡Ay! Ha comenzado... Estemos en silencio. Peru: tómelos en la memoria... Ha cantado dos versos: ¿qué dice?

P. He aquí lo que dice:

Un día después de anochecer
Iba yo a mi casa,
Dando un gran resbalón
Di al camino de abajo.
Me levantaron todo baldado
Roto el espinazo,
A fuerza de dolor toda la borrachera
Habiéndoseme pasado al momento.

M. J. ¿En qué habrá parado la fiesta? ¿Quién le curó? Estos versos están pidiendo más. Voy a escribirlos. (Los escribe; y entre tanto oye que prosigue en cantar el borracho). Ojo con tomarlos en la memoria. ¿Qué ha dicho?

P. He aquí lo que dice:

Me trajeron al romper el alba
Al Maisu Juan el Barbero,
Hubiera preferido a mi lado
Tener al malvado diablo.

M. J. ¿Qué diablo? ¿De dónde es este viejo borracho cantor?

P. Yo no lo sé, pero sí que le nombra a V. y que le tiene por malvado más cruel que el diablo. Es del pueblo de V. y algún parroquiano suyo. Ea, tome V. la pluma y con esa tinta (lit. agua negra) que V. tiene, escribanos junto a los demás en ese papel (lit. trapo blanco) el cuarteto que ha dicho. Las cosas buenas y las malas, las que producen aflicción y placer se deben recibir sin cólera. No se le ha de llamar a usted sin decir en su música todo lo que le sucedió. He allí... ya sigue. Dice pues:

Aquel verdugo me volvió
De un lado a otro:
Tiene que estar éste, decía,
Mirando hoy al rincón.

Asi zan gero erremientak
Bere ziskuti ateraten,
Otso-biotzaz barre eginda
An egozani esaten.

Kangrenatzar bat iaioke iako
Ondo ezpadogu *sajeetan*;
Eztira ez onlango *eridak*
Bedartxuakaz osetan.

Jaurtigi neutsan ostikadeaz
Ezarri neban lurrera,
Sartu eztedin Maisu Juane
Nire etxean ostera.

M. J. Badakit orain nor dan agure *kantore* au. Da ordi pusiga etxe guztia ondatu dabena; zoorrez beterik dago: tabernarik taberna dabil. Noizean bein daroe banatuta, katuagaz doala, *golpeak* artuta. Alperrik ilgo da nigaiti: ez nauka ostera atrapaurik. Nik eztaik zelan osatu zan kantau daben *tranzean*: aragiak sendoak ditu. Ioan banakio dagoan lekura, irakatsiko deutsat zelan berba egin; eztaukat aaztuta egin custana.

P. Obeko dozu ian da bakean itxi alango ordi galtzaila bati; ezpabere, orain adorerik beso ta oiñetan euki ez arren, orrelangoak, edo bere semeak emon leikezu makillaka galanta ta burua ausita itxi. Ara oraindiño soiñuetan da eztira alperrik igarotekoak bere laukoak.

Maisu borreru ioan zanean
Ekarri eusteen berbati
Andratxu on ta errukior bat
Auzoko erri bateti.

Azur ta zauri guzti guztiak
Zituan kontuz ikusi;
Arpegi sona baketsuagaz
Esan eustan onlan neuri.

Txomin gaisoa, ordu onean
Bota dozu *Barberua*,
Ikusi gura ezpazenduan
Lurrean bertan *inpreiñua*.

Pasmo-bedarrak bearko dira
Eragozteko pasmoa,
Orma-bedarrak gozatuteko
Banatu iatzun alboa.

Egun gitxian zara ikusiko
Indar galantak arturik,
Eta zure azur banatuetan
Inkaren apur bagarik.

Empezó luego a sacar
Los instrumentos de su bolsillo,
Con corazón de lobo riéndose
Diciendo a los que estaban allí:
Le nacerá una enorme gangrena,
Si no le sajamu bien;
No se suelen no semejantes heridas
Curar con yerbecillas.

Con la cox que le solté
Le derribé al suelo,
Para que no entre el Maisu Juan
En mi casa de nuevo.

M. J. Ahora sé quién es este viejo cantor. Es borracho que ha arruinado toda la casa; está lleno de deudas: anda de taberna en taberna. A cada rato le llevan estropeado, yendo con borrachera, habiéndose golpeado. Por mí inútil es que se muera: otra vez no me ha de coger. Yo no sé cómo se curó hasta el punto que ha cantado: tiene carnes duras. Si me le voy a donde está, le enseñaré cómo hablar; no tengo olvidado lo que me hizo.

P. Mejor le será V. comer y dejar en paz a semejante borracho perdido; si no, aunque ahora no tenga fuerza en los brazos y pies, ese tal o su hijo podría darle a V. un apaleo más que regular y dejarle con la cabeza rota. Mírele todavía en músicas y sus cuartetos no son para dejarlos pasar inútilmente.

Cuando se fue el Maisu verdugo
Me trajeron en cuanto hablé (*lit.* de la pa-
Una mujercita buena y compasiva [labra])
De un pueblo vecino.

Todos los huesos y heridas
los vió con tiento;
con cara risueña pacífica
me dijo así:

Pobre Domingo, en buena hora
ha echado V. al Barbero,
Si no quería V. ver
En la misma tierra al infierno.

Se necesitarán yerbas curativas
Para impedir el pasmo,
Yerbas parietales para endulzar
El costado que se le ha estropeado.

En pocos días se verá V.
Recuperadas grandes fuerzas,
y en sus huesos estropeados
sin el menor escozor.

Esan da egin, aste-barruan
Urten neban neuk etxeti
Gerri zerdenaz makilla baga
Ian-goseagaz besteti.

P. Maisua, bantzuzuz diñoazanak?

M. J. Bai, Peru, ta nago ikaraututa, zelan gizon ordi batek atera leikezan alango *bersoak*, ta *kantau* ain *klaru*. Nik uste neban, eztarri guztia euki bear ebala katigatuta, ta *berso-gauzarik* ezin gomutau litxakiola.

P. Alan dirudi, baiña ezta alan iazoten: ikusi ditut nik begiak lausotu, oiñak lokatu, gerria makurtu, ezpanak bisustu, txapela okertu ta berbea moteldu ta zutiñik egon ezin direan gizon katutu ta ardoaz sastuak, eztarri garbi ta laztasun bageaz soiñua ioteko. Zelan dan ezta-ki, bai baiña alan dala. Iñozko azkorren dagoz orretarako, ta itanduten badeutsezu Aita gurea, uts egingo deusue amar bidar.

Asko da soiñurik, amaitu daigun pitxar ondoko ardoaa, ta Jaungoikoari eskerrak emonda, goazan oera. Ni logura naz; eztot ez eunezko, ez miesazko izararik bear, ez artulezko burkorik. Marrageruen izara latzen artean atserengo dot goizartean. Enabee iratzartuko, ez ardi, ez imitxen ziririkak.

M. J. Gurago dot nik orrelango oera etzun baiño sutondoan egon eguna argitu-artean.

P. Agur bada, Maisua, goizartean; gau on bat igaro egizu, ta dei egikedazu, ez oillarraren goizeko soiñuan, ta bai eguna zerbait argituta. Egun on bat alkarregaz igaro badogu, obeagoak igaroko dituzu. Eroango zaitut egun batzuetako neure etxera. An ta bideetan erakutsiko deusudaz gauza asko, ta esango dozu noz edo noz baserritar

Dicho y hecho, dentro de la semana
Salí yo de casa
Con la cintura erguida sin bastón,
Por otra parte con hambre de comer.

P. Maisu ¿oye V. las cosas que dice?

M. J. Sí, Peru, y estoy asustado de cómo un hombre borracho puede sacar semejantes versos y cantar tan claramente. Yo creía que toda la garganta tendría atarugada y que no se le podría recordar asunto de versos.

P. Así parece, pero no sucede así: he visto yo hombres que anulados los ojos, descompuestos los pies, la cintura encorvada, los labios espumajosos, la boina torcida y la palabra balbuciente y que borrachos y de puro vino convertidos en basura no pueden tenerse en pie, con garganta limpia y sin aspereza para tocar música. No sé cómo es, pero sí que es así. Están para eso más briosos que nunca y si les pregunta V. el Padre nuestro errarán diez veces.

Basta de músicas, terminemos el vino del fondo de la jarra y dando gracias a Dios vayamos a la cama. Yo tengo sueño; no necesito sábanas ni de lienzo ni de tejido, ni almohadas de lana. Entre ásperas sábanas de los cardadores descansaré hasta la mañana. No me despertarán las picaduras de las pulgas, ni de las chinches.

M. J. Prefiero estar junto al fuego hasta que aclare el día a acostarme en tales camas.

P. Adiós, pues, Maisu; hasta la mañana; pase V. una buena noche y llámeme V. no en el canto matinal del gallo y sí habiendo algún tanto aclarado el día. Si hemos pasado juntos un buen día, los pasará V. mejores. Le llevaré V. para unos días a mi casa. Allí y en los caminos le mostraré a V. muchas cosas y alguna vez dirá V. que un aldeano

batek irakatsi deutsuzala, erri barruetakoak irakatsi ezeutsuezanak.

M. J. Eskerrik asko, Peru; zoaz, lo egizu orain da neure kontura goizean zuri dei egitea. Agur. Igaro egizu gizagaiso orrek zuk bere gau on bat.

le ha enseñado cosas que no le enseñaron los de los pueblos interiores.

M. J. Muchas gracias, Peru, vaya V., duerma V. y a mi cargo el llamarle a la mañana. Adiós. Pase V. también, pobrecito, una buena noche.

BIGARREN AUTUA

LENGO MAISU JUAN DA PERU-REN ARTEAN

Arteko autugiñak ardanandrea ta otseña

M. J. Asko da lorik; argitu da eguna; antxiña io eban oillaarrak goizeko soiñua. Iagi zaite; *almorzau* daigun zerbait; ostatua *pagau* ta goazan emendi, nora etorriko enazan ostera burua galduten ezpaiat. Ze aparia baarkoa! Zelango gaua! Zelango *desvergüenzak* entzun-bearra gizon *onrau* batek!

P. Banoa ianztera; baiña itxaron bear deustazu puska baten goizeko *erregu* onak Jaungoikoari egin arteraño. Nik, egunoro gosaritu, bazkaldu ta apalduten dodan baizen ziur, egin daroadaz goizeko eskaariak, ta bardin gabaz oera baiño leenago neure emazte ta umeak lagunduten deusteela. Maisu Juan, neure adiskidea: aserratuko ezpazintxataz, esango neuskezu, ezteutsudala ikusi kristiñaua zareanen usain ta igargarririk. Ozta ozta, indarrez, gogo otzaz, ezin bestez, ondo iritxiz, nagi nagi ziñeala, erdi lagundu zeunstan, maiko *erreguak* egin; eta autortu zeunstan, neu lotsatuteko bestean, ez bakarrik etzenduala maiko jaana bedeinkatuten, ta ian-ostean Jaungoikoari eskerrak emoten, baita bere etzenkiala zelan egin.

Eta diñozu gero irakurlari ederra zareala? Zelango liburuak irakurri daroazuz? Gomutau zaite, on guztia Jaungoikoagandik iatorkula. Enaz ni eskolaua; baiña badakit, nik erein arren galgarua soloan, ezarri arren

DIÁLOGO SEGUNDO

ENTRE LOS MISMOS MAISU JUAN Y PERU

Interlocutores la ventera y su criada

M. J. Basta de sueño; se ha clareado el día; hace ya tiempo que hizo oír (lit. dió) el gallo el canto de la mañana. Levántese V.; almorcemos algo; pagando la posada vayamos de aquí, a donde no vendré otra vez si no se me pierde la cabeza. ¡Qué cena la de anoche! ¡Qué noche! ¡Qué tener que oír desvergüenzas un hombre honrado!

P. Voy a vestirme; pero tiene usted que esperarme un rato hasta a hacer a Dios las oraciones de la mañana. Yo tan ciertamente como suelo almorzar, comer y cenar a diario, suelo hacer las oraciones de la mañana y lo mismo de noche, antes de (ir) a la cama, acompañándome mi mujer e hijos. Maisu Juan, amigo mío: si no se me enfadara V., le diría que no le he visto muestra (lit. olor) y señal de que es usted cristiano. A duras penas, a la fuerza, con ánimo frío, por no poder otra cosa, por bien parecer y teniendo mucha pereza, me acompañó V. a medias a hacer las oraciones de la mesa; y me confesó V., hasta el punto de avergonzarme, no sólo que no solía usted bendecir la comida de la mesa y dar gracias a Dios después de comer, sí que también que no sabía usted cómo hacerlo.

¿Y luego dice V. que es buen lector? ¿Qué clase de libros suele usted leer? Acuérdesse V. de que todo lo bueno nos viene de Dios. Yo no soy instruido; pero sé que, a pesar de sembrar yo el grano de

simaurrea ugari, iorratu ta zalgia ezkuz atera arren, etxatala garirik elduko, neu lo nagoan artean euriakaz gozatu, ta lur barruan zelaz ezkakidala erne-erazo ta azten ezpadau. Beraz zor deusaguz eskerak Jaungoikoari gure bizitzeari irauan eragiteko emoten deuskulako zer ian. Eta deritxazu gaisoak osatu gura badituzu, ezteutsazula eskatu bear Jaungoikoari lagundu dagizula?

M. J. Peru, *sermoe* ederra, *predikadore* batentzat bere. Noz entzun da ardantegi baten onelango *konbersasiñorik*? Zer esango leukee *bentera* ta bere *serbitzariak* balentzue niri diraustazuna? *Erejeren* bat nazala.

P. Dana dala; baiña adiskide asko gura iakon bati (1) esan bear iako nunnai, ta noz-nai ondo iagokana. Bakarrean dirautsut, eta ez neure burua arrotu guraz. Ikusiko bazendu nik gatxen bat daukadala, neuk ezkataudala, ta ezagututa, iaramonik egiten ezteutsadala, itxiko zeunsket ezer aituta baga? Ez asko gura bazeunst (1) edo benetan maite baninduzu. Aditu egizu onenbestegaz zer esan gura deusudan. Baneki gatx iritxiko ezteutsula, itanduko neuskezu ioaten zarean Meza nagusira Jaungoikoaren berbea entzuten, edo egoten zarean bizargintzan bear eztan orduan zeure ta beste arimen kaltean. Itanduko neuskezuz beste gauzatxu batzuk; baiña minberatu eztiezen zure belarriak, largako deusut onetan geiago aitatu baga.

M. J. Peru: ondo egingo dozu: badakit zer egin bear lizatean, egiten ezpadot bere. *Almorzau* daigun orain.

trigo en la huerta, a pesar de empesar de escardar en abundancia, a pesar de escardar y de sacar a mano la mala yerba, no se me ha de madurar el trigo, si mientras yo estoy durmiendo no se endulza con lluvias y si dentro de la tierra, sin que yo sepa cómo, no le hace brotar y crecer (el Señor). Por tanto debemos gracias a Dios porque nos da qué comer para hacer que dure nuestra vida. ¿Y le parece a V. que si quiere V. curar enfermos no debe V. pedir a Dios que le auxilie?

M. J. Peru: buen sermón aun para un predicador. ¿Cuándo se ha oído en una taberna semejante conversación? ¿Qué diría la ventera y su sirviente, si oyeran lo que V. me dice? Que soy algún hereje.

P. Sea lo que fuere; pero a un amigo a quien se le quiere mucho (1) se le debe decir donde quiera y cuando quiera lo que le conviene. Le digo a usted a solas, y no con deseos de envanecerme. Si viera V. que tengo yo algún mal, sin que yo mismo lo conozca, y que conociéndolo no le hago ningún caso, ¿me dejaría V. sin mentarme nada? No, si V. me quisiera mucho (1), o si de veras me amara usted. Entienda V. con tanto lo que quiero decirle. Si supiera que no le ha de parecer mal, le preguntaría a V. si va usted a Misa mayor a oír la palabra de Dios, o si está V., por costumbre, en la barbería a horas indebidas en perjuicio de su alma y de las de otros. Le preguntaría a V. otras cosas; pero a fin de que no se resientan sus oídos, le dejaré sin mencionar más sobre esto.

M. J. Peru: hará V. bien: ya sé lo que se debería hacer, aun cuando no lo haga. Almorcemos ahora.

(1) Ikusi beite 3-garren orrialdeko oarra.

(1) Véase la nota de la página 3.

P. Laster naz, ta arteetan isio egizu sua, eta berotu zaite.

M. J. Belutuko iaku orretan, ta dei egitera noako Praiskari.

P. Itxi egiezu bakean, eurenz iagi ditezen artean. Zuk zeureari aurrera; sabelak emoten deutsu ardua geiago arimako gauzak baiño. Obeto egingo zenduban zuk bere lo egin bazendu, gaba alperrik igarota, ardi ta imitxa txatxar batzuk gora bera. Aragi minbera ta guperak bide daukazuz. Zelango mutilla zu, arratoetzarrez beterik dagozan toki edo gelectan lo egiteko! Orra nun dantzudazan oiñ-otsak; iagi da Praiska; esan eiozu imiñi dagiala urdai-zati bat erreten burduntzian, da arto edo ogi erregutadak koipatsuz ta eukiko dogu gosari ezin ohea: miazkauko dituzu atzak gozoaren gozoz. Andiki etxeetan artu daroen edaari arro ta bisttsuak baiño mamim geagio iraatsiko deutsu. Zer egin etezan bartko soiñulari ardaoz berotuaz? Ezta berarnasarik bere ona elduten. Sabaiko lasto-ganean etzunda egongo da oraindiño.

M. J. Arren iagiko ezalda dartzan tokiti.

P. Ez, arren, biroarik iñori egotzi, Maisu Juan: errukarria da ta ez biraogarria gizon adiña galduten dabena. Nok iaramon bear deutsee ordi baten esan eta soiñuai? Erruki geiago emoten deust niri gorroto baiño, zerren dabillen bere osasun, etxe ta izen onaren kaltean. Kristiñauak gara ta ezin zuzendu badi-tugu oker doazanak, edolan bere eskatu daiogun Jaungoikoari argitu

P. Pronto vengo (lit. soy); entre tanto encienda V. el fuego y caliéntese.

M. J. Se nos hará tarde en esa operación (lit. en eso) y voy a llamarle a Francisca.

P. Déjeles V. en paz, hasta que se levanten por sí mismos. Usted adelante a lo suyo: más cuidado le da a usted la tripa que las cosas del alma. Mejor hubiera V. hecho si hubiera dormido en lugar de pasar la noche inútilmente por unas cuantas ruines pulgas y chinches más o menos (lit. arriba y abajo). Parece que tiene V. carnes delicadas y melindrosas. ¡Valiente muchacho está V. para dormir en aposentos o sitios llenos de ratas grandes! He ahí que ahora oigo pisadas; se ha levantado Francisca; dígale V. que ponga a asar en el asador un trozo de tocino y unas rebanadas de borona o pan con frita tendremos un almuerzo inmejorable; se chupará V. los dedos de puro sabroso. Le alimentará a usted más (lit. le aplicará a V. más carnosidad) que las bebidas de farsa y espumosas que suelen tomar en las casas de los magnates. ¿Qué se habrá hecho de aquel cantador borracho (calentado por el vino) de anoche? No llega aquí ni aun aliento suyo. Estará todavía tumbado sobre la paja del desván.

M. J. Ojalá no se levante del sitio en que está (lit. yace).

P. Por favor, no lance V. maldiciones a nadie, Maisu Juan: es digno de compasión y no de improprios el hombre que pierde el entendimiento. ¿Quién debe hacer caso a los dichos y canciones de un borracho? Más lástima me da a mí que odio, porque anda en perjuicio de su salud, de su casa y de su buen nombre. Somos cristianos y si no podemos enderezar a quienes

dagiala bere itxumendi ain ondagarrian. Orra or Praiska...

M. J. Neska: imini egin koi-patsua, urdai zati bategaz; ondo etorriko iakoz lukainka-adar bi.

PRAS. Enaz ni neskea, neskatilla garbia baiño; ikasi eikezu urren-goan obeto berba egiten. Zuk zeure soñoko bitxidunok baiño, nik gei-ago *estimetan* dot buruko ule-trenza gerriraiño elduten iatana, ta zapi baga nun-nai erabilli daikedana. Botako zendukedaz *plagea*-ren etxera, gauza askori begiratuko ezpa-neutsee. Len bere esan neutsun au.

M. J. Etxaite aserratu Praiska ta imiñi egizu koipatsua.

PRAS. Eztaukat giltzik; etxeko-andreak gorde daroaz.

M. J. Zer eta egiten dozu egun bat bere *konpianza*-apur bat ezteutsuen etxean? Beragaiti ostu bear deutzazu aldozun iaaki guztia ta, *soldatea* artuta, ioan zakioz etxeti.

P. Orrek dira kristiñau baten aotik urtengo daben berbaak? Ostuteko putzak emon? Gurako zenduke, Maisu Juan, etxeko zeure otseñak egin dagizun orrelangorik? Ze ugazaba-andrak gorde eztaoaz gilzpean okela, urdai ta bestelango gauza asko? Ogia lotu edo katigatu bear etxakee otseñai. Ugazaba-andrea zikotz zekena bada onetan, kalte geiago izango dau. Bear egiten dabenak ian bear dau. Praiska: ez entzuterik emon onen esanai; izan zaite esku garbikoa. Niri siniztu gura badeustazu, urten egizu bai emendi. Ardao-etxeetan sartuten dira agura baldresak, mutil gaizto lotsabagaak, ta eztozu entzungo emen berba garbi ta zuzenik, ta bai birao ta zantarkeriak. Ule-trenza ori

van torcidos, como quiera pidamos a Dios que le alumbre en su tan perjudicial ceguera. He ahí Francisca.

M. J. *Neska*: pon la fritada con un trozo de tocino: le vendrán bien dos trozos (lit. ramas) de longaniza.

FRANC. Yo no soy *neska*, sino limpia *neskatilla*; puede V. aprender, a hablar mejor en adelante. Yo estimo más mi trenza de pelo, que me llega hasta la cintura y que puedo llevar sin pañuelo donde quiera, que usted sus vestidos elegantes. Le echaría a V. a paseo (lit. a la casa de las plagas) si no mirara a muchas cosas. También antes le he dicho a V. esto.

M. J. No se enfade V. Francisca, y ponga V. fritada.

FRANC. No tengo llaves; la ama de casa las suele guardar.

M. J. ¿Qué? ¿Y está V. (lit. hace usted) ni un día en la casa en donde no le conceden un poco de confianza? Por lo mismo la debe V. robar todos los alimentos que pueda y, una vez recibido el sueldo, váyase V. de casa.

P. ¿Esas son las palabras que han de salir de la boca de un cristiano? ¿Dar ánimos para robar? ¿Querría usted, Maisu Juan, que los criados de su casa le hicieran otro tanto? ¿Qué ama de casa no suele guardar bajo de llave la carne, el tocino y otras muchas cosas de otra clase? No se les debe retener (lit. atar, aprisionar) el pan a los criados. La señora ama, si es roñosa y tacaña en esto, se hace mayor perjuicio. El que trabaja debe comer. Francisca: no dé V. oídos a sus dichos; sea V. de manos limpias. Si quiere usted crearme, salga V., sí, de aquí. En las tabernas suelen entrar hombres zafios, muchachos malos y desvergonzados, y no oirá V. aquí palabras limpias y rectas

ain maite badozu, iges egizu garbitasunaren lapurren arteti.

PRAS. Ondo diñozu, gizon ona: emen baraila, deadarra, auzkea ta nasaitasuna baiñc besterik eztago. Nik ezteutsat urik ezarten ardoari; baiña bai atso arima bagako txar onek; ta isillik badaroat, lagunduten deutsat lapurretan. Edatera datozan gizonak esesten deuste, neuk errua baneuka legez, ardaoa makala dagoala, neurri laburra emoten iakeela, lapurrak gareala, ta zer ez? Barriz isildu gura ditut aitatuten deustezan izen lotsagarri damu emoten deusteenak. Beintzat urtea egin daidanean artuko dot igesa.

P. Ze urte ta urte-oste! Urten egizu ainbat lasterren onelango etxeti, nun Jaungoikoaren usainik eztaogan.

M. J. Zagoz isillik; ementxe dator *bentera* ta etxeko andra *prinzipala*, ta entzuten badeutsue *konbersaziñoa*, galduak gara. *Pausu*-otsa da; orra or itxura ederreko *predea*.

PRAS. Gorra dago; deardar andi бага eztaantzuz ezer, ta egizu berba ardura бага.

M. J. Ondo dago, bada. Peru, zer deritxu eskatuko deuskula *pagutzat*?

P. Arpegian agertu oi da askotan nor zelangoa dan. Begira egiozu ondo buruti beazetara atso oni. Badiu gitxienez larogei urte: bekoki guztia tximur tximur eginda, bere mamin da guzti: begi ezkelak ta gorrituak, piztaz ta bekarrez beateak; betseña katuaren gisakoa; betuleak erdi-zuri ta erdi-murrituak; betazpiak baltzituak; ortzak antxina ioanak, oi utsak agiri dituala; suurra azpiti auts gorritz betea, muskil baltza dariola, ganeti zubitua: lepoa

y sí maldiciones y porquerías. Si quiere V. tanto a esa trenza de pelo, escápese V. de entre los ladrones de la honra (lit. de limpieza).

FRANC. Dice V. bien, buen hombre: aquí no hay más que barullo, grito, pendencia y obscenidad. Yo no le pongo agua al vino; pero sí esta vieja desalmada y mala, y si estoy callando le acompaño en el robo. Los hombres que vienen a beber me acometen, como si yo tuviera la culpa que el vino está flojo, que se les da medida corta, que somos unos ladrones, y ¿qué no? Mas quiero callar los nombres vergonzantes que me dicen, que me apesadumbran. Por cierto cuando esté (lit. haga) un año, tomaré la puerta (lit. la huida).

P. ¡Qué año ni ocho cuartos! Salga V. cuanto antes de semejante casa en donde no hay rastro (lit. olor) de Dios.

M. J. Cállese V.: aquí mismo viene la ventera y principal ama de casa y, si le oye a V. la conversación, perdidos somos. Se siente ruido de pasos, he ahí una prenda de hermosa figura.

FRANC. Es sorda; no oye sin grandes gritos y hablen sin cuidado.

M. J. Bien está, pues, Peru: ¿Qué le parece a V. que nos pedirá por pago?

P. En la cara se suele conocer muchas veces de qué clase se es. Mírele V. bien a esta vieja desde la cabeza a los pies. Tiene por lo menos ochenta años: toda la frente arrugada, la carnosidad y todo: los dos ojos tiernos y enrojecidos, llenos de legañas; la pupila a modo de la del gato, las pestañas medio canas y medio caídas, las orejas ennegrecidas; los dientes de antiguo desaparecidos, descubriendo las encías; la nariz, llena por debajo de

makurra ta jita artua. Bakarrik miina dauka txito ezko ta zolia, neskatilleak diñoanaz. Eztaukagu zer itxaron abegi onik; gure lapikoko arbi, aza ta okela zantarra urre biurtuko iako bere aoan; ta dirua ezpadozu ugari, eztakit zelán ibilliko garean. Alan bere urten daigun ezta-baideetati, itandu egiozu, zeinbat eskatuten daben gure aparti, gosari, ardao ta oca-gaiti.

M. J. Ondo: baiña ze izen dau? Neskátilla, esaizu.

PRAIS. Maisu Jauna: Andra Magdalena deritxo.

M. J. Izen ederra; bere izeneko *Santearen debotea* bada, ezta zekena izango. *Probau* daigun. Andra Magdalena, esan beigu, zeinbat da gure kontu gutzia?

ATSOAK. Itxaizu kontuak atera daidazan... Atera ditut ta gizon *onrauak* zareen aldeti, ezta izango *eskudu* bi baiño geiago. Beste batzuk baziñee, geiago *pagau* bearko zeunsket.

M. J. Andra Magdalena: ezkara bi baiño geiago; gau bakar bat igaro dogu; eztogu ez oillandarik, ez eperrik ian, ezta pitxar erdi bat baiño edan. Zer esan dau...? *Eskudo* bi *pagau* bearko dogula...? Gorra dago...? Peru, isillik zagoz...? Barre egiten dozu...? Atera egizuz kontuak, ta nik paperean *sumauko* ditut.

P. Ondo dago. Lau ontza aketirenek, lau lauko. Zortzi arbi-buruk, amabi zuriko (1), edo iru lauko. Azatan, koipe ta guzti, bost lauko.

Urdai-apur apur urtu zana, lau lauko.

Jaungoikoak emoten deusku gauzea ugari; topiñ ona beti izaten da; ilten dogu lauoñeko gizona, idi lodi zezin ederra dabena. Euren *den-poretan* izaten da ian al baiño geiago kastaña ta sagar. Urte guztian, esaterako, daukagu eznea ta aurreraturen ditugu diruak lagunduteko gero umeai, aututen dabeen bizieran.

Dakustaz nik iru ta lau etxaguntzaren jaube direanak, zoorrez beteta, bururik iaso ezinda, gosea emoten deutseela euren ume ta ogitukoai. O zorigaiztoko ardantegiak! Eta zeinbat kalte egiten dozuen! Bizkairik geienak Erriojara daroa dabena ta eztabena.

M. J. Peru, zorionekua zu! Errege bera ezta zu baiño obeto bizi. Goazan laster barrura; io eizu atea.

(Deika).

ETXEKOAK. Nor da?

P. Umeak: zeuen Aita, edegidazu atea.

ETXEKOAK. Bai, bai pozik. Jesus! nor da au?

P. Umeak ez igesik egin; gizon ona ta adiskide barri bat da, ta ezteusue gatzik egingo. Mun egidazue eskuan besteetan legez, ta gero denda ta igitu zaiteze aparta ta oe garbi on bat iminteko lagun oni. Maisu Juan: goazan eskaratzera: oiñak bustiko iatzuzan, ta aldatu egizuz. Eztozu emen ediroko oiñetako zorrotzik, bai abarka, edo zapata zapal edo motzak.

M. J. Peru: zu bere jausi zara noz edo noz zeure euskeran. Zapatearen izena erdaldunena da.

P. Nik eztakit erdaldunen barririk, baiña bai zapatearen izena euskalerrietakoa dala. Zapatea esaten iako oiñetako zoru sendodunari; *zapala* dalako, edo *zapalduteko* zerbait,

los nuestros. Por lo mismo nos da Dios bienes abundantes; siempre suele haber buen puchero; matamos cerdo rollizo y cebones de hermosa cecina. En su época, suele haber más castañas y manzanas que las que podemos comer. En todo el año, para un decir, tenemos leche y ahorramos dinero para ayudar más tarde a los chicos en la profesión que elijan.

Veo yo a dos o tres que son dueños de propiedades, llenos de deudas, sin poder levantar cabeza, que tienen hambrientos a sus hijos y sirvientes. ¡Ah malaventuradas tabernas! ¡Y cuánto daño hacéis! La mayor parte de Vizcaya lleva a Rioja lo que tiene y lo que no tiene.

M. J. Peru: ¡feliz V.! Ni el mismo rey vive mejor que V.; vayamos adentro pronto; llame V. a la puerta.

(Llaman).

LOS DE LA CASA.—¿Quién es?

P. Chicos: vuestro padre; abrid la puerta.

LOS DE LA CASA.—Sí, sí, con placer. ¡Jesus! ¿Quién es éste?

P. Chicos, no huyáis: es buen hombre y un nuevo amigo y no os ha de hacer mal alguno. Besadme la mano como otras veces y después prepararos y disponeos para poner cena y una cama limpia a este compañero. Maisu Juan: vamos a la cocina: se le habrán humedecido a V. los pies y múdelos. No hallará V. aquí calzado puntiagudo, sino abarcas, zapatos anchos y romos.

M. J. Peru: V. también ya ha caído alguna vez en su bascuence. El nombre de *zapatea* es del castellano.

P. Yo no sé nada de castellano (lit. no sé noticias de castellano) pero sí que el nombre *zapatia* es de los pueblos bascongados. Se le llama *zapatia* al calzado de suela fuerte,

txito adiutua. Zapoa bere esaten deusagu piztia atsitu zapalari. Auxe badatik, ez ezer geiago.

M. J. Isillik nago *errazoe* orreek entzunda. Ezin *atrapau* ziñiaiz zeure euskeran. Ekarri bada zeure zapata batzuk, zeintzuk eukiko dituzun gordeta iaiegunetan meza nagusira ioateko.

P. Bai, alan iazoten da aspaldiko urteetan; nekezale guztiak bere badaukez euren zapatak zutoetxuetan, ta kaltzerdiak kakoan esegita. Sartu dira kapela kerizgarriak ta egal biribil ta luzedunak. Nik entzun neutsan aita-asaba bati, antxiña andikiak bere ebilzala abarkakaz, txapel batuz, zeintzuk obago direan burua ta belarriak berotuteko kerizgarri zuk *sombrelluaren* izena emoten deuteezunak baiño. Iagiko balira lurpetik antxiñako asabak, eleukee siñiztuko bizkaitar ta euren ondo-rengoak direala gaurbo jaun, andiki ta andikigurak. Mutillak beti erabillen burua mutildurik, ta emendi etorkeen euren izena. Gizonak azten eben ulea lepoti beera ezarteko, ta agertuko bazirean gizonartean.

Neskatillak erabilezan uleak agirian euren garbitasunaren igargarritzat. Neska zantar, jausi ta garbitasuna galduak, zapiakaz estalduta buruak, lotsaturik, atzeratu dituzan besteak dongaro egitetik. Andra ezkonduak estaldu eroezan buruak, batzuk orain legez, ta etxanderak jira askogaz. Aztu dira asko gaurko egunerako antxinako gure mutil, neskatilla, gizon ta andreen iaantzi iraunkorrak. Nor nor dan nok eza-gutu? Len ozta ezaututen zan matsardaoa. Sagasti asko zirean, ta erriko ardao edo sagardaoaz igaro-

porque es aplastado. También llamamos a (una) alimaña hedionda aplastada. Sé esto, nada más.

M. J. Me callo (lit. estoy callando) oyendo esas razones. No le puedo atrapar a V. en su bascuence. Haga usted traer, pues, algunos zapatos suyos; los que tendrá guardados para ir a oír misa mayor en días de fiesta.

P. Sí, así sucede hace muchos años. Todos los artesanos tienen también sus zapatos junto a la chimenea y las medias colgadas de ganchos. Se han introducido monteras que producen sombra (sombrosos) y de alas redondas y largas. Yo le oí decir a un antepasado del padre que antiguamente también los señorones andaban con abarcas y con monteras recogidas, las cuales eran mejores para abrigar la cabeza y las orejas que el sombrero al que dais el nombre de *sombrellua*. Si se levantarán de debajo de tierra los antiguos antepasados no creerían que son vizcainos y descendientes suyos los señores magnates y aspirantes a magnates de hoy. Los muchachos llevaban siempre la cabeza rapada y de aquí les venía su nombre. Los hombres dejaban crecer el pelo hasta dejarlo caer sobre la espalda si habían de aparecer entre los (demás) hombres.

Las doncellas llevaban el pelo al descubierto por señal de su pureza. Las malas muchachas, caídas y que han perdido su pureza (llevaban) la cabeza cubierta con pañuelos, avergonzadas, para que las demás se retrajesen de obrar mal. Las mujeres casadas solían cubrir su cabeza, algunas como hoy y las amas de casa con muchas vueltas. Se han olvidado ya mucho para hoy en día los duraderos trajes de nuestros antiguos muchachos, doncellas, hombres y mujeres. ¿Quién conoce, quién es quién? Antes apenas se

ten zirean bizkaitar ta beste euskaldunak. Dirua geratuten zan bertan. Eztago ikusi baiño zeinbat tolara topetan direan etxe zaarretan, ezetarako eztireanak gaur. Maisu Juan, zer deritxu? Zer diraustazu? Nor-tzuk bizi zirean obeto? Aen lautasuna obea etzan, gure egunetako bitxitasunak baiño? Galdu gaitue arrotz ta erdaldunak, ta tximiño egiñik iarraitu gura deutsegu aen asmoai. Nire alabak iazten dira lau lau, astegunetan bear egiteari dagokan legez, ta iai-egunari emoten iakola berea.

Daukadazan alabak dira bikotxak, edo batera iaioak, ta etzara onegaz zurtuko zu, dakizulako izan oi direala nozbait irukotxak bere. Seme bata eskolau da, liburu-zalea; badaki erdera, ta euskeratuten deuskuz, gaba igaroteko, irakurri dituan ipuiñak, baiña ipuiñ onak, garbi ta iñoren kalte bagakoak.

Egoten gatzakoz aoak zabalik entzuten, ume txikarrak Peru ta Mariaren ipuiñ gatz bagaak entzün dāroezan garraz. Lengo egun baten berak buruz ikasita, esaneuskun ipuin txito eder abade batek imini ebana berba neurtu ta soñutuaz.

M. J. Agindu egiozu arren, esan daigula apaldu baiño leenago.

P. Txomintxu: esaizu lengo eguneko ipuiñ abadeak atera ta irakatsi eutsuna. Ez bildurtu; etxekotzat euki egizu emen dakutsun gizon au.

Txom. Aita, asko da zuk agindutea ta ona bera:

conocía el vino de uva. Había muchos manzanales y con el vino del pueblo, o sea con la sidra, pasaban los vizcainos y los demás euskaldunes. El dinero se quedaba allí mismo. No hay más que ver los lagares que se encuentran en las casas viejas, que no sirven para nada hoy. Maisu Juan: ¿qué le parece a V.? ¿Qué me dice usted? ¿Quiénes vivían mejor? ¿No era mejor su llaneza que las elegancias de nuestros días? Nos han echado a perder (lit. perdido) los forasteros y extraños, y hechos unos micos imitamos en sus invenciones (lit. le seguimos a sus invenciones). Mis hijas se visten llanamente, como corresponde a los quehaceres de los días laborables, y al día festivo dándole lo suyo.

Las hijas que tengo son mellizas, o nacidas a un tiempo, y no se asustará V. de esto, porque sabe V. que algunas veces suelen nacer también tres (lit. suelen ser tres también). Uno de los hijos es estudiante y aficionado a los libros; sabe castellano y nos traduce al bascuence, para pasar la noche, los cuentos que lee; pero cuentos buenos, honestos y no perjudiciales a nadie.

Solemos estar oyéndole con la boca abierta, con el mismo entusiasmo con que los niños pequeñitos suelen oír los cuentos insípidos de Peru y María. Uno de los días pasados, aprendido de memoria por él, nos dijo un cuento muy hermoso que un sacerdote puso en verso y con música.

M. J. Ordéncle V. por favor, que nos lo diga antes de cenar.

P. Dominguito: di el cuento del otro día que te enseñó el sacerdote y es sacado por él. No tengas miedo: ten como de la casa a este hombre que ves aquí.

DOMINGO. Padre: bastante es el mandarlo V. y he aquí ello.

Sagu bi zelai baten
 Egozan gauzak esaten;
 Bata zan basokoa,
 Bestea etxekoa,
 Dirautsa ak oni;
 «Gurozu neugaz etorri?»
 —Bai ordu onean
 Adiskide-usaiñean.
 Baiña emen kanpoetan
 Zelai-basoetan
 Zer dogu guk iango?
 Ezteustazu emongo
 Oba dan gauzarik,
 Ez koipe, ez ezirik.
 Basoko saguak
 Daukaz palaguak
 Etxekoari esateko:
 «Ni baiño nor obeto
 Bizi da lurrean?
 Eztot neure bizian
 Izan nik bildurrik,
 Ez ez katigurik.
 Nago neure basoan
 Atseren osoan:
 Eztot areriorik,
 Ez ta galdu lorik.»
 Darraiko etxekoa,
 Basoko iatekoa
 Ikusteko gureaz
 Ian barri-goseaz.
 Maia imiñi zan;
 Zer ikusi etzan?
 Bazkari ugaria
 Eder ta garbia;
 Sagar eta urrak,
 Mispilla ta intxaurreak,
 Okaran ta madari,
 Ta sabel gaisoari
 Emon al guztia.
 «¡O bazkari andia!»
 Dirautsa etxekoak,
 «Iaaki ikustekoak;
 Niretzat baiña otzak,
 Argalak eta motzak.
 ¡O neure anaia!
 Zuri neure maia
 Iatort emotza
 Ta eskertsu izatea.»
 Daroa bada txera,
 Eta emen emotera
 Andiki ianariak,
 Aberats ta ugariak:
 Koipea eta ezta,
 Gaztae ta urdaia.
 «Ase zaitte emen,
 Eztozu alan ian len.
 Eztago basoan
 Ez zuen kobauan
 Onlango aparirik.
 Musturrak koipeturik,
 Bizarrak miasketan,
 Eztarria garbietan,

Dos ratones en un prado
 Estaban diciendo cosas;
 El uno era de campo (lit. de selva)
 El otro casero.
 Le dice aquél á éste:
 «¿Quiere usted venir conmigo?»
 —Sí, en buena hora, [amigo]
 En concepto de amigo (lit. en olor de
 Pero aquí, en los campos,
 En los prados y selvas
 ¿Qué comeremos nosotros?
 No me dará usted
 Cosa que sea buena
 Ni grasa, ni miel.
 El ratón de campo
 Tiene palabras lisonjeras
 Para decirle al casero:
 «¿Quién mejor que yo
 vive en la tierra?
 No he en mi vida
 Tenido miedo alguno
 Ni encierro.
 Estoy en mi selva
 En completa tranquilidad
 Ni tengo enemigos,
 Ni pierdo el sueño.»
 Le sigue el casero
 Con ganas de ver
 La comida de campo;
 Con hambre de comer cosas nuevas
 Se puso la mesa
 ¿Qué no se vió?
 Comida abundante,
 Hermosa y limpia,
 Manzanas y avellanas,
 Nisperos y nueces,
 Ciruelas y peras,
 Y al vientre enfermo
 Todo lo que se le puede dar.
 «¡Oh, gran comida!»
 Le dice el casero
 «Alimentos dignos de verse,
 Pero para mí fríos,
 Débiles y flojos.
 ¡Oh, hermano mío!
 A usted mi mesa
 Me corresponde dar
 Y ser agraciado.»
 Le lleva, pues, a casa
 Y aquí a darle
 Viandas de magnate
 Ricas y abundantes:
 Grasa y miel
 Queso y tocino.
 «Hártese usted aquí,
 No ha comido usted así antes.
 No hay en la selva
 Ni en vuestra cueva
 Semejante cena.
 Los hocicos grasientos,
 Lamiéndose los bigotes,
 Limpiándose la garganta.

Auxe bai bazkaria!
 Arto eta garia
 Ian-ala ganbaretan;
 Gabaz oramaictan
 Ikusten zer dagoan.
 Ta gura bogu ioan
 Geroago lotara,
 Oe utsetara,
 Eztago ez itxirik
 Guretzat maratilarik,
 Ate inzirrikatua
 Da bide adiutua».
 Oneek zituan esaten
 Goi ta be erabilten
 Etxeko saguak.
 Ta orra nun katuak
 Deutseen iarraituten,
 Ta atzamarrak ezarten.
 Etxekoak iges eban,
 Basokoak eziñeban
 Topau zurkularik.
 Baebilen estuturik
 Txillioka gaisoa
 Guztia igaroa;
 Nekez da ezkutetan
 Tresna-zuloetan.
 Dirautsa lagunari;
 «Zetako nakartzu ni
 Leku oncetara?»
 Noa neure etxera.
 Egon zaite zu emen
 Bizarrak koipetuten».
 —Ez, diño etxeokak
 Geituaz erreguak,
 «Zagoz aldi baten
 Oraindiño, bai, arren.
 Dakit katuen barri,
 Iges dodalako sarri;
 Egon zaite iaten zu;
 Ni izango natxatzu
 Ateen iagolea,
 Ta katu-begiralea.»
 Alan iardunakaz
 Ta berba labanakaz
 Sagutxu basokoa
 Barriro badoa
 Billetan iaakia,
 Eta zelataria
 Beragaz batera.
 Baiña ioake atera
 Giltzera andrea:
 An da esturea!
 Lapiko-barruan
 Basokoa egoan
 Guztia sarturik,
 Sabela baterik.
 Nai dau iges egin,
 Baiña ezin dau ez arin;
 Oñak koipaturik,
 Bideak labandurik,
 Da bildur ta ikara
 Ioan eztedin ara

¡Esta sí que es comida!
 Maíz y trigo, [desvanes;
 Todo el que se puede comer en los
 Por la noche en las artesas
 Viendo lo que hay,
 Y si queremos ir
 Más tarde a dormir
 A camas desocupadas,
 No hay cerradas
 Para nosotros tarabillas,
 La rendija de la puerta
 Es camino apropiado.»
 Esto decía
 Moviéndose arriba y abajo
 El ratón casero.
 Y he ahí que el gato
 Les persigue
 Y les echa la zarpa.
 El casero huyó,
 El campesino no pudo
 Encontrar agujero.
 Andaba apurado
 Chillando el cuitado
 Todo atolondrado:
 Con trabajo se esconde [enseres)
 En los agujeros de los muebles. (lit.
 Le dice al compañero:
 «¿Para qué me trae usted
 A este sitio?
 Me voy a mi casa.
 Estése usted aquí
 Untándose los bigotes».
 —No, dice el casero
 Aumentando los ruegos,
 «Estése usted un rato
 Todavía, sí, por favor. [del gato)
 Yo sé las trampas del gato (lit. noticias
 Porque he huido de él a menudo.
 Quédese comiendo usted;
 Yo le seré a usted
 Guardián de las puertas
 Y vigilante del gato.»
 Así con discursos
 Y con palabras suaves
 El ratón campesino
 Va nuevamente
 A buscar el alimento
 Y el centinela
 Con él a la par. [puerta
 Pero les presenta (lit. se les va) a la
 La señora llavera
 ¡Allí es el apuro!
 Dentro de un puchero
 El campesino estaba
 Todo metido
 Con el vientre lleno.
 Quiere huir
 Pero no puede hacerlo prontamente;
 Los pies untados de grasa,
 El camino resbaladizo,
 Y el miedo y el susto
 De que no vaya allá

Etxe giltzerea.
 O ze ikarea!
 Dago eskutuan
 Lapiko-barruan;
 Ezta azartuten,
 Arnasa artuten.
 Bere zorionez
 Ez ioako ara, ez.
 Iatorko laguna
 Sagu-etxe iauna;
 Eta onek aserrez,
 Zegaiti, diño, iges
 Eztozu beingoan?
 Zegaiti lapikoan
 Zara geratu zu?
 Zelan eztakizu
 Igesa artuten,
 Burua gordeten?
 Basotar gaisoak
 Diño: ze gozoak
 Emengo iaakiak
 Eta edaariak!
 O adiskidea!
 A bai ze goria
 Dan zure iana!
 Ai baso laztana!
 Ai kanpo maita!
 Zein zaran ohea!
 Eztozu ez katurik,
 Ez neska giltzerarik
 Dator koipe bila;
 Gitxiarren ni illa
 Iza-ez naz koipetan.
 Ezta basoetan
 Onlango arriskurik.
 Laguna: niri ez deirik
 Geiago iñoz egin.
 Ezta au ez ipuin
 Gururrez asmaua
 Bai egiaztua.

*Biotza kezkatuik
 Eta arriskuz beterik
 Dagoan atsegiña
 Ezta zindo-piña.*

M. J. Txomintxu: ez ioat iñoz entzun ipuin ain ederrik. Zelan baiña imiñi dabee *berso* ain luzean? Ze *plagak* irakasten deutsee euskeraz *koplaak* egiten? Asto bat naz ni. Ordi sats egiñak bere ateraten iituek *bersoak*, eta ezin naiak bat bizitzearen beean. Eta zer esan euan abadeak kanta ori irakatsita?

TXOM. Ez iñoz aztuteko. Gogoan banerabillen, biziko nintzala ondo; bada bizitza onak ekarrela biotzeko

La llavera de la casa...
 ¡Oh qué susto!
 Está escondido
 Dentro del puchero;
 No se atreve
 A tomar aliento.
 Por su suerte
 No se le va allá, no.
 Viene a él el compañero,
 El ratón amo de casa;
 Y éste enfadado:
 ¿Por qué, le dice, huido
 No ha usted al momento?
 ¿Por qué en el puchero
 Se ha quedado usted?
 ¿Cómo no sabe usted
 Tomar la huída
 Guardando el cuerpo? (lit. su cabeza).
 El selvático cuidado
 Dice: ¡qué dulces
 Los alimentos de aquí
 Y las bebidas!
 ¡Oh, amigo!
 ¡Ah, sí, qué ardiente
 Es su comida!
 ¡Ay selva amada!
 ¡Ay campo querido!
 ¡Cuán mejor sois!
 No tenéis gatos,
 Ni muchacha alguna llavera
 Viene por manteca;
 Por escasez (lit. por poco) yo muerto
 No he de ser entre manteca.
 No hay en las selvas
 Esta clase de peligros.
 Compañeros: a mí
 No me llaméis nunca más.
 No es este cuento
 Proyectado con mentiras
 Sino verdadero.

*Con el corazón inquieto
 Y lleno de peligros
 El placer que tiene
 No es sano.*

M. J. Dominguito: no he oído nunca cuento tan hermoso. ¿Pero cómo lo han puesto en un verso tan largo? ¿Qué demonio (lit. plaga) les enseña a hacer versos en bascuence? Yo soy un asno. Los borraños perdidos (lit. hechos lodo) también hacen (lit. sacan) versos, y yo no puedo (hacer) uno bajo pena de la vida. ¿Y qué te dijo el cura después de enseñarte esa canción?

DOM. Que no la olvidara nunca. Que si la conservaba en la memoria, viviría bien; pues la buena

bakea, ta dongeak, atsakabea ta ikarea. Basoko saguak esan eutsan egia etxeakoari: biak ebilzan lapurretan, iñoren gauzeari imurtxi egiten. Lapurrak beti bizi dira bildurrean: egun gozo bat eztae: iñori ezer kendu deutanak, dauka barruan iratsita arantza gogorra; lurrean ta zerukoan aldeti da gorrotaua ostuten dabillena, ta beste edozein kalte egiten dabena. Eztago bake iraunkorrik, ezpadago Jaungoikoaren bildurrik; baiña bildur, donga egiteti atzeratuten gaituana.

Au esan euskun guri abade onak, ipuiña irakatsi-ondoan. Lenengoan olgetan giñean asko, sagutxuen berbeeta ta iazoerak entzunda; ezkenkian zetara zuzenduten zan ipuiña; baiña igarri eragin euskunean zetarako zan ta zer atera bear genduan, geratu zan barrea.

P. Maisu Juan: badakit erdiz erdi artuten zaituala ipuin onen esangureak. Gomutetan iatzu, zer egin zeuntsan atso gaisoari? Zeinbat kalte egin? Zelan zoorra aztuerazo? Nik esaten neutsun ondo etzala; etzeustan iaramonik egin, ta uste zenduan nintzala ni gizon koldar, arima bildurti ta gatz bagako bat. Gurago neuke, gauza asko baiño geiago, artuko bazendu gogoz ipuiñ eder au.

M. J. Galdu deustazue aita-semeok apaitako gogo gutzia. Eztot nik zuek legezko *misionistarik* entzun. Aen deadar guztiak baiño geiago zaurituten dabee nire biotza zuen berbeeta *piestaz* legez esanak. Agur nire gaurko loa. Etxera noanean, garbitu bear dot neure arimea kezka guztietarik.

vida traía la paz del corazón; y la mala la aflicción y el temor. El ratón de monte le dijo la verdad al casero: los dos andaban en latrocinios pellizcando a las cosas de otros. Los ladrones siempre viven en (constante) miedo: no tienen (lit. no llevan) un día tranquilo (lit. dulce): el que quita algo a otro tiene incrustada en el corazón una dura espina; en la tierra y de parte de los del Cielo es aborrecido el que roba y el que hace cualquier otro perjuicio. No hay paz duradera, si no hay temor de Dios; pero temor que nos retrae de obrar mal.

Esto nos dijo a nosotros el buen cura después de enseñarnos el cuento. Al principio nos divertíamos mucho, oyendo el lenguaje y los sucesos de los ratones; no sabíamos a qué se dirigía el cuento; pero cuando nos hizo conocer para qué era y lo que debíamos sacar de él, se acabó (lit. se quedó) la risa.

P. Maisu Juan: ya sé que le coge (lit. le toma) a V. de medio a medio la significación de este cuento. ¿Se acuerda V. de lo que le hizo a la pobre vieja? ¿Cuánto daño le hizo? ¿Cómo le obligó a olvidar la deuda? Yo le decía a usted que no estaba bien (hecho): no me hizo V. caso y creía V. que yo era un hombre apocado, de alma cobarde y sin fundamento (lit. sin sal). Desearía, más que otras muchas cosas, que tomara V. en la memoria este hermoso cuento.

M. J. Me habéis hecho perder (entre) padre e hijo toda la gana de cenar. Yo no he oído misioneros como vosotros. Más que todos sus gritos, hieren mi corazón vuestras palabras, dichas como (en son) de fiesta. Adiós mi sueño de hoy. Cuando vaya a mi casa tengo que limpiar mi alma de todos los remordimientos.

P. Neskatiñak: ingira, imiñi egizue maia. Badakizu, Maisu Juan, zelangoa oi dan baserri etxeko ianlekua: txisilluan zamaua zabaldu, suaren ondoan egon, lapikoa eraz, ta urrean euki. Nun, Erregeen jau-regietan bere, mai egoki ta adiutua-gorik? Uste bagean legez artu ditugu. Iakin izan baleu Maria nire emazteak etorteko ziñeala zu, ipiñiko eutsun apari galanta. Gaur igaroko gara zelan alan. Urdai-zielgati ta lukainka-solomoakaz egingo dogu koipatsu; gura badozu ogi erre-gutakaz, gura badozu arto berozkoakaz. Zeure aukeran eukiko dozu. Erreten dagoz kastaiñak; egosten dago beisegiaren ezne txito mamintsu ia koipatsua; lapikoan dagoz urdai ta zeziñaz egiñiko azaak; erreten sagar mueta asko: berazak, gazamiñak, urtebeteak, domentxak, kurkubietak, gorrigarratzak, abapuruak (1).

Burduntzian dakutsuz oillanda ta usakumeak. Eztogu etxeti urten ezeren billa; usoak azten ditugu emen, ez geuk iaateko, ezpada eroateko artu-emona daukagun andiki edo abadeen etxera, ta bai nor edo nor baletor geurera uste uste bagean. Usakume il-barri ta aragi berodunak eztabee samurtuteko gorde bear egunen bat edo beste, eper, oilagor ta oillaar irenak legez; il, lumatu, ta gardostu-ezkero, sutan luma apurretati garbituteko, eztaukee burduntzian sartutea baiño, samur ta koipatsuak egoteko.

Ustekoz dozu bada, eztogula eukiko ardoarik. Badaukagu, ta zer

P. Muchachas; preparaos; poned la mesa. Ya sabe V., Maisu Juan, cómo suele ser el comedor de los caseríos: se extiende un mantel en el escaño; se está junto al fuego, teniendo a mano y cerca el puchero. ¿En dónde, ni aun en los palacios de los reyes, mesa más conveniente y apropiada? Como sin saber comemos (lit. tomamos). Si hubiera sabido María mi esposa que había V. de venir, le hubiera puesto a usted una buena cena. Hoy pasaremos así como así. Del témpano de tocino y con longaniza y solomillo haremos fritada; si quiere V. con rebanadas de pan, si quiere V. con (rebanadas) de borona caliente. A su elección lo tendrá V. Las castañas se están asando; se está cocinando la leche gorda y mantecosa de la vaca (con cría): en el puchero están las berzas guisadas (lit. hechas) con tocino y cecina; asándose manzanas de muchas variedades: *berazak, gazamiñak, urtebeteak, domentxak, kurkubietak, gorrigarratzak, abapuruak* (1).

En el asador ve V. gallinas y pichones. No tenemos que salir de casa en busca de nada; las palomas las criamos en casa, no para comerlas nosotros sino para llevarlas a la casa de los magnates y sacerdotes con quienes tenemos relaciones y también por si alguno viniera a nuestra casa sin pensarlo. Los pichones recién muertos y de carne caliente no es necesario guardarlos durante algunos días para que se pongan tiernos, como las perdices, sordas (becadas) y capones; en matándolos, desplumándolos y chamuscándolos para limpiarlos en el fuego de los restos de pluma, ya no hay más que meterlos en el asador para que estén tiernos y mantecosos.

Creerá V. probablemente que no tendremos vino. Ya lo tenemos y

(1) Eztakiguz euron erderazko izenak.

(1) No sabemos sus nombres castellanos.

iazoan edo zer etorrian beti euki daroagu gordeeta, ez geuk edaateko, baiña bai emoteko iñor badator. Iazoten da nozbait etortea andikiren bat edo beste mendi albokoetara, basaurde, eper, edo oillagorren eizara, ta iakiñik nazala gizon *prestu* ta biotz onekoa, datoz zerbait artutera lotsa ta atzerakuntza baga, ta egiten deutseegu abegi, jera ta arrera txito ona; ta nozbait iazoten iakee eguraldi euritsu ta truiXu gogorak artuta, etortea ona gaba igarotera, ta geratuten dira zurturik, iminten iakeelako apari ez txarra ta oe garbia, ta esan daroe ezebela curen etxeetan obeto apalduko. Agaiti nakusenean errira ioanda iai-egunetan, alkarren leian esesten ta ekiten deustee bazkaritara eroateko, ta naukee eurakaz maian. Eztau etxerik galduten onelango *prestuta*-anak.

M. J. Egia diñozu, Peru. Baldin Bizkaiko baserri-etxe guztiak balebiz ain zuzen, zelan zuria, ta nekezale guztiak balira zu baizen begiratuak, urrezko bideak ikusiko lirraatez. Zure etxe au Jaungoikoaren *graziaz* beterik dago. Nauka zurtuta zure seme-alaben lotsa onak ta moduztasunak. Maite dituzu ta maite zaitue.

P. Bai, Maisu Juan; emoten deustadaz Jaungoikoari eskerrak, irraatsi iakeezalako euren biotzetan nire ta nire emaztearen berba onak. Datorrenean ona Jaungoikoaren deikoren bat, ikusteko ta poztutekoa da, zelan, bata baiño besteak aurrerago direala, daroaken arto-zatia edo katillukada saldea, ta nozbait zelatau ditut ta ikusi artoa emon ta eskuan mun egiten eskale gaisoari; baita bere erregututa ekarten sutondora, otza dan aldietan berotu

siempre lo solemos tener guardado para lo que pueda suceder o pueda venir; no para beberlo nosotros, pero sí para darlo si viene alguno. Suele suceder alguna vez el venir algún magnate a estos montes cercanos a cazar jabalíes, perdices o sordas, y sabiendo que soy hombre honrado y de buen corazón, vienen a tomar algo sin vergüenza ni corteidad y les hacemos muy buena acogida, agasajo y recibimiento, y alguna vez les suele suceder, habiendo tenido tiempo lluvioso y duras tempestades, el venir aquí a pasar la noche, y se quedan asombrados porque se les pone no mala cena y cama limpia, y suelen decir que no hubieran cenado mejor en sus casas. Por eso cuando me ven, al ir al pueblo en los días de fiesta, me acometen a porfía y se empeñan en llevarme a comer y me tienen consigo en la mesa. No se pierde la casa con esta clase de amabilidades.

M. J. Dice V. la verdad, Peru. Si todos los caseríos de las aldeas de Vizcaya anduvieran tan derechos como el de V. y todos los artesanos fuesen tan mirados como V., podrían verse caminos de plata. Vuestra casa está llena de gracia de Dios. Me tienen asombrado la buena educación y la modestia de vuestros hijos e hijas. Les queréis y os quieren.

P. Sí, Maisu Juan; doy gracias a Dios porque se les ha inculcado en sus corazones mis buenas palabras y las de mi mujer. Cuando viene aquí algún pordiosero (lit. del llamamiento de Dios) es de ver y de regocijarse cómo, adelantándose el uno al otro le llevan un pedazo de borona, una taza de caldo y algunas veces me escondo y les veo darle la borona y besarle la mano al infeliz mendigo; y también le suelen traer con ruegos (lit. rogado)

ditezan, ta leortu daiezan abarka bustiak. Zer geiago esango deusut? Alaba bien artean gazteenak ez-taukaz amazortzi urte baiño geiago, ta ez bakarrik susmau, baita bere ziur iakin deusut, gordeten dabela sarri bere gosaaria, emoteko ezkutan, bere buruari kenduta, Jaungoikoaren deiko lenen datorkonari, esaten deutsecla, ez iñori ezer adierazoteko. Baru barurik dago alangoetan eguerdiraiño, ta eztago orregaitiño atzerena bearrik gogorreñetan. Bere Amak diño, topau dabela belaunbiko gabak orduak emonda, buruari loa kenduta, baztertxu baten. Ezteusku iñoz txit bat erantzun, eztoigu ikusi aserratuta ez bere nau-siagooz, ez bere nebaakaz. Baiña esan bear deusut egun baten iazo iakona. Etorri zan ona, neu etxean enengoala, mutil lotsa gaiztoko bat. Oles egin ebanean, urten eutsan atera esan deusudan alaba onek. Bere itxura ederrak ikusita beste бага, zoraerazo eutsan mutillari, ta zabaldu zituan besoak laztanen bat egiteko. Neskatiilla onek atzeratu eban gorputza, baiña bai prestau bere besoa emoteko belarrondoko ain sendo ta zolia, zein da ikareaz ta uste bagako esku-ertzateaz iausi zan beera. Itxi eutsan atea neskatilleak, zirautsala: ioan, adi, lotsabaga ori etorri azan bideetati. Asi zan biraoka ta araoka mutilla, ta iges eban mandaturik itxi бага.

Etorri nintzanean etxera esan eutsan bere amak zer iazo zan; ta dei eginda emon neutsazan eskerrak neure alaba onari, aserratu zalako, aserratu bear dabenean neskatilla batek.

Onetan bardaña da nire beste alaba: eleio, esaterako, arpegira begi-

junto al fuego, cuando hace tiempo frío, para que se caliente y para que se seque sus abarcas mojadas. ¿Qué más le diré a V.? La menor de entre las dos hijas no tiene más de diez y ocho años, y, no sólo sospecho, sino que sé de cierto, que guarda a menudo su almuerzo para darlo a escondidas, quitándoselo a la boca (lit. a su cabeza) al primer por-diosero que viene, diciéndole que no manifieste a nadie nada. En estas ocasiones está completamente en ayunas hasta el mediodía y no por eso está más retrasada en los más duros trabajos. Su madre dice que la ha encontrado de rodillas a las altas horas de la noche (lit. dadas las horas) en un rinconcito, privándose del sueño. No nos ha contestado nunca ni *chit*, no la hemos visto nunca enfadada ni con sus mayores ni con sus hermanos. Pero le tengo que decir a V. lo que le sucedió un día. Vino acá, no estando yo en casa, un muchacho irrespetuoso. Cuando llamó le salió a la puerta esta hija que os he dicho. Sin más que ver su hermosa figura, le hizo enloquecer al muchacho y abrió los brazos para darla un abrazo. Esta muchacha echó atrás el cuerpo, pero también preparó el brazo para darle un bofetón tan fuerte y sonoro que de miedo y con la inesperada acometida de mano se cayó al suelo. Le cerró la puerta la muchacha, diciéndole: véte, desvergonzado, por el camino por donde has venido. Comenzó a maldecir e imprecicar el muchacho y se escapó sin dejar recado alguno.

Cuando vine a casa me dijo su madre lo que había pasado, y llamándola di las gracias a mi buena hija, porque se había enfadado cuando se debe enfadar una muchacha.

En esto es igual mi otra hija: por ejemplo, no le puede mirar a la cara

ratu gizon bati: mutillok bere ez-titut iñok ikusiko neskatilla-atzean, ez eurakaz berba bakarrik egiten. Egunak dakaz etxera. Esan daroaket nik: mutillak: aurrerena da Jaungoikoaren bildurra; baiña zeuen munduko on izateari begiratura bere, gorde bear zaree neskatiletarik. Katua saguaren zain legez dagoz bat baiño geiago, nundi ta zelan atrapau aldaien mutillen bat. Berba zoro batzuk erasotea asko dabee, burua agertuteko, esan ta banatuaz bazterretan, ezkondu-teko itunduta dagozala urlia mutillegaz. Eta entzun dira gauza gaiztoagoak eurak ganik; ibilli eurak besteren bategaz gura dabeen gisaan, ta seindun geratuten badira, ezarri errua errurik ezeukanari. Neure mutill onak: iges egizu gaurko neskatiletati. Jaungoikoak eukiko dau zuentzat, berak aututen dabena. Etzaite iñoz ezkondu neskatilla nasai, baldan ta mutilizalegaz, aberatsa bada bere. Zuen Amak ta nik eukiko dogu zuen ardurea ta bide zuzenez, garbiz ta Jaungoikoaren borondatea, dan legez, ezkondu-ten bazaree, zorionekoak zuek. Eztaukat etxe bat baiño. Bizkaiko *poruak* emoten deust eskubidea aututeko zuen artean gura dodana neure oiñordekotzat. Guztiak bardin direala, autuko dot semeen artean lenen iaioa. Zuek buru dongakoak baziñee, autuko neuke alaba nagusia: Ezta ondo gurasoak lotuta eukitea euren eskuak.

Seme nagusiak baleki ta balezau gura ta ez izango dala ondasunen iabe, egin lei otuten iakona; etxeko kaltean dan ezkontzaren bat iaramon бага gurasoai, edo onei euren baietz noraezekoa eskatuta, negarrez largaten dituala. Bildurrik ezpaleuke galduko dabeela etxaguntzea, buruko miñ ta atsakabe asko emon leioe gurasoai; baiña oneek

a un hombre: tampoco a estos muchachos les he visto nunca detrás de las muchachas, ni hablar con ellas una palabra a solas. El día los trae a casa. Les suelo decir yo: muchachos: lo primero es el temor de Dios; pero aun mirando a vuestra conveniencia en el mundo (lit. del mundo), debéis guardaros de las muchachas. Más de una están como el gato en acecho del ratón cómo y por dónde podrán atrapar algún muchacho. El decirles algunas palabras locas les es suficiente para decir y esparcir por los rincones que están convenidas para casarse con tal muchacho. Y se han oído cosas peores de ellas: andan ellas con algún otro del modo que quieren y, si quedan encinta, le echan la culpa al que no la tiene. Mis buenos muchachos: huid de las muchachas de hoy. Dios tendrá para vosotros la que El elija. No os caséis nunca con muchacha floja, desaliñada y aficionada a los hombres, aunque sea rica. Vuestra madre y yo tendremos cuidado de vosotros y dichosos vosotros si os casáis por medios rectos, puros y conformes con la voluntad de Dios. No tengo más que una casa. El fuero de Bizkaya me da facultad para elegir heredero al que quiera de entre vosotros. Siendo todos iguales elegiré entre los hijos al nacido primeramente. Si vosotros fuerais de mala cabeza, elegiría a la hija mayor. No está bien el que los padres tengan sus manos atadas.

Si el hijo mayor supiera y conociera que, quiera y no, ha de ser el amo de los bienes, podría hacer todo lo que se le ocurriese; algún matrimonio en perjuicio de la casa, sin hacer caso a los padres, o pidiéndoles un consentimiento forzoso y dejándoles llorando. Si no tuvieran temor de que se perdiera la hacienda, muchos dolores de cabeza y

daukeenean eskubide ta aukera emoteko gura dabenari seme-alaben artean, ekarri eragingo deutsee lotsea ta gordeko dira dongaro bizi izateti.

Beti da ondo berez semeren batek eroatea etxea, arrotz ta beste ize-neko bat iaubetu baga. Baiña guraso onak, bat ondo baiño obeto ipintearrén, eztau aztu bear guztien gurasoa dala. Aituko dozu onen-bestegaz zer esan gura dodan.

M. J. Peru: ezta mundu guztian topauko zuk beste zentzun ta argi daben nekezalerik. Apaldu daigun orain, ta apal-ostean igaroko dogu *denporea alegria* onean.

P. Ondo diñozu; baiña itxaran egizu puska baten, itaune bat edo beste egin dagiedan artean. Mutillak, bota deutseezu iaatekoa idiai? Oiñazpiak garbitu iakeez? Beiak sartu dituzue langa-arteko ziskuetan?

M. J. Esaidazu, Peru, ze *ganadu* daukazun etxean.

P. Daukaguz buztar-idi bi, bata beillegia, bestea zuria. Lau beei; bi buztartutekoak premiña danean, edo idiak bear asko eginda arikatu direanean, naiz gaisotu; beste biak umeak aazteko nekatu baga. Daukaguz bigae bat, bigantxa bi. Badaukaguz oneez ostean zortzi basabei ta basa-idisko galant bat, ta isten dot esan baga daukaguzala zezin-idi bi; bata etxerako, ta bestea salduteko.

M. J. Zeri esaten deutzazu txaa-la ta zeri urruzea? Entzun ditut izen

disgustos darían a los padres; pero cuando éstos tienen facultad y elección para darla al que quiere de entre los hijos e hijas, les reducirán (lit. les harán traer) al respeto y se guardarán de vivir de mala manera.

Siempre es bueno que alguno de los hijos lleve por sí mismo la casa sin que un extraño y de otro nombre se haga dueño de ella; pero el buen padre, por mejorar a uno (lit. por poner a uno mejor que bien), no debe olvidar que es padre de todos. Con esto conocerá V. lo que quiero decir.

M. J. Peru: no he encontrado en el mundo artesano tan sesudo y que tenga tanta ilustración como V. Cenemos ahora y después de cenar pasaremos el tiempo alegremente.

P. Dice V. bien; pero espere usted un poco hasta que haga alguna que otra pregunta. Muchachos: ¿les habéis echado de comer a los bueyes? ¿Se les ha limpiado las pezuñas? (lit. las plantas de los pies). ¿Habéis metido las vacas en los huecos de entre las vigas?

M. J. Dígame V., Peru, qué ganado tiene V. en casa.

P. Tenemos dos bueyes para el carro (lit. bueyes de carro), el uno amarillo, el otro blanco. Cuatro vacas; dos para engancharlas en el carro cuando hay necesidad o cuando los bueyes, por haber trabajado mucho, están cansados o bien enfermos; las otras dos para criar los terneros (lit. las criaturas) sin cansarlas. Tenemos dos novillos y dos terneras. Tenemos además de estas ocho vacas montaraces y un hermoso novillo montaraz, y deajo de decir que tenemos dos cebones; (lit. bueyes de cecina) uno para casa y el otro para venderlo.

M. J. ¿A qué llama V. *txaala* y a qué *urruza*? He oído decir estos

oneek, baiña eztakit zer esan gura dabeen.

P. Txaala esaten iako edozein beikumeri, dala arra, dala emea; baiña urruzea emeai, ta bardin ardi-bildotsetan.

M. J. Zer da bei antzitua?

P. Txaala kenduten iakona.

M. J. Eztaukazu *ganadu lanadunik*?

P. Bai; daukaguz larogei giberrri; irurogei ardi, aari bi ta zortzi auntz. (1) Aztuten iaatan aitatutea bizartsua, edo bere izenean, aker bat. Ardiakaz ezta asko ateraten: ostuten deuskuez batzuk erri-lapurrak, eta ez gitxi basa-lapurrak. Euri asko ta otz andiak direanean, ilten dira bein banaan. Auntzak dira gogorragoak, euri ta otzari obeto iarkiten iakozanak, simaurtiak, eznetsuak, ta atea idigi-ekzkeru, laster topauko dabee zer ian. Baiña dira kaltegarriak, ondo zainduten ezpadira. Zutinduten dira landara gazteen orri samurra iaateko. Eztago eurentzat esi ondo eginik. Etxean daukadazanak eztabe geure irabazietati urtetan, ta iagoten ditugu alegiñez. Baagoz inguruan usa edo erri-basoak, baiña ariztiak batzuk, besteak artaadiak, ta ezin leie oneetan kalterik. Baso-lapur edo azeriak eztira azartuten auntzetara, ardietara legez; baiña bai bildots ta antxumeetara.

M. J. Zer! Azeriak azartuten dira bildots ta antxumeetara?

P. Zelan bere direan; baita ardietara bere badira azeri zar, azi ta bein ardi aragia sabelera dabeenak; ta ikustekoa da, damuaz bere, zelan

nombres, pero no sé lo que quieren decir.

P. *Txaala* se llama a cualquier cría de vaca, sea macho o sea hembra, pero *urruza* a las hembras y lo mismo en las ovejas y corderos.

M. J. ¿Qué es vaca *antzitua*?

P. Aquella a la que se le quita la cría.

M. J. ¿No tiene V. ganado lanar?

P. Sí; tenemos ochenta reses: sesenta ovejas, dos carneros y ocho cabras (1). Se me olvidaba mencionar al barbudo, o en su nombre, macho cabrío. Con las ovejas no se saca mucho; nos roban algunas los ladrones de pueblo y pocas los ladrones de monte. Cuando llueve mucho y hace mucho frío se mueren una por una. Las cabras son más duras, resisten mejor a la lluvia y al frío, producen estiércol, son lecheras y en abriéndoles la puerta pronto encuentran qué comer; pero son perjudiciales, si no se las cuida bien. Se enderezan para comer las hojas tiernas de las plantas jóvenes. No hay soto bien hecho para ellas. Las que tengo en casa no suelen salir de nuestras propiedades y las vigilamos en lo posible. Ya hay en los alrededores montes comunales; pero unos robledales, los otros encinales, y en estos no pueden hacer perjuicio. Los ladrones de monte o raposos no se atreven con las cabras (lit. a las cabras) como con las ovejas; pero sí con los corderos y cabritos.

M. J. ¡Qué! ¿Los raposos se atreven con los corderos y cabritos?

P. Según sean: aun con las ovejas si son raposos viejos, crecidos y que alguna vez hayan metido en el vientre carne de oveja: y es cosa de

(1) Mogel-ek emen batzaldi-uts bat egin dau; bada berak aitaturiko giberrriak eztabe 80-ra jotan 70 ra baiño.

(1) Moguel ha cometido aquí un error de suma, pues las reses citadas por él, no suman 80 cabezas sino 70.

dendatuten direan zelatetako, bi-deak ebagiteko, samapeti oratu ta itoteko. Zati bat ianda daroe enparaua dandarraz euren abia edo leza-zuloetara. Eta guztiz dira gaiztoak umeak daukeezan aldi edo egunetan.

Ezin aturau leite eurakaz. Ezpa-geunka txakur urriñeti igarten deutsana piztia asko iakin ta malmutz onen urebiltea, ta usaatuten dituana billatu ta iarraituaz, ezin eukiko genduke ez ardi ez oillorik. Maisu Juan: asko da gaurko berbeeta ia-kingurakorik. Apaldu daigun ondo, edo emoten iakuna, ta gero beroal-aldi bat artuta goazan oera, ta biar iarraituko deutsagu artu dogun lanari. Eroango zaitut errotara, olara, basoetara ta beste lekutxu batzue-tara, ta erakutsiko deutsudaz zuk ezta-kizuzan ta iakin gurako dituzun gauza asko.

algunos - algunos

M. J. Ondo derist ta asko da gaurko *konbersaziño* kontuzkorik.

P. Maisu Juan: esaidazu zer gura dozun: zeuk, emazteak eta neuk bakarrik apalduetea, edo etxeko guztiok alda batera. Gurean ezta lenengo ta bigarren mairik; otseiñak bere geugaz iminten ditugu mai baten, ta iaaten dabee geuk iaten dogun guztia. Andietxe ta andiki-gurakoenetan, otseiñak iaten dabee bakarturik, ta ez ugazabak dabeen guztiti. Emen guztiok bardintuten gara.

M. J. Damu asko emongo leusket guztiok ez iaatea batera.

P. Nok maia bedeinkatuko dau?

M. J. Nik ez, ta zeuk gura dozunak.

P. Ondo; bada Txomintxu, eskolaua zara, badakizu ta egizu zeuk.

ver, aunque con pesar, como se preparan para acecharlas, cortarles el camino, agarrarlas por debajo de la garganta y ahogarlas. Después de comer un trozo llevan el resto arrastrando hasta su guarida o a los agujeros de las simas, y son muy malos en la época o en los días en que tienen crías. No se puede aguantar con ellos. Si no tuviéramos perros que conocen de lejos el rastro de esta alimaña sabia y socarrona, y que la espantan buscándola y persiguiéndola, no podríamos tener ni ovejas ni gallinas. Maisu Juan: baste para hoy de conversaciones curiosas. Cenemos bien, o lo que se nos dé, y luego, después de calentarnos (lit. tomar un tiempo de calor) vayamos a la cama y mañana proseguiremos el trabajo que hemos entendido. Le llevaré a V. al molino, a la fábrica, a las selvas y a algunos otros pequeños lugares y le enseñaré a V. muchas cosas que V. no sabe y que querrá saber.

M. J. Me parece bien y basta por hoy de conversaciones importantes.

P. Maisu Juan: dígame V. lo que desea: que cenemos solos V., mi mujer y yo, o todos los de la casa a un tiempo. En la nuestra no hay primera ni segunda mesa; a los criados mismos los ponemos con nosotros en una mesa y comen todo lo que nosotros comemos. En las casas de los grandes y en las de los que quieren parecer señores, los criados comen separados y no de todo lo que tienen los amos. Aquí todos nos igualamos.

M. J. Me daría mucho pesar el no comer todos a un tiempo.

P. ¿Quién bendecirá la mesa?

M. J. Yo no; y el que V. quiera.

P. Bien: pues Dominguito, eres estudiante, ya lo sabes y hazlo.

TXOM. Aitearen ta Semearen ta *Espiritu Santuaren* izenean.

Maia onetsi edo *bedeinkatuten* da.

P. Maria, iarri zaite zu maian sutondotik urrindu бага. Ortixe aterako dozu saldea ta ekarriko dozu gero banaan dagoana.

Maisua: eztago emen salda garbi, geli ta oilloaz egiñik. Igaro bearko dozu gaur zelan al dan.

M. J. Ezta ardura. Uste dozu neure etxean bere beti artuten dotala salda garbia, ta ian geeli gazitu bagea? Zein gitxi! Eta egia esateko obea da lapiko gaziko salda urdai ta zezin galantakaz egiña, geeli argaltxa ta txatxarrakaz egiña baiño.

P. Ondo diñozu. Epailla ta aragitegia euren ganera artu daroenak, bein baiño geiagotan illdaroez gabaz edo isillik basa-bei argal edo idi nekatuaren nekatuz azurra ta azala baiño eztaukenak, erriko zuzentzailak amar begi ezipadaukez, edo itzaltsu ta asko iakiñiak ezipadira. Erri-idien orde sartu daroez musturbaltz, begi zetakadun edo Asturiaskoak, zeintzuen okelea dan ispi luzekoa ta zaalagoa, ezipadira onectan kortatu, luzaro egon ta gizen duten.

M. J. Peru: eztago zuk eztakizun gauzarik. Dakuskun bada ze salda daukazu. Zein eder ta gozoa! Zetarako etedira piper ta *azafraez* gorrituriko saldaak, onelangoa euki ezker? Lotsatuten nozu onenbeste aparigaz. Nok esango leuke Landetako baserrian imiñi iatala, uste uste bagean sartuta, oillanda ta usakumezko erria; ta emen dakustan beste iaaki? Nok siñistu, aterako zeusteezala iru ardao-mueta: txakolina, klareta ta naparra? Emoidazu, Peru, txakolin trago bat...

DOM. En el nombre del Padre, del Hijo y del Espíritu Santo:

Se hace la bendición de la mesa.

P. María: colócate tú en la mesa sin alejarte del hogar. Desde ahí mismo sacarás el caldo y traerás después por turno (lit. uno por uno) lo que haya.

Maisu: aquí no hay caldo limpio hecho con carne de vaca y de gallinas. Tendrá V. que pasar como se pueda.

M. J. No importa. ¿Cree V. que en mi casa siempre tomo caldo limpio y como carne de vaca sin salar? ¡Qué poco! Y para decir la verdad es mejor el caldo de puchero salado, hecho con hermoso tocino y cecina, que hecho con carne de vaca flacucha y raquítica.

P. Bien dice V. Los cortadores y los que sobre sí suelen tomar la carnicería, más de una vez suelen matar de noche o callando vacas de monte flacas, o bueyes que a fuerza de cansancio no tienen más que huesos y pellejo, si los directores del pueblo no tienen diez ojos o no son muy severos y entendidos. En vez de bueyes del país suelen meter los de morro negro y ojos con manchas, o sea de Asturias, cuya carne es de fibra más larga y tiesa, si no se encierran en la cuadra y se tienen mucho tiempo engordando.

M. J. Peru: no hay cosa que usted no sepa. Veamos pues qué caldo tiene usted. ¡Qué hermoso y qué sabroso! ¿Para qué serán los caldos enrojados con pimienta y azafrán, teniéndolos de esta clase? Me avergüenza V. con tanta cena. ¿Quién diría que en la aldea de *Landeta* se me ha puesto, habiéndome introducido impensadamente, asado de pollos y pichones y otros manjares que aquí veo? ¿Quién hubiera creído que me sacaría V. tres clases de vino: chacolí, clarete y na-

Brindo zure ta familia guzti onen osasunerako.

P. On dagizula, Maisu Juan. Enintzate ondo azia izango, nik bere erantzungo ezpaneutsa zure egitada prestuari. Neure lagun ona: zure osasuna gaiti: urte askotan izan daigula alkarregaz gaur legezko aparti bat. Etxatzu aterik itxiko beintzat etxe onetan.

M. J. Nire *ditxea*, zertan edo atan *serbidu* al bazengidaz. Etxe onetakorik gaisotuten bada, ez beste barberurik billatu. Ordu bi bidek enau ikaratuko, gabaz ta edurretan balitz bere.

P. Jaungoikoak daigula osasuna; baiña iñor gaisotuten bada zu bizi zareala, ezkara beste baten atzean ibilliko. Bedeinkatu dogun legez maia ianaurrean, emon daioguzan eskerrak Jaungoikoari. Artuko dogu beroaldi bat guztiok, esango dogu errosarioa, ta ioango gara baktotxa bere gelara. Nik esnaatuko zaitut goizean adiuntzaz urteteko gauzak ilustrera.

M. J. Milla esker, Peru, ta agur goiz-artean: agur *iente* ona.

P. Agur bada, Maisu Juan.

barro? Deme V., Peru, un trago de chacolí. Brindo por vuestra salud y la de toda esta familia.

P. Que le aproveche a V., Maisu Juan. No sería bien criado, si no respondiera a su noble acción. Mi buen compañero: por la salud de usted; que juntos tengamos muchos años una cena como la de hoy. No se le cerrará a V. por cierto la puerta en esta casa.

M. J. Dichoso de mí, si pudiera servirle a V. en algo. Si enferma alguno de esta casa, no vayan a buscar otro barbero. Dos horas de camino no me asustarán, aunque fuera de noche y nevando.

P. Que Dios nos dé salud; pero si alguno enferma viviendo V., no andaremos detrás de otro. Como hemos bendecido la mesa antes de comer, demos gracias a Dios. Tomaremos un calentón todos, diremos el rosario e iremos cada cual a su aposento. Yo le despertaré a V. a tiempo por la mañana para salir a ver las cosas.

M. J. Mil gracias, Peru, y adiós, hasta mañana. Adiós, buena gente.

P. Adiós, pues, Maisu Juan.

Maisu Juan
Peru

LAUGARREN AUTUA

PERU MAISU JUAN ARGITUTEARI DARRAIO

P. Egun on, Maisu Juan. Ondo lo egin dozu?

M. J. Nor da or?

P. Neu; iagiteko ordua da.

M. J. Ze ordu da bada?

P. Gesi baten zortzirak.

M. J. Ez nire gorputzeko *erloioan*. Lo gozo gozoan nengoan, ta lo batek iraun deust etzun nintzaneti ona. Oraintxe bere ezin edegi ditut (1) neure begiak. Zelan urten oe onetati?

P. Zer dauka oe orrek?

M. J. Eztauka Erregek ez bigunagorik, ez obagorik. Sartu nintzeanean egin neban luma-artean toki eder bat; eztot *jira* bat egin gau guztian.

P. Amar orduko loa egin dozu beraz, bada etzun zinean bart amarretaruntz.

M. J. Nundi dakizu emen ze ordu dan, *erloiorik* ezpadago, entzuten ezpada Eleizakoa?

P. Baserrietan daukaguz igarri asko egunez ta gabaz, ta zuzenago gabilz gu orduetan, erri barruetakoak baiño.

M. J. Beraz iagi bear dot. O ze nagi nazan! *Bentako* imitxa guztiak bere ez nenduen iratzartuko. O ze beste gaba, atzokoa ta gaurkoa! Ze eguraldi modu dago?

DIÁLOGO CUARTO

CONTINÚA PERU EN INSTRUIR A MAISU JUAN

P. Buenos días, Maisu Juan. ¿Ha dormido V. bien?

M. J. ¿Quién está ahí?

P. Yo mismo: es hora de levantarse.

M. J. ¿Qué hora es pues?

P. Dentro de un rato las ocho.

M. J. No en el reloj de mi cuerpo. Estaba en un sueño dulcísimo, y he dormido en un sueño (lit. me ha durado un sueño) desde que me acosté hasta ahora. Aún ahora mismo no puedo abrir mis ojos. ¿Cómo salir de esta cama?

P. ¿Qué tiene esa cama?

M. J. No la tiene el rey ni más blanda ni mejor. Cuando me metí hice un hermoso sitio entre las plumas; no he dado ni una vuelta en toda la noche.

P. Ha echado V. (lit. ha hecho V.) un sueño de diez horas por lo tanto, pues se acostó V. anoche hacia las diez.

M. J. ¿Por dónde sabe V. aquí qué hora es, si no hay reloj ni se oye el de la iglesia?

P. En las aldeas tenemos muchas señales de día y de noche y andamos nosotros más exactos (lit. rectos) en las horas que los del interior de los pueblos.

M. J. Por tanto me tengo que levantar. ¡Oh, qué pereza tengo! Ni aun todas las chinches de la venta me hubieran despertado. ¡Oh, qué distintas noches la de ayer y la de hoy! ¿Qué clase de día hace?

(1) Liburu onetan sarri ikusten dira Gipuzkoako aditzak Bizkaikoan ordez: *ditut, dituk, ditu...* = *dodaz, dozak, dauz*.

(1) En este libro se ven con frecuencia verbos guipuzcoanos en vez de vizcaínos: *ditut, dituk, ditu...* = *dodaz, dozak, dauz*.

P. Txito ederra. Eztago odeirik, bai eguzki ederra; lei apur bat jausi da, baiña ez esatekorik, ez kalte egin leikeanik.

M. J. ¿Noz iagi zinean, bada, zeu?

P. Goizabar; edo egun-usaiña-gaz batera; ta belu neritxon beste egunetakoen aldean. Nok egon bear dau eguzkiaren pekuan legez oetik urteteko? Oilloak karkaraxaz asteaz batean, iagiten naz beluen dala. Oillarraren azkenengo soiñuaz ingiraturuten dira nire mutillak, ta iagiten dira gaberdirunz geure bei, idi edo txaalai begiratutera, gero oera biurtuko badira bere. Eztakigu emen alperreria zer dan; ez eguna gau egiten, errietan askoz legez. Etxiñean bart etzun nire pentzudaan, edo nik iratzartuko zendudazalako uste osoan? Ezkiñean alan itundu?

M. J. Bai, Peru; baiña badakizu eztala bardin gabeko iagigurea ta goizekoa.

P. Daukagu gaur zer-ibilli ta zer ikusi asko, ta alan ingira zaite.

M. J. Ekartzuz bada neure *erro-pok*, ta parkatu *satisfaziñoia*. Besoa aterateko bere nagi naz.

P. Maisu Juan: gauza bat esan bear deutsut. Olara bear dogu, ta bazoaz zeure soiñoiko bitxidun ta ederrakaz, urtengo dozu sartu ziñealako damuaz. Ango ormaak kedarratuta dagoz keiaren keiaz. Iarten bazara gizategian, zikinduko dituzu prakaak, ta eztozu gauza garbirik aterako. Obeko dozu iaztea neure soiñoiko batzukaz: iñok etzazauz oneetan, ta Maisu Juan izango zara gero, baserrikotzat bazaukez bere olagizon ta beste zakusezanak.

P. Muy hermoso. No hay nubes, sí un hermoso sol; ha caído un poco de helada; pero no es importante (lit. para decir) ni que pueda hacer daño.

M. J. ¿Cuándo se levantó, pues, usted?

P. Al amanecer o a un tiempo con la aurora (lit. con el olor del día) y me parecía tarde en comparación de los demás días. ¿Quién ha de estar como bajo la férula del sol para salir de la cama? Al empezar a cacarear las gallinas me levanto, lo más tarde. Con el último canto del gallo se preparan mis muchachos y se levantan hacia la media noche a mirar a nuestras vacas, bueyes o terneros, aunque han de volver a la cama después. Aquí no sabemos lo que es ociosidad, ni hacer del día noche, como muchos en los pueblos. ¿No se acostó V. anoche confiando en mí o en la absoluta creencia de que yo le despertaría a V.? ¿No nos convenimos así?

M. J. Sí, Peru; pero ya sabe V. que no es igual la gana de levantarse (que se tiene) de noche (de víspera) y la de la mañana.

P. Hoy tenemos mucho que andar y que ver, y así prepárese usted.

M. J. Traiga V. pues mis ropas, y perdone V. la confianza. Tengo pereza aún para sacar los brazos.

P. Maisu Juan: tengo que decirle a V. una cosa. Tenemos que ir a la fábrica, y si va V. con sus vestidos elegantes saldrá V. con pesar de haber entrado. Las paredes de allí están ennegrecidas por el hollín, a fuerza de humo. Si se sienta V. en el local se manchará V. los pantalones, y no sacará cosa limpia. Mejor hará V. en vestirse con algunas ropas más: nadie le conoce a V. en estos (lugares) y después será V. Maisu Juan, aunque

M. J. Ondo diñozu, ta ezta zuri gomutauko ez iatzun gauza onik.

P. Aldatu bear dozu buruti beartzetara; lenengo alkandorea, bigarren iake zuri bat, ta gaiñetik gerrestua; praka odolestuak, abarka ta dagokazan kaltzerdi marragazkoak ta buruan txapela. Zure asabak baiño geiago etzara, ta alan agertuko zara bazterretan emen zagozan egunetan.

M. J. Ekatzu bada alkandorea.

P. Bai, ta ara emen prest presta, egin-barria, ta iñok lenago imini bagea.

P. Txut, txut! latza dago, gilli gilli egiten deust. Zezazkoa da? Perrestupezkoa, edo kirru samurrez egiñiko euneti aterea? Zanbrotuko deustaz neure aragi guztiak, edo beintzat bai egun askotarako gorritu ta sumindurik itxi.

P. Gizonaren milika, ta bupe-rea! Zer gura zenduke? Miesa utsez egiña? Eta iru edo lau lisiba edo bogadaan igaroa? Aragi minberak dituzu. Ze gizon galanta, asko nekezalek iazten dituan muetakoak erabilteko mormosiet a bagea!

M. J. Ekartzuz bada iake zuri alkandorearen gaiñekoa, ta gero gerrestua.

P. Eutsiz: beintzat oneek ezteutsue eratziko aragirik.

M. J. Ekartzuz abarka ta oneen mantaak; baiña zeuk iantzi bearko deustazuz, zerren eztaikit nik zelan iminten direan.

P. Urten egizu bada noz edo noz oe orretati; ekartzuz berna, ta oiñok... Zutindu zaite orain, ta eutsi txapela. Zein ondo dirudizun! Goazan orain eskaratzera; nire emazteak *prestauta* eukiko dau orain-

le tengan a V. por aldeano los ferrones y los demás que le vean.

M. J. Dice V. bien y no hay cosa buena que no se le ocurra a V.

P. Tiene V. que mudarse de pies a cabeza: primero la camisa; segundo una chaqueta blanca y encima el chaquetón; pantalones de pana, las abarcas y las medias de lana burda que les corresponden, y en la cabeza la boina. No es V. más que sus antepasados y así aparecerá V. en los lugares en todos los días en que esté V. aquí.

M. J. Traiga V., pues, la camisa.

P. Sí, y aquí la tiene V. preparada, recién hecha y sin habérsela puesto antes nadie.

M. J. ¡Chut, chut! Está áspera: me hace cosquillas. ¿De qué es? ¿Es sacada de lienzo hecho con lino ordinario o blando? Me va a escoriar todas mis carnes o por lo menos dejarlas para muchos días enrojecidas y doloridas.

P. ¡Qué hombre más melindroso y delicado! ¿Qué querría V.? ¿Hecha con puro lienzo y pasada por tres o cuatro lejías? Carnes sensibles tiene V. ¡Vaya un hombre para llevar sin murmurar las de la clase que visten muchos artesanos!

M. J. Traiga V., pues, la chaqueta blanca de encima de la camisa, y después el chaquetón.

P. Tómelos V.; por lo menos éstos no le desgarrarán a V. la carne.

M. J. Traiga V. las abarcas y las mantas de éstas; pero V. tendrá que vestirme, porque yo no sé cómo se ponen.

P. Salga V., pues, alguna vez de esa cama; traiga V. esa pierna y ese pie. Póngase V. en pie ahora y tome V. la boina. ¡Qué bien parece V.! Vamos ahora a la cocina; mi mujer tendrá preparada la fri-

go koipatsua, ta egosita bei zegiaren ezne ederra.

M. J. Ai Peru! Labanduta ioko dot eskaillerati beera. Abarka oneek leun ta labanak dagoz, ta zer izango da kanpora urten da arkoskoen gainean ibilli bear badot? Oñiazpiak eratziko iataz.

P. Ez leuke gizonak izan bear zu langoak. Eskailera mailleetati iasteko oratu egiozu alboko aga eskuordeko oni, ta larrapastada bat emon arren etzara jausiko beeraño. Eta oraindiño bildur bazara, oratu egidazu neuri beste esku orregaz. Aurra, goazan. Zein ederto zoazan! Egun bigarreneko esango dozu, oiñetako orreek obeagoak direala zuen zapata asmo barrikoak baiño. Iatsi gara ausi бага. Erdu sutondora. Ona emen Maria gurea gure zain maia imiñita. Artu egizu aulki au ta iarri zaite.

M. J. Eztaukat bada *almorzuta*-ko gogo andirik; bada bart larregi apaldu genduan, ta *erregueldoak* iatortaz.

P. Zer dira *erregueldoak*? Aupa-tsak esan gurako dozu.

M. J. Nik dakit, bada, zelan deritxen baserritarren artean?

P. Ian egizu zer edo zer; bada gosetuko zara ibilliaz, uste dozun baiño geiago.

M. J. Ian daigun, bada. Nun dira zure seme-alaba ta otseñak?

P. Batzuk ioan zirean solora ta bestek basora iraurkiñak batutera: laster etorriko dira gosaria artutera, gero biurtuteko euren bearretarra eguerdiraño. Arratsean ikusiko dituzu ta goazan orain urrengo olara, noraiño daukagun ordu beteko bidea. Eutsi bada makilla bat larrapastauta iausi etzaitean, ta baserri-txakurren batek usigi etzaizan. Makilleak bildurtuten ditu; bestelan

tada para ahora y cocida la hermosa leche de la vaca con cría.

M. J. ¡Ay Peru! Voy a pegar un resbalón por la escalera abajo. Estas abarcas están lisas y resbaladizas y ¿qué será si tengo que salir al campo y andar sobre los pedruscos? Se me desgarrarán las plantas de los pies.

P. No debiera ser el hombre como usted. Para bajar los peldaños de la escalera agárrese V. de este madero de al lado (que hace de) pasameno, y aunque dé V. un resbalón no se caerá V. hasta abajo. Y si todavía tiene V. miedo, agárrese V. a mí con esa otra mano. Ea, vamos. ¡Qué bien va V.! Para el segundo día dirá V. que ese calzado es mejor (lit. en plural) que sus zapatos de nueva invención. Hemos bajado sin caer. Venga V. (a) junto al hogar. He aquí a nuestra María esperándonos con la mesa puesta. Tome V. esta silla y siéntese.

M. J. Pues no tengo mucha gana de almorzar, pues anoche cenamos demasiado y me vienen los regüeldos.

P. ¿Qué son *erregueldoak*? Querrá V. decir *aupatsak*.

M. J. ¿Yo sé, pues, cómo se dice entre los aldeanos?

P. Coma V. algo, pues tendrá V. hambre andando, más de la que V. cree.

M. J. Comamos, pues. ¿En dónde están vuestros hijos e hijas y criados?

P. Algunos se fueron a la heredad y los demás al monte a recoger los heleichos; pronto vendrán a tomar el almuerzo para volver después a sus quehaceres hasta el mediodía. Por la tarde los verá V., y vayamos a la fábrica próxima, hasta donde tenemos una hora entera de camino. Tome V., pues, un bastón para no caerse resbalando y para que no le muerda algún perro de

badakie atzeti bestela baitakoan oratuten; ta osatuteko, bearko zenduke bere ulea; bada esaerea da; *txakur-rrak egiñiko zauria osatuten dala txakur-rraren uleaz.*

M. J. Peru, *errepranak* bere badakizuz?

P. Zer da *erreprana*?

M. J. *Erreprana, erreprana*; edo beste izen batez *adajioa*.

P. Len bestean geratuten naz.

M. J. ¿Zer esango deusut bada, ezpadakit zelan esan euskeraz?

P. Esaizu bada edolan bere bat ta nik esango deusut zelan deritxon.

M. J. Oraintxe esan dozu bat ta ona neuk antxina entzun nebana: *Errementariaren etxean, zotza burduntzi*. Eztatkit geiago euskeraz, erderaz batzuk bai.

P. Orri esaten iako euskeraz esaerea: edo esakuntzea: gogait eragin artean aitatuko neuskezuz orrelango esaerak. Urten daigun etxeti ta gura badozu esango deusudaz batzuk batzuk.

M. J. Goazan bada; baiña bi-dea erraz igaroteko asi zaite bereala esaten.

P. Ona bada, ta zeuk esango deustazu noz asko dan.

1 Azeri zaarrak aillea luze, bere legezkoak besteak uste (1).

2 Maria bitxigiña, sua da ogigiña.

M. J. Zer diñozu? Esaizu ostera.

P. Maria bitxigiña, sua da ogigiña.

M. J. Baantzut zer diñozun; baiña zer esan gura dau orrek?

P. Esan gura dau, ogia eztala ona bitxi asko euki arren, sua txarra badauka. Au da, gizon edo andrea bitxiz edo soñoko apainduz azaleti agertu arren, buru txarre-

aldea. El bastón les amedrenta; si no ya suelen agarrar por detrás como si tal cosa y para curarse necesitaría V. su pelo, pues es un dicho *que la herida hecha por el perro se cura con pelo de perro.*

M. J. Peru, ¿también sabe usted refranes?

P. ¿Qué es *erreprana*?

M. J. *Erreprana*, refrán; o con otro nombre *adajioa*.

P. Me quedo en lo mismo de antes.

M. J. ¿Cómo se lo diré a V., pues, si no sé cómo se dice en bascuence?

P. Diga V., pues, uno como quiera que sea y yo le diré a V. cómo se le llama.

M. J. Ahora mismo ha dicho V. uno y he aquí el que yo oí antiguamente: *En casa del herrero asador de palo*. No sé más en bascuence; algunos en castellano, sí.

P. A eso se le llama en bascuence *esaerea* o *esakuntzea* (refrán); yo le mencionaré a V. de esos refranes hasta aburrirle. Salgamos de casa y, si V. quiere, le diré unos cuantos.

M. J. Vamos pues; pero para pasar el (tiempo en el) camino fácilmente, empiece usted a decirlos enseguida.

P. He aquí, pues, y V. me dirá cuando es bastante.

1 Los raposos viejos (tienen) el rabo largo: creen a los demás como (son) ellos (1).

2 María adornista; el fuego es el panadero.

M. J. ¿Qué dice V.? Diga usted otra vez.

P. María adornista; el fuego es el panadero.

M. J. Ya oigo lo que V. dice; pero ¿qué quiere decir eso?

P. Quiere decir que el pan no es bueno a pesar de tener muchos adornos, si tiene mal fuego. Esto es; que a pesar de aparecer al exterior el hombre o la mujer con adornos o

(1) Buruz buru edo berbaz berba ezin biurtu leikez esakuna oneek bada eurotan adizkeiak urtuta legez dagoz.

(1) No es posible traducir literalmente estos refranes, pues en ellos las formas verbales están, por decirlo así, condenadas.

koa ta alperra bada, eztala gizon ta andra ona izango (2).

M. J. Egia diñozu. Zoaz aurrera.

- 3 Ian-sarria, ian gartzu.
- 4 Goiz iagia, goiz gose; belu iagia loz asc.

- 5 Zor zaarra, zor txaarra.
- 6 Zulo bakotxari, laakoa.

M. I. Ze egia ederrak! Aurrera Peru; nik baiño buru ohea dozu.

P. Zaietan ziogi, urunetan ero.

M. J. Eztot aituten euskera ori: ez zer dan ziogi, ez zer ero.

P. Esan gura dau, zai-apur bat galdu eztedin bildur ta ikara; ta uruna ondatuagaiti ardurarik ez.

M. J. Badakit orain zetara doan esaera ori.

- P. 8 Eztakusan begiak, gatzik ez.
- 9 Azeak, berea kirtena; ta aritxak bere erikoa ospala.
- 10 Erroiaren arrautzeak, usakumerik ez.
- 11 Auntzak itxi balejo, akerrak itxi leio.
- 12 Sua dagoan lekuti, keia.
- 13 Otsiak otsori gatzik ez, ta lapurrari lapurrak laztan.
- 14 Kruselu-ondoan gorurik ez.
- 15 Irargiko arria, pozua.
- 16 Ardao gozoak lau begi ta oiñik ez.
- 17 Astoaren arrantzca, min bagea.
- 18 Ontzari ez begiratu lumara.
- 19 Zu beti ero; otz eztana bero.
- 20 Txakur goseak, ogia ames.
- 21 Zoroen ezitia, gozoa gutzia.
- 22 Maria gurea goruetan, bear eztan orduetan.
- 23 Errementaria senarra, Jainkoak ohea diñaala.
- 24 Auzoko beiak, erroa luze.
- 25 Otsain barriak galbaiaz ura, zaarrari edarriaz bere lekuri emon ez gura.
- 26 Azeri zaarrari ulea ioan, baiña antza ez (1).
- 27 Txuri biren eznea pertza bete.
- 28 Oillo gosea beti soñulari.
- 29 Lekuan lekuan maloa, gurean andiagoa.
- 30 Goiz gorri, laster euri.
- 31 Arrats gorri, goizcan eguzki.
- 32 Abadearen lapikoa txikiña baiña gozoa.
- 33 Ikazkiñaren lapikoa, andia baiña croa.
- 34 Artzainak aserratu, gaztaiak agertu.
- 35 Ian-edanaren gozoa; kontu-emonaren gaiztoa.
- 36 Etxe utsa, atralaka utsa.
- 37 Guztia gura izatea, guztia galdutea.
- 38 Igazko txakurra, aurtengoarean urkatzaile.
- 39 Aldats goreak, aldats berea.
- 40 Ondarroa ta Motriku, idiak idia arkitu.

(2) Esakuna onen esakizuna Peruk eztau gure ustez ondo adicrazoten, bada apaindutearren ogia berez laban erretzen isten daben emakumeakazkoa da.

(1) La palabra *antza* que generalmente significa la semejanza, en Marquina y en el refrán de Moguel significa el hedor, *Atsa* se dice por hedor en la mayor parte de Bizkaia.

con vestidos elegantes, si es de mala cabeza y ocioso, no será buen hombre ni buena mujer (2).

M. J. Dice V. la verdad. Vaya V. adelante.

- 3 El que come a menudo tiene poca gana de comer.
- 4 El que se levanta temprano tiene temprano hambre; el que se levanta tarde, harto de sueño.
- 5 Deuda vieja, deuda mala.
- 6 A cada agujero su cuña.

M. J. ¡Qué hermosa verdad! Adelante, Peru: tiene usted mejor cabeza que yo.

P. Tacaño en salvado, en harina pródigo.

M. J. No entiendo ese bascuence, ni lo que es *ziogi* ni lo que es *ero*.

P. Quiere decir, que mucho miedo y temor de que se pierda un poco de salvado, y por la harina echada a perder no hay cuidado.

M. J. Ya sé ahora a lo que va ese refrán.

- P. Ojos que no ven no hacen daño.
- 9 La berza tiene su tallo y el roble astilla de su clase.
- 10 Huevos de cuervo no hacen pichones.
- 11 Si la cabra le dejara, el chivo le dejaría.
- 12 Del sitio en donde hay fuego sale humo.
- 13 El lobo no le hace daño al lobo y el ladrón al ladrón le abraza.
- 14 Junto al candil no hay rueca.
- 15 Piedra de luna, pozo.
- 16 El vino sabroso tiene cuatro ojos, pero no pies.
- 17 El rebuzno del burro no causa dolor.
- 18 Al buño no hay que mirarle a la pluma.
- 19 Tú siempre fatuo, el que no tiene frío tiene calor.
- 20 El perro hambriento con pan sueña.
- 21 La miel del loco toda dulce.
- 22 Nuestra María hilando a las horas que no es necesario.
- 23 Marido herrero, que Dios te lo depare mejor.
- 24 La vaca del vecino la ubre larga.
- 25 El criado nuevo el agua con criba; al nuevo ni con herrada se le quiere dar lugar.
- 26 Al raposo viejo se le va el pelo; pero no el hedor (1).
- 27 Leche de dos blancas (moneda) caldero lleno.
- 28 Gallina hambrienta siempre cantora.
- 29 De trecho en trecho espanta pájaros, en nuestra casa (hay) mayor.
- 30 Mañana roja, lluvia pronto.
- 31 Tarde roja, por la mañana sol.
- 32 El puchero del cura, pequeño pero sabroso.
- 33 El puchero del carbonero, grande pero huero.
- 34 Riñen los pastores y aparecen los quesos.
- 35 ¡Qué dulce es el comer y beber! ¡Qué malo el rendir cuentas!
- 36 Casa vacía, puro alboroto.
- 37 El quererlo todo es perderlo todo.
- 38 Perro del año pasado ahorcador del de este año.
- 39 La cuesta arriba, (es) cuesta abajo.
- 40 Ondárroa y Motrico, el buey encuentra al buey.

(2) Creemos que Peru no interpreta fielmente el sentido de este refrán, que se refiere indudablemente a las mujeres que, por adornarse, dejan que el pan se cueza solo en el horno.

- 41 Lekuan lekuan aardiak, baltzen artean zuriak.
 42 Doillorra, beti prestuez gogorra.
 43 Eguzkia nora, zapiak ara.
 44 Ze langintza zamargin, bizarrak bizarra eragin.
 45 Amuarrañiak begi bi, sei eskailuk amabi.
 46 Ara bertan ezer ez, azaak bai koiperik ez.
 47 Otz larregia, zarren ilgarria ta gazteen zaar-garria.
 48 Guzurra esan neban mendian, neu baiño leenago zan errian.
 49 Topiñak galdareari, ipur baltz.
 50 Daukanak gabon, eztaukanarai emon.
 51 Urdaia, ian da garbaia.
 52 Soldadua, amaren seme galdua.
 53 Eztakit, emen urtea badagit.
 54 Gabeko bearra, egunerako lotsaari.
 55 Egia, askorren erregarria.
 56 Ibiltari gabea, logura goizean.
 57 Etorkezuneko oleak, bearrik ez.
 58 Etorriko iatzu, adiskidea, gonburuaren errese-rea.
 59 Baneuka, bazeunkake; zeuk bazeunka oba zeunke.
 60 Badaukazu zeugaz, iango dozu neugaz.
 61 Bakotxa bere zoroak bizi.
 62 Batalako beste, auntzaren odoloste.
 63 Katuak daroan sardiñeari, oratu egiok.
 64 Alaba bi ta iru seme, adi on me.
 65 Usuak ioan, sareak eda.

M. J. Zer esan gura dau orrek?

P. Eztala beluaren zain egon bear, gauzaren bat egiteko. Eztala osasuna guztiz ioan artean egon bear, osagilleari dei baga. A-diuntzaz ta era onez edo asierati gatxari bidera urten bear iakola: ezpabere berandu datozala osakariak.

M. J. Ori esaten deutseet nik beti gaiso-*etxectan*, ta eztago nok buruan sartu daioen. Etxat aztuko esaera eder ori. Asko da Peru esakuntzarik.

P. Ondo diñozu; eldu gara olara, ta euko dogu zer ikusi ta zeri berba egin.

M. J. Jesus ze *jente* modu da au? *Inpreñua* dirudi. Ze sua, ta gaarrak! Ze *erremienta* ta toki tristeak! Gizonen itxurarik eztauke emen dakus-tazanok. Ezteuskue agur bat bere egiten. Eztauke arpegian baltzitu bagako gauzarik.

P. Maisu Juan: zer uste zenduan emen ediro? Gizon ederto apainduak? Begiratu egizu ondo buruti beatzetara: eztabe agiri ez begi, ez betulerik baltzaren baltzaz: ederrak dira mauruak oneen aldean. Ka-

- 41 En todas partes ovejas, entre las negras blancas
 42 El avaro siempre innoble duro.
 43 A donde va el sol allá van los trapos.
 44 ¡Qué oficio el del que hace gorros para las ruecas!
 La barba produce barba.
 45 La trucha tiene dos ojos; seis bermejuelas doce.
 46 Mira allí, no hay nada; berzas sí pero no manteca.
 47 El demasiado frío es matador de los viejos y en-vejecedor de los jóvenes.
 48 Dije una mentira en el monte y antes que yo estaba en el pueblo.
 49 La marmita (le dijo) a la caldera: c... negro.
 50 El que tiene noche buena, (dé) al que no tiene.
 51 El tocino, comerlo y se tiene arrepentimiento.
 52 El soldado, hijo perdido de la madre.
 53 No sé, si hago (haré) aquí el año.
 54 Trabajo de noche, vergonzoso para el día.
 55 La verdad, quemadora de muchos.
 56 Andariego a la noche, soñoliento a la mañana.
 57 Fábrica del porvenir, no (tiene) trabajo.
 58 Se os ha de venir, amigo, rasero del colmo.
 59 Si tuviera, ya lo tendría; si V. lo tuviera, mejor le fuera.
 60 Si tiene V. consigo, comerá V. conmigo.
 61 Cada cual vive (de) su locura.
 62 El uno como el otro, morcilla de cabra.
 63 A la sardina que lleva el gato, agárrale.
 64 Dos hijas y tres hijos, suficientes niños.
 65 (Después de) ir las palomas, extender las redes.

M. J. ¿Qué quiere decir eso?

P. Que no se debe aguardar a que se haga tarde, para hacer alguna cosa. Que no se puede estar hasta ir (perder) del todo la salud, sin llamar al médico. Que a la enfermedad se le debe salir al camino a tiempo y en buena ocasión: que si no vienen tarde los remedios.

M. J. Eso les digo yo siempre en las casas de los enfermos y no hay quién les meta en la cabeza. No se me olvidará ese hermoso refrán. Basta de refranes, Peru.

P. Dice V. bien. Hemos llegado a la fábrica y tendremos qué ver y de qué hablar.

M. J. ¡Jesus! ¿Qué clase de gente es ésta? Parece el infierno. ¿Qué fuego y llamas! ¿Qué herramientas y lugares tristes! Estos que veo aquí no tienen figura de hombres. Ni nos dirigen un saludo. No tienen en la cara cosa (de) sin ennegrecer.

P. Maisu Juan, ¿qué esperaba V. hallar aquí? ¿Hombres bien adornados? Miradlos bien de la cabeza a los dedos del pie: no manifiestan ni ojo ni cejas, a puro de negras: hermosos son los moros en compa-

pela igartu ta erdikin bat buruan, zapi kedartu bat bekoki erdiraño, izerdia artu ta suaren berotasuna arinduteko. Obrera uts idunean lotua; ezta zer eskatu iakerik, ez kaltzerdi, ez abarka, ezta prakarik bere. Oera etzuteko ta iagiteko eztaukee nekerik zer artu.

M. J. Ori da bada: eta nungoak dira gizon oneek?

P. Bizkaitar garbiak, odolean zuri ezer zor ezteutsuenak.

M. J. Zeinbat *opiziale* dira, ta zer aloger emoten iakee?

P. Dira lau beargiñ: *Iielea, Urtzailla* bi ta *Gatzamaillea*. Alogera ainbestekoa da; baiña bai ondo irabazia. Ieleak daroa bearsari edo aloger geiago, ta onek izan daroaz, egunekoaz ostean, eskupeko edo atsegin-sariak.

Burdiña asko egin bada, ondo irabazten da; bestelan gitxi. Gatzamaille gaisoak daroa nekerik gogor ta gogaikarriena ta irabazterik laburrena.

M. J. Zelan ori kristau-errian?

P. Eztozu entzun *praille*-etxetan iazoten dana? *Praille* gaztetxu edo sartu-barriak daroe nekerik gorrrena. Ezta oneentzat bigungarririk: sendo sendo, osoz oso daroaz eginduz guztiak. (1)

Alan bear da, iakin dagien zetara ioan direan. Lenengo urtean bigunegi balerabillez, ta euren buruetan ikusi baga pisu guztia, gerora esango leukee guzurtauak geratu zireala, ogi biguna erakutsi ta emonaz birzaiz eginiko balz ta iangatxa. Alan bada gatzamailleak bere, izanik sartu-barriak, ikasten dabee neke an-

ración de estos. Un sombrero seco y reducido a la mitad en la cabeza, un pañuelo cubierto de hollín para recoger el sudor hasta el medio de la frente y aligerar el calor del fuego. Sólo camisón atado al cuello. No hay que pedir chaquetas, ni medias, ni abarcas, ni siquiera pantalones. Para echarse a la cama y levantarse no tienen a qué tomarse fatiga.

M. J. Eso es pues: ¿y de dónde son estos hombres?

P. Bizkainos puros, que en sangre no le deben a V. nada.

M. J. ¿Cuántos oficiales y qué jornal se les da?

P. Son cuatro operarios: laminador, dos fundidores y el marmitón. Los jornales son proporcionados, pero sí bien ganados. El laminador lleva más sueldo o jornal y este suele llevar, después del jornal diario, propinas (lit. premios de placer). Si se hace mucho hierro, se gana mucho, si no poco. El pobre marmitón lleva los trabajos más duros y fastidiosos y la más corta ganancia.

M. J. ¿Cómo es eso en tierra de cristianos?

P. ¿No ha oído V. nunca lo que sucede en los conventos? (lit. casas de frailes). Los frailes jovencitos o novicios (lit. recién entrados), llevan el trabajo más duro. No hay consideración para éstos: hacen sin titubear y por completo lo que se les manda (1).

Así tiene que ser para que sepan a qué han ido. Si en los primeros años les trataran demasiado blandamente, y sin ver todo el peso en sí mismos, más tarde les pueden decir que quedaron engañados, enseñándoles pan tierno y dándoles pan negro y difícil de comer, hecho con salvado. Así pues, también los

(1) Buruz buru ezin biurtu leike esakera au.

(1) No es posible traducir literalmente esta frase.

dien ta irabazi laburraren bidez, zer itxaraten deutseen, ta geroko obeagoaren penzudaan egonaz, igarotterraza egiten iakee, daroen bear gogor ta nekatsua. Zelan alan, diñoe euren artean, igaroko ditut iru urte, ikasiko dot bear egiten; gero sartuko naz urtzaillea; egingo naz gizon ogia irabazteko duin, ta alan geroko nekeai emongo deutseet arpegi, irabazte obeaz ta gogorrangoak ikusita nagoalako. Lur argaleko muntegian azi direan landara gazteak iragoten badira lur koipatsuko basora, ezta esatekoa zeinbat irabazi daroen ta zein mardoak gero azi: ez alan lur gozatsuti badaroez lur agorrera.

M. J. Zer esan gura dabee izen oneek: *Iielea*, *Urtzaillea* ta *Gatzamaillea*?

P. *Iieleak* esan gura dau iieztu edo irunduten dabela burdiñea. Iku-si dituzu sarri gorulak, zelan amulu edo kirru goruan biribildua iiezten edo iruten dabean, moltsoti ari meia egiteko? Bada ola-iieleak burdiña biribildu ta moltsotuta dagoana, dakar meatuaz; ta esan giñai iruten dabela. Beraz ondo ipiñia dauka *Iielearen* izena. Esaten da barriz *Urtzaillea*, zerren urtu eragiten dabean mea sutegian.

Izentetan da *Gatzamaillea*, onek ia-gon edo zaindu bear dabelako lapikoa ta oni gatzá ezarri edo emon. Au da beste iruten morroe edo otseña legez, aginduten iakon guztia egiteko, ta *Iielea* guztien iagola, irakasla ta burua.

M. J. Eta ze bear egin bear dau bakotxak?

P. *Urtzailleak* bete bear dau sutegia meaz; ezarri, bear dan ikatza; ta egin, bear dan guztia, agoia

marmitones, siendo recién entrados (en la fábrica), aprenden, por medio de trabajos penosos y poco retribuidos, lo que les espera, y estando pensando en los mejores que vendrán después (lit. en los de después), se les hace fácil el pasar los trabajos duros y penosos que tienen que sobrellevar. Así, así —dicen entre sí mismos—, pasaré tres años y aprenderé a trabajar; después entraré de fundidor, me haré hombre capaz de ganar el pan, y así daré cara a los trabajos posteriores con mejor ganancia, porque ya estoy hecho (lit. estoy visto) a (trabajos) más duros. Las plantas jóvenes que han crecido en viveros de tierras flojas, si se las pasa al bosque de tierra sustanciosa, no hay qué decir cuánto suelen ganar y qué robustas crecen después; no así si de la tierra fértil las llevan a la tierra seca.

M. J. ¿Qué quieren decir estos nombres: *Iielea*, *Urtzaillea* y *Gatzamaillea*?

P. *Iielea* quiere decir que hila el hierro. ¿Ha visto V. a menudo cómo las hilanderas, envolviendo el lino en la rueca hilan para hacer del pelotón (de lino) un hilo delgado? Pues el hilador de ferrería, al hierro que está redondeado y apelmazado lo adelgaza y podemos decir que lo hila. Por lo tanto, tiene bien puesto el nombre de *Iielea*. En cambio se llama *Urtzaillea*, porque hace derretirse el hierro en el horno. Se le nombra *Gatzamaillea*, porque este tiene que cuidar el puchero y echar o añadir a este la sal. Este es como el criado de los otros tres, para hacer todo lo que se le manda, y el laminador él es guardador, instructor y jefe de todos.

M. J. ¿Y qué trabajo tiene que hacer cada uno?

P. El fundidor debe llenar el horno con mineral, echarle el carbón que se necesita y hacer todo lo

aterateko prestau artean. Auspoak geratu ta atala gorituten imini ta ezin esan beste zeregin ditu sutegian. Lagunduten deutsee agoia su-azpiti ateraten iela ta gatzamailleak, bakotxak bere burdinaga edo palankeaz. Ateraten dabee sutegiti agirira, ez izerdi-tanta ta bero asko bota бага. Botaten dabee beera ta txirikiña edo burdin-kato bat iraat sirik daroe gabipera. An ezarten deutsee atala orakarri ta kirtentzat. Gabia ibilli dedin emoten deutsa ura iieleak urageaz. Asten da durundia, orma ta lur berari ikara eragiten deutsana. Daroa agoia urtzailleak mallutzarpeti gabi-igunaren azpira. An asten da beste soiñu, belarri atara ez egiñak, zurtuten dituana. Iieleak bere uragiaz darabil gabia meats edo sarri, zelan gura dabena; ta ondo dan ura geitu edo gitxituaz, begira dagoka urtzaileri, ta irakasten deutsa zer egin, noz aurreratu, noz atzeratu, ta noz albotu burdin-oratzar edo agoia. An dira su-txipristin urriñera doazanak! An askatu ta bota eragitea geratu iakozan loiak, zepa ta txatarrak!

Alan igunpean ta maillupean apainduten dau agoia urtzailleak; gogortu ta txikituten dau, ta erdibitu bear danean, iminten deutsa gatzamailleak atxurra, ta gabi-mailluak emoten deutsan ioaldi edo kolpeaz erdibituten da. Zati bata geratuten da atal edo kirten eraatsiaz, zein daroen barrero sutegira; ta arik aurrerako bear edo lanak geratuten dira iielearentzat, zeñi iagokan iieztea edo irutea burdiñea, ekarri artean burdin-barra izatera, emoten deutsala bitartean gatzamailleari uragea, gabia erabilli dagian, berak aginduten deutsan arintasun edo gelditasunaz. Amaitu dabenean urtzaila agoia zaindu dabena esan dogun beargintzea, doa lotara gura dabenean; eta artuten dau bigarren

necesario hasta preparar la masa para sacarla; detener el fuelle, poner candente la pieza accidental y no se puede decir cuántos otros quehaceres tiene en la fragua. Le acompañan para sacar la bola de debajo del fuego el laminador y el marmitón, cada uno con su palanca. Lo sacan del horno al descubierto, pero no sin verter gotas de sudor y sin mucha calor. Lo echan a tierra y aplicándole las tenazas grandes lo llevan debajo del mazo. Allí le añaden un trozo para agarradero y mango. Para que ande el mazo, el laminador le da agua con la bomba. Empieza la resonancia, haciendo temblar a las paredes y a la misma tierra. Lleva el fundidor la masa de debajo del gran martillo a debajo de la viga de donde pende el mazo. Allí empieza otra música que asombra a los oídos no acostumbrados. El laminador con su bomba mueve al mazo con intervalos o a menudo, según quiere, y aumentando o disminuyendo el agua suficiente, le está mirando al fundidor y le enseña lo que hacer, cuándo adelantar, cuándo atrasar y cuándo aproximar el tocho o la bola. ¡Allí sí que hay chispas de fuego que van lejos! ¡Allí el soltar y el echar las suciedades, restos y residuos que se le quedan!

Así, bajo la viga y bajo el mazo adereza la masa el fundidor, la endurece y achica; y cuando es necesario dividirla, la pone el fundidor, la azada, y con el golpe que la da el mazo-martillo, la divide. Uno de los trozos queda adherido al mango, al cual lo llevan de nuevo al horno; y los trabajos de allí en adelante quedan para el laminador, al cual le corresponde laminar el hierro hasta convertirlo (lit. hasta llegar a ser) en barras (de hierro); y mientras tanto le da la bomba al fundidor para que ande el mazo con la

urtzailleak beste agoe ta egikizunen arazo ta ardurea.

Gatzamailleak txikindu edo io bear dau agoe guztietarako mea malluka txikar bategaz, batean be-launiko dagoala, bestean albokerara etzunda, zelan otuten iakon. Oni iagoka mandatuak egitea nora nai; ta ikuskarria da bide agiri ta kaleetati zear igaroten bere obrera erdi gorritu, erdi balzituaz, zaragitxu bat esku edo lepoan dabeela, ardaoa olagizonai eroateko. Ekanduta dagozan begiak eztira orregaitiño minberatuten. Oneek bai bene benetan irabazten dabeela ian bear dabeen ogia euren bekokiko ta korputz guztiko izerdiaz. Zer diñozu, Maisu Juan?

M. J. Zer esan neikezu? Ni baiño buru obeagoa zan ola ta bear-gintza au asmau ebana. Eta ze on iatorko Bizkaiari ola onetarik?

P. Ori itanduko zenduke? Zer egingo neuskioe nik neure basoetako abe bizia, olarik ezpalego? Badakutsuz ainbeste baso ain ederto iantziaz? Igaroko baziña Bizkai guztiko beresi ta mendietara, etzenduke esango ainbeste egur ebagi leitekeala. Gizon bakotxeko, zeinbat milla aritx, arte, pago, kastaña? Bada azkoreak iñausten ditu, ta suak daroaz eurrez legez. Direanak, etxesukaldetan bear direan apur batzuez ostean burdiñatuten dira esaterako, ta sartuten dabec zidar ta urre asko. Zeinbat irabazten eztabee ikazgiñak? Zeinbat itzaiñak, ikatzak olara eroaten, errenterietatik mea ekarten, burdiñea bera eraasten? Eta zeinbat ola-gizonak eurak? Eta zein-

rapidez o lentitud que él le manda. Cuando ha acabado el fundidor que ha cuidado el tocho el quehacer que hemos dicho, se va a dormir cuando quiere y toma el segundo fundidor la obligación y el cuidado del otro tocho y trabajos.

El marmitón tiene que desmenuzar o pegar el mineral necesario para todas las masas, unas veces estando de rodillas, otras echado de costado, como se le ocurra. A este atañe el hacer recados a cualquier parte, y es de verle pasando por caminos descubiertos y a través de las calles con su camisón medio enrojecido y medio ennegrecido, teniendo en la mano o en el hombro un pellejito para llevar vino a los ferrones. Los ojos que están acostumbrados no se escandalizan (lit. se resienten) por ello. ¡Estos sí que ganan verdaderamente el pan que han de comer con el sudor de su frente y de todo su cuerpo! ¿Qué dice usted, Maisu Juan?

M. J. ¿Qué puedo decirle? Que era de mejor cabeza que yo el que inventó este ferrería y este trabajo. ¿Y qué beneficio le viene a Bizcaya de estas ferrerías?

P. ¿Eso habría V. de preguntar? ¿Qué haría yo de los árboles de mis bosques si no hubiera ferrerías? ¿Ve V. tantos bosques tan hermosamente vestidos? Si pasara usted a los jaros y montes de toda Bizcaya, no diría V. que se puede cortar tanta leña. Para cada hombre ¿cuántos miles de robles, encinas, hayas, castaños? Pues el hacha los poda y el fuego los lleva como por delante. Todos, fuera de algunos pocos que se necesitan en las cocinas, se convierten por decirlo así en hierro e introducen mucha plata y oro. ¿Cuánto no ganan los carboneros? ¿Cuánto los boyeros, llevando carbones a la fábrica, trayendo el mineral de las renterías, bajando el mismo hierro?

bat enparetan iakee ola-jaunai gauzak zuzen badabilz? Ezta Bizkaian arraa bete lur alperrik galduten; besterik ezpada, tokirik agorreanean bilatuten da iraurkiña, ta egiten da simaur edo satsa lurraren ongarriztat. Koipe bagako lapikoak eztau aragi mamintsu ta mardorik egingo, ezta simaur bagako lurak bere gari ta arto ugaririk.

M. J. Nun lo egiten dabee ta noz olagizon oneek? Dakustanaz gau ta egun dabil olea.

P. Ieleak badaukaz une luzeak agoe-aldi baktxean, ta emoten iako astia lo-aldiak egiteko, ez zazpi ta zortzi ordu, baiña bai ordu biñaan legez. Urtzaille batak agoia zainduten daberen artean, gitxi gora bera lau orduan, doa bestea lotara. Gatzamaille gaisoak aurreratuta badauka bere mea iotea, ainbestean dabil; baiña zelan agoia aterateko unetan lagundu bear deutzan urtzailleari, io bear badau mea ta zaindu lapikoa, loa ariña iabilko.

Erdu neugaz oneen oetokia ta oea ikustera. Eztozu ikusiko ez uarkarik, ez etzun-toki iaso ta adardunik. Lurrarren gainean lastamarraga bat estalki zantarragaz, ta burko ez ohea. Zer deritxu?

M. J. Dakustanaz, kaputxiño ta kartujo batek baiño bizitza gogorra-goa dakuse oneek.

P. Bai egiaz: alan bere eztaikit zer dan baktxa bere buruaren iaube izatea, ta katebagako bizitzea. Ez litzatekez gizon oneek egongo illa betean sartuta *praille*-etxe baten gauza asko gaiti, gogorragotzat eukiko leukce illa beteko bizitza ezkutukoa, emen negu guztiko lo txarra ta bear gogorra baiño. Gurago dau otsoak baso-bizitzea, iaatekoa nekez

¿Y cuánto los mismos ferrones? ¿Y cuánto les sobra a los dueños de fábricas, si las cosas andan derechas? No se pierde inútilmente en Bizcaya un palmo de tierra; si no es otra cosa en el sitio más seco se busca la maleza y se hace el estiércol para abono de la tierra. Puchero que no tenga manteca no producirá carnes crasas y robustas, ni tampoco la tierra (de) sin estiércol, trigo y maíz abundantes.

M. J. ¿Dónde duermen y cuándo estos ferrones? Por lo que veo, la fábrica anda noche y día.

P. El laminador tiene largos intervalos cada vez que se hace el tocho y se le da tiempo para dormir, no siete y ocho horas, pero sí (ratos) como de dos horas cada urro. Mientras un fundidor cuida el tocho, unas cuatro horas con poca diferencia, va el otro a dormir. El pobre marmitón, si tiene adelantado el despachurramiento del mineral, anda regularmente; pero como en los intervalos de sacar el tocho tiene que acompañar al fundidor, si tiene que despachurar el mineral y cuidar del puchero, le anda ligero el sueño.

Venga V. conmigo a ver el dormitorio y la cama de éstos. No verá V. ni catre ni cama levantada y con patas. Sobre la tierra un jergón con cubiertas sucias y no mejor almohada. ¿Qué le parece a V.?

M. J. Por lo que veo, vida más dura sufren (lit. ven) estos que un capuchino y cartujo.

P. Sí, en verdad; y con todo eso no sé lo que tiene (lit. lo que es) el ser cada uno dueño de sí mismo y el vivir sin cadenas. Estos hombres no estarían un mes entero metidos en un convento por nada del mundo (lit. por muchas cosas) y tendrían por más dura la vida retirada de un mes que aquí el mal dormir y el duro trabajo de todo

billatu bearra, etxe-txakur kateaz lotuaren eregu ta ogi biguna baiño.

M. J. Baiña zelan lo egin leie emengo gabi-ots, auspoen illeta soiñu, ta suaren argi zabaldute ta nozcan beingo illunduteaz? Ate-kisket baten otsak esnaatu naroa ni, lo zorro gogorreanean banago bere.

P. Maisua, eztakizu gizona guztira egiten dala? Eztozu entzun erro-tariari ezteutsala loa galerazoten errotasoiñu iarraituak, ta iratzartuten dala soiñua geratuten bada? Gabiaren ots, ormaak ikara iminten dituanak, ezteutsa gillirik egiten olagizon lotan dagozanen belarriai. Eta eurak iratzartuten dira ao-txituaz, soiñua ioten dabenean bearrean dagoanak.

M. J. Eta ze iaten dabee?

P. Ikazgiñak baiño lapiko obea. Beteten dabee sabela ogi beratu ta ondo koipetuz, otuten iakecenean, ta eztozu zuk iñoz ian gauza gozoagorik. Esku, atz ta ezpanak bere miazkalkauko zendukez gozoaren gozoz. Nun ilten da olectan baiño zezingei edo idi gizenduagorik? Andikiak eurak datoz nozbait olara beste zeregin бага, oneen lapikoan ogia beratu ta koipetuta iatera; eta esan daroe euren etxectan zezin ta urdai ederrakaz lapikoa egifarren, ezin dabee la ain gauza gozorik ian; ta neuregango dator au, sutegiko ikatz ondo erreaz gar бага irakiten dabelako emengo lapikoak geldidageldi gaiñezik egin бага. Gizategian dauke mai imiñeraza. Saldea artuten da katilluaz, aragia txikindu ta aoratuten da atzamar Jaungoikoak

el invierno. El lobo prefiere la vida de la selva, la necesidad de buscar el sustento con trabajo, al mimo y al pan blando del perro casero atado con cadena.

M. J. Pero ¿cómo pueden dormir con el ruido del mazo (que hay) aquí, con la música fúnebre del fuelle y con la luz del fuego esparcida y de vez en cuando apagada? El ruido de un pestillo de la puerta me suele despertar a mí, aun cuando esté en el sueño más profundo y duro.

P. Maisu: ¿no sabe V. que el hombre se hace a todo? ¿No ha oído V. que al molinero no le impide el dormir la música monótona (lit. seguida) de la rueda, y que se despierta si la música cesa? El ruido del mazo, que pone temblando las paredes, no les hace cosquillas a las orejas de los ferrosnes que están durmiendo; y ellos se despiertan con un silbido de la boca cuando producen un sonido (lit. cuando pegan la música) los que están en el trabajo.

M. J. ¿Y qué comen?

P. Mejor puchero que los carboneros. Llenan la tripa con pan remojado y bien untado de grasa cuando se les ocurre, y nunca ha comido V. cosa más sabrosa. Se relamería V. los dedos y los labios de puro gusto. ¿En dónde se matan los bueyes mejor cebados sino en las ferrerías? Los mismos señores vienen algunas veces a la ferrería, sin más quehacer, a remojar el pan en el puchero de éstos y a comerlo; y suelen decir que, a pesar de hacer el puchero en sus casas con hermosa cecina y tocino, no pueden comer cosa tan sabrosa; y esto viene, a lo que yo entiendo, porque hierven el puchero de aquí con carbón bien quemado de la fragua, sin llamas, poco a poco, sin rebasar. En el comedor (salón) tienen mesa

emonikoakaz; ura edaten da gailleteaz, ta au da lau lau bizi izatea ta asmo baga.

M. J. Eta Peru, iango zenduke orrekaz mai baten?

P. Bai, ta iguin baga: ez neuke kokadarik egingo, ez erbesau gurarik erakutsiko, oneen obrera baltz ta esku zetakatuak ikusi arren; eta deritxat euren iangureak geituko leukeala neurea.

M. J. Eta eztabe ardaorik edaten?

P. Ez egunoro ta gitxiago bere. Asteazkenean daukee edanaldi bat olaiaunaren lepora, ta noz edo noz, zu ta ni orain legez etorrira, zerbait emoten deutseenean euren izenean edateko.

M. J. Ori niri esatea da itxi bear dogula zerbait edan daien.

P. Bai, gura ezpadogu esan daien atzeta biotz zimel edo tximurtuak daukaguzala; ta doillorraren izenik eztau entzun gura gizon prestu batek.

M. J. Zeinbat emongo deutsegu?

P. Gitxienez amasei laukoko bana edo errealkiko bat (1) bioen artean, ta au emon-ezkero, agindu egiezu gura dozun guztia.

M. J. Emon egiezu bada biok gaiti ta gero alkar aituko gara.

P. Ordu onean. *Ielea*: eutsi gure izenean, sabel leortu orreek busti daizuezan.

IIEL. Eskerrik asko; urte askotan egin daizuela beste onenbeste. Agindu guri gura dozuen guztia.

fácil de ponerse. Se toma el caldo en (con) taza, la carne se parte y se lleva a la boca con los dedos dados por Dios; el agua se bebe con el acetre y esto es vivir muy llanamente y sin pretensiones.

M. J. Y Peru ¿comería V. con éstos en una mesa?

P. Sí y sin asco: no tendría empacho, ni mostraría ganas de vomitar, a pesar de ver los camisones negros y manchadas manos de éstos; y me parece que su apetito acrecentaría el mío.

M. J. ¿Y no beben vino?

P. No diariamente, ni aun menos. El miércoles tienen ocasión de beber a costa del dueño de la fábrica y alguna vez cuando, viniendo (algunos) como ahora V. y yo, les dan algo para que beban en su nombre.

M. J. Eso es decirme que debemos dejar algo para que beban.

P. Sí, si no queremos que por detrás digan que tenemos corazones enjutos o arrugados; y un hombre noble no quiere oír el nombre de ruin.

M. J. ¿Cuánto les daremos?

P. Cuando menos cada uno una (moneda) de diez y seis cuartos o entre los dos una de dos reales (1), y en dándoles esto ordéneles V. todo lo que V. quiera.

M. J. Deles V., pues, por los dos y luego nos entenderemos.

P. En hora buena. Laminador: tome V. esto en nuestro nombre, para que mojen ustedes esos secos estómagos (lit. vientres).

LAMIN. Muchas gracias; que hagan ustedes otro tanto en muchos años. Ordénennos ustedes cuanto deseen.

(1) Makur edo *peseta*.

(1) *Peseta*.

P. Nire lagun onek gura leuke agoia atera, apaindu ta iruten ikusi. Noz *prest* egongo da?

IHEL. Bere bereala; urreratu de-dilla zearzulora. Noa bidea edegiterra urten bear daben zepa-geiari.

M. J. Jesus! au zer da? Emendi doa burdiña urtu guztia.

P. Ez, Maisu Juan: au da mearen errauts ta loikeria. Onelan garbituten da burdiña. Au astunago dan legez geratuten da ora bat eginda sutegian, ta urten dau gaineztu iakon loikeriak, zein geratuko dan zepatuta.

M. J. Oneek dira ikustekoak! Ainbeste urte Bizkaian egin ta oneek ikusi бага egongo nintzan?

P. Auspoak gelditu ditue: orain-txe ikusiko dituzu bein banaan, nik lenadierazo deusudazan gauza guztiak. Ezta bardin entzutea ta ikustea. Begi itxiedegi bateko ikustea geiago da ikasteko, berba luzeen iarduna ta ekiña baiño.

M. J. Atsegin ta arreta andi bategaz iarraituko deutseet beargintza miragarri onei neure begiakaz. Ai gizon gaiso ta errukarriak! Iges egin ten dot nik urrinerira iraun ezinik agoetzar aren txipristiña ta berotasuna.

Ara zelan dabilzan burruka oratzarragaz zuzendau ezinik, ta bere albo alboan... Oneek dira otsak: lurra bere badabil kolpe bako-txean... Peru, egin egiña: zuk esan zeunstana ta ikusi dodana. Badaroat zer esan. O egun ederto igaroa!

Esaiozu orain iieleari erakutsi daiguzala etxe baltz onetako toki, erremienta ta ikuskizun guztiak.

P. Iielea: erakutsi eiozuz gizon oni emengo zurkulu, tresna, erremienta ta ikuskizunak ta esan eiozuz

P. Este mi compañero quisiera ver sacar, aderezar y laminar la masa de hierro. ¿Cuándo estará dispuesta?

LAMIN. Inmediatamente. Que se acerque al agujero del través. Voy a abrir camino a la materia de la escoria que debe salir.

M. J. ¡Jesús! ¿Qué es esto? De aquí va todo el hierro fundido.

P. No, Maisu Juan: esta es la escoria y suciedad del mineral. Así se limpia el hierro. Como éste es más pesado, queda en el crisol hecho una masa y ha salido la suciedad que le ha rebasado, la cual quedará endurecida y escoriada.

M. J. ¡Cosas de verse son éstas! Habiendo pasado (lit. hecho) tantos años en Bizcaya ¿hubiera estado sin ver estas cosas?

P. Han detenido los fuelles: ahora verá V. una por una todas las cosas que le he manifestado. No es lo mismo ver que oír. Para aprender es más el ver de un abrir y cerrar de ojos que el discurso e insistencia de palabras largas.

M. J. Con un gran placer y atención seguiré con mis ojos (a) estos admirables trabajos. ¡Ay cuidados y pobres hombres! Yo huyo a lo lejos sin poder aguantar la chispa y el calor de aquella gran masa.

Mirad cómo andan luchando con la enorme masa sin poder enderezarla, y muy junto a ella... ¡Qué ruidos estos! Aun la tierra se mueve en cada golpe... Peru, cabal: lo que V. me dijo y lo que he visto. Ya llevo qué decir. ¡Oh día bien transcurrido!

Diga V. ahora al laminador que nos muestre los lugares, herramientas y todas las cosas que haya que ver en (lit. de) esta casa negra.

P. Laminador: Muestre V. a este hombre los escondrijos, los trebejos, herramientas y objetos visibles

geldiro ta banaan euren izen guztiak.

Teleak Maisu Juan-i darakusaz tresna guztiak, traman-kuluak... eta abar.

M. J. Gizon ona, esaidazuz *opizialen* izenak, ta alan beste gauza guztienak, bada gura ditut eroan paperean *eskribiduta*.

IREL. Ona bada geutati asi ta besteak:

Olea	La fábrica.
Beargiñak lau . . .	Oficiales cuatro.
Iclea	El tirador.
Urtzailla bi	Fundidores dos.
Gatzamaillea	El prestador.
Auspoak	Fuelles, barquines.
Auspo-ardatza . . .	Eje de id.
Eskamelak	Brazos de los fuelles.
Txinboa	Chimbo, émbolo.
Uiaikia edo uagea .	Bomba.
<i>Kaiñoa</i> edo aizebi-dea	Ventilador.
Tobera	<i>Tobera</i> .
Sutegia	Fragua.
Beclarria	Mango de hierro.
Aiza-arria	Pared trasera del horno.
Aga arria	Piedra en que se golpea el hierro.
Zearzuloa	Boca de trabas.
Estolda-aldea . . .	Vertedero de residuos, alcantarilla.
Guzur-askea	Pesebre falso.
Onda-askea	Pesebre con fondo.
Tikinoia edo <i>erruede</i> a	Rodete, turbina.
Auspo-puioia	Tirador del barquín.
Puio-makurra	Tirador torcido.
Ardatz-nausia . . .	Eje principal.
Tikinoe nausia . . .	Turbina principal.
Zutocak edo zepoak	Cuatro postes de madera que sostienen el mazo.
Mazukariak	Cuatro piezas de madera que alternativamente van metiéndose entre las palas de la turbina.
Gabia	Mazo; martillo pilón.
Gabiguna	Sostén del mazo.

de aquí; y dígale V. luego poco a poco y uno por uno todos sus nombres.

El tirador muestra a Maisu Juan todos los instrumentos, máquinas... etc.

Bogea	Pieza de hierro que sostiene el <i>gabigun</i> .
Aldabarrak	Puntales del <i>boga</i> .
Burkoak	Cuñas grandes que ajustan los <i>aldabar</i> .
Iungudea	Yunque.
Dendala	Apoyo del <i>gabigun</i> .
Dendal-arria	Piedra bajo el <i>dendal</i> .
Tximela ?	
Makoak	Llantas de la rueda.
Kateiak	Cadenas.
Giltzak	Llaves para apretar las llantas.
Kurutzeak	Cruces.
Zepa-amea	Pieza grande de madera en que se apoyan los postes del martillo pilón.
Zepotilua	Postes en que se apoya la rueda mayor.
Nardakea	Sinónimo de <i>auspuioi</i> .
Bergamailua	Escudo, pieza de piedra que se coloca tras el fogón para contrarrestar el efecto del fuego. Llámase también <i>bergamaso</i> .
Txakurzuola	Boca de salida del hierro.
Ziriak	Cuñas.
Urkulea	Horquilla.
Usteiak	Arcos.
Arrago etxca	Tejavana de la fragua.
Arragoea	Montón de mineral.
Atxurra	Azada.
Epaillea	Tajadera.
Durmiendea	La pieza mayor de la ferrería: sirve de apoyo a todas las demás.

Bandiola ?	
<i>Beargiñen erremientak</i>	<i>Herramientas de los oficiales.</i>
Orrikaak	Las tenazas.
Txirikiña	El gato.
Palankea edo burdin-agaak	Las palancas.
Mailluak	Los mazos.
Porroia	La porra.
Kaikua	El cuenco.
Galbaia	La criba.
Zaraak	Los cestos.
Parea	La pala.
Burdingaia	El material de hierro.
Ikatz	El carbón.
Iduria	El cisco.
Mea	El mineral.
<i>Iantzia</i>	<i>El vestido</i>
Obrerea	El camisión.
Kapelea	El sombrero.
Kapela-zapia	El pañuelo de la cabeza.
Gizategia	El salón donde comen.
Isillua	Asiento, escaño.
<i>Sukalde-tresnaak</i>	<i>Enseres de cocina</i>
Topiña	Marmita.
Topiñ-estalkia	El cobertor.
Katilluak	Las tazas.
Erretilua	La fuente.

Burdun-zalia	El cucharón.
Bitsadera	Espumadera.
Gailletea	El acetre.
	<i>Tokiak</i>
	<i>Los lugares</i>
Auspotegia	El sitio del barquín.
Ikazgelaak	El almacén del carbón.
Gabitegia	El departamento del mazo.
Meategia	El depósito del mineral.
Agoia	La masa de hierro, tocho o lobo.
Atala edo agoekirtena).	El asidero de id.
Bertaagea. ?	
Belaikia.	Pieza de madera con que se carga de carbón el cesto.
Burutea.	La mitad del <i>ago</i> e provista del mango.
Txatarraak	Los residuos de hierro.
Totxua	Mitad del <i>ago</i> e sin el mango.
Galdabatekoak.	Cuatro piezas en que se parte el <i>ago</i> e, lobo.
Burdin-barrea	La barra de hierro.

M. J. Nok asmau ete zituan ainbeste izen ta tresna?

P. Bearrak ta denporeak.

M. J. Emengoa ikusita dago ta goazan, Peru, gura badozu zeure etxera.

P. Ondo diñozu, bada eztago urrin eguerdia; baiña eskerrak emonaz, egin daiegun agur gozo bana gizon onei.

M. J. Bai, esan eztagien dongaro aziak gareala. Aurra bada: esan daioegun alda batera... Agur gizonak, eskerrik asko egin deuskuzuen arrera ona gaiti, agindu guri al daigun edozein gauzatan.

BEARGIÑAK. Zeuei eskerrak emon deuskuzun dirua gaiti. Ondo ibilli, osterako artean.

P. Asko da goizerako zer egiñik: goazan etxera geratu бага ta ianostean urtengo dogu beste gauza batzuk iküstera.

M. J. ¿Quién habrá inventado tantos nombres y trebejos?

P. La necesidad y el tiempo.

M. J. Está visto lo de aquí y vayamos, Peru, si V. quiere, a su casa.

P. Dice V. bien, pues no está lejos el mediodía; pero dando las gracias, hagamos a estos hombres los correspondientes saludos.

M. J. Sí, para que no digan que somos mal criados. Ea, pues; digámosles a un tiempo... Adiós, hombres, muchas gracias por la buena acogida que nos han hecho ustedes: mándenos en cualquier cosa que podamos.

LOS OFICIALES. A ustedes las gracias por el dinero que nos han dado. Anden ustedes bien, hasta otra vez.

P. Basta de quehacer para la mañana: vayamos a casa sin detenernos en nada, y después de comer saldremos a ver otras cosas.

BOSKARREN AUTUA

MAISU JUAN DA PERU EUREN ARTEAN

P. Eldu gara etxera ta neure us-tean izan dozu goiz eder ta atse-gintsu bat olaan ikusi dituzun gau-zaakaz. Ian daigun gogoz, ta eguer-di ostein lo apur bat eginda, atara egiña bazagoz, euki eragingo deutsut arrastegi edo eguarte ez txaarragoa. Emen da arratsaldean liño-ezpatetea, ta ikasiko dituzu eztakizuzan gauza asko beargintza gogaitkarri onen gaiñean. Zu alkandora eder, samur edo bigun-zalea zara: baiña iakinda euki eikezu, zeinbat arazo ta arazkeriaz ekarten dan bedar bat euna egiteraiño. Nire alaba bata, bera da gazteena, daukaz euntegiak, daki eungintzan, ta etxeti urten baga, ezer erosi baga, aziereiteti da-kargu alkondara ederrak egitera. Itxi daigun baiña arratsalderako ikuski-zun au, ta erdu maira... Zoaz orain gorputzari atseren apur bat emote-ra, ta iagiko zara oeti deritxu-nean.

M. J. Etxun naz oera sabela bazkari ederragaz ondo iminita: agertu iatan loa; baiña nik eztakit zer otsak izan direan, iges dau loak nire begietati ta asmau eziñik zer dan, *ernegau* ta iagi naz.

P. A txoraa! Ezpatarien otsak dituzu.

DIÁLOGO QUINTO

ENTRE LOS MISMOS MAISU JUAN Y PERU

P. Hemos llegado a casa y, a mi parecer, ha tenido usted una mañana hermosa y agradable con las cosas que ha visto V. en la ferrería. Comamos con apetito y echando (lit. haciendo) una siesta después del mediodía, pues estamos hechos a ello, le haré a usted pasar (lit. tener) una tarde no peor. Aquí hay por la tarde maceramiento (lit. acto de espadar) del lino y aprenderá V. muchas cosas que no sabe sobre estos enojosos trabajos. Usted es aficionado a las camisas hermosas, suaves (lit. tiernas) o blandas; pero sepa V. (lit. tenga V. sabido) cuántas ocupaciones y engorros trae el convertir (lit. hasta hacer) una yerba en lienzo. Una de mis hijas (ella es) la menor, tiene telar, sabe el oficio de tejer y sin salir de casa y sin comprar nada desde la sementera nos llega (lit. nos trae) a hacer hermosas camisas. Pero dejemos para la tarde este espectáculo y venga V. a la mesa. Vaya V. ahora a dar al cuerpo un poco de descanso y se levanta V. de la cama cuando le parezca.

M. J. Me he echado en la cama con el vientre bien satisfecho (lit. bien puesto) con hermosa comida; me acometió (lit. se me apareció) el sueño; pero no sé qué ruidos ha habido que ha huído el sueño de mis ojos y, sin poder averiguar lo que es, he renegado y me he levantado.

P. ¡Ah loco! Ha sido el ruido de las espaderas.

M. J. Zer da liño-ezpateta ori?

P. Nik esango deutsudaz gau-
zaak sustrai ta ondo ondoti. Ereiten
dogu liñaazia lur ondo giâu ta
azaro onekoan. Lurrak bear dau
giro ona, ez (1) ibilli senean ta
abespeluan ta noz nai erein. Liño-
mueta bi dagoz, batari deritxo ago-
rra ta besteari liña berea; a ugaria-
goa, au obeagoa ta lasterragoa. Eldu
dediñean, atera bear da eskuz, ez
ebagi igitaiáz: Aterata egiten dira
eskutaak, ta oneek lotu. Gero dator
garrameeta. Garramauta, gabiko-
tu bear da, ta gabiko egiñak sar-
tuten dira uretan, samurtu ditezen,
ta bota daien loitasuna. Ur geldituan
iminten badira gabikoak, ezta esa-
tekoa, zein atsitua geratuten dan
ura. Ondo samurtu direanean, eroa-
ten dira zelai batera, ta an, zabaldu
ta banaturik, leortu bear dabee.
Leortu ta osterá gabikotuten dira.
Gabiko oneek daroez trimin trimin
egitera бага zur-maillu edo ma-
zuaz. Beso sendoak bear dira mai-
lluaz banatuteko ta bitartean an-
drakume batek darabil gabikoa bi-
raak emoten.

Arazo nekagarri onen ondoren
astotuten ditue astosapiñean (2);
emen samurtuten da tint bedar go-
gor au. Gero daroe txarrantxetara
ganak aterateko. Onelan arkituko
dabee ezpatariak gaur. Ezpata-oi-
ñean edo ondoan iminten dabec
liño astosapindua ta esesten deutsee
zurezpateaz: triska triska eginda,
nozcan bein esku ta belaunagaz
samurtuten dabec igortziak emonaz,
ta gero isten ditue otzaran kukus-
tuta.

M. J. ¿Qué es ese *espadamiento*
del lino?

P. Yo le diré a V. las cosas
desde su raíz o su mismo origen.
Plantamos la simiente del lino en
tierra bien cuidada y en buen tem-
pero. La tierra ha de tener buen
temple; no andar *senean* (1) y a
destajo y plantando en donde quie-
ra. Hay dos clases de lino: al uno
le llaman lino secano y al otro de
regadío; aquél más abundante, éste
mejor y más temprano. Cuando
brota hay que sacarlo a mano, no
cortarlo con hoz: Una vez sacado se
hacen majaduras y éstas se atan.
Después viene el cardar. Después de
cardado hay que reducirlo a haces
y éstas se meten en el agua, para
que se ablanden y echen la porque-
ría. Si las haces se ponen en agua
quieta, no es para decir lo hedionda
que se pone el agua. Cuando se han
ablandado bien, se llevan a un
prado y allí, extendidas y separadas,
deben secarse. Una vez secas se
reúnen en haces otra vez. Estas ha-
ces las llevan a triturar sin compa-
sión con un martillo de madera o
maza. Brazos fuertes necesitan para
partirlo con el mazo, y mientras
tanto una mujer mueve el haz dán-
dole vueltas.

Después de esta fatigosa tarea los
suelen golpear en el *astosapin* (2);
aquí se ablanda mucho esta dura
yerba. Después lo llevan a rastro-
llarlo para sacarle las amondas. Así
lo encontrarán hoy las espaderas.
Al pie de la espadilla o junto a ella
ponen el lino pasado por el *astosapin*
y le acometen con la espadilla de
maderas. Después de triturado, de
vez en cuando lo ablandan con la
mano y la rodilla dándole fricciones
y después lo dejan cornejeado (pro-

(1) Ezin ondo ulertu dogu auxe. Senean *ibili* ta *gipuzkoarren* garaiz edo *erderazo en sazon* bat direala uste dogu.

(2) Euskalerrian baiño ezta oituten au.

(1) No podemos comprender bien esto. Andar *senean* y el *garaiz* de los gipuzkoanos y *en sazon* de los extraños creemos que son lo mismo.

(2) Este sólo se usa en el país basko.

M. J. Zer geiago egiten deutsee?

P. Kukusturik dagozan liño gixauak, daroez barrirotxarrantxara, ta an erbatzak ioakoz, ta geratuten da bateti kirru garbia, besteti amulua, ta amulu onek daukaz perrez-tupea ta gana. Oneek iruteko bear dira goru-buruan apaindu ta ardatzean batu, ari? egiñaz batera. Ez-tira onetan amaituten lan guztiak. Ariak bear dau matasatu itxoroskian. Itxoroskiti atera ta daroez matasak austietara ur gori ta egur-austean. Sartuten ditue gero lisiba arratzean ta emen garbituten dira asko. Lisibatuta sartuten ditue kako edo ageetan, ta iruntz edo euritan zuritu ditezan, zabalдутen dira bedar-ganean.

M. J. Eztira onenbestegaz amaitulen lanak?

P. Ez, Maisu Juan. Ari zuritua ta matasatua sartuten dabee ariltégian. Emen diran lan barriak aria eteten iakeenean edo aria katigatu ta nastuten danean. Neke gogorren bidez egiten dira arillak euntegira eroateko. Zeinbat lor emoten ezteutsee andrakumeak euren buruai? Baiña ez-tira buruauste ta lorrik txikarrenak, eunla gaisoarentzat geratuten direanak, ta guztiz, ari etenerraza badaroaké. Gogait egingo ez-pazendu, ikusi eragingo neuskezuz eunla batek bear dituan tramankulu, tresna ta erremientak euna eio-tekó.

M. J. Gogait egin nik, Peru? Ez, ez: ikastea da irabaztea ta iakitun urtetea.

P. Dei egingo deusat neure alaba eunleari, erakutsi ta esan daituzan euren izenak. Popatxu: ator

visto de corneja o moña en el vértice de la doblez) en el cesto.

M. J. ¿Qué más le hacen?

P. Al pobre lino (lit. los pobres linos) que está doblado y provisto de corneja lo llevan de nuevo al rastrillo y allí se le van los arestines y queda por una parte el cerro limpio, por otra la estopa, y ésta tiene aresta y amonda. Para hilarlo es necesario rodear con él la cabeza de la rueca y reunirlo en el huso al mismo tiempo que se hace el hilo. No se acaban en éste todos los trabajos. El hilo debe madejarse en el aspa. Sacando las madejas del aspa las llevan a hervirlas en agua hirviente y ceniza de leña. Las meten después en el barril de lejía y aquí se limpian mucho. Después de pasadas por la lejía las meten en ganchos o en palos, y para que se blanqueen con los rocíos o las lluvias las esparcen sobre la yerba.

M. J. ¿No se acaban con todo esto los trabajos?

P. No, Maisu Juan. El hilo blanqueado y madejado lo meten en la devanadera. Aquí hay nuevos trabajos cuando el hilo se les rompe o cuando se les endereza y se les mezcla. Merced a duras fatigas hacen los ovillos para llevarlos al telar. ¿Cuántas molestias no se toman (lit. se dan a sí mismas) las mujeres? Pero no son menores los quebraderos de cabeza y molestias que quedan para el pobre tejedor y, sobre todo, si le llevan hilo fácil de romperse. Si no le diera a V. fastidio le haría ver las máquinas, utensilios y herramientas que necesita un tejedor para tejer el lino.

M. J. ¿Fastidiarme yo, Peru? No, no; el aprender es ganar y salir sabio.

P. Le llamaré a mi hija la tejedora para que se los enseñe a usted y le diga sus nombres. Josefita, ven

ona, erakutsi eiozan oni eure bear-gintzakoz tresnaak.

ALAB. Bai, aita, atsegiñez. Bear-tokian daukadaz ta erdu biok ara. Ona emen euntegiak. Au da goisubilla; beragoko au, beesubilla. Aita-tuko deutsudaz guztiak.

Au, garrangea. . .	Este, el tornillo.
Oneck, izunzak . .	Estos?... .
Besteok, ganbelaak .	Estos otros, las gamelias.
Aek, erraiariak . .	Aquellos, las rayaderas.
A, urkulea	Aquel, la horquilla.
Beste a, anezkea. .	Aquel otro, la lanzadera.
Auxe, anezka-zotza.	Este mismo, el palillo de la lanzadera.
Beeko-erreck, oiñolak.	Esos de abajo, los pedales.
Oncetxek, ipurtolak.	Estas mismas, tablas traseras.

P. Nok esan lei, ikusi baga, zeinbat neke ta arazo artu bear direan azi-ereiteti alkandora bat iantzi artean? Amaitu dagianean eunleak bere zeregin gogaitkarri ta nekatsua, sartuten da iosla edo iostuna lan barrietan. Onek bear ditu artaziak, orraatza, aria; ta ikuste argalekoa bada, betaurreko ondo datorkoza nak, ta alkandora dontsua iosita bere, barriro bear dau bogada edo lisibara, samurragota zuritua-go geratu dedin. Agaiti esaten da: *liñoaren atsakabeak, amai gabeak.*

M. J. Ni baiño buru obakoa zan asmau zituana ainbeste *erremienta*. Goazan ikustera zelan ezpatatuten dituen... Agur neskatillak; arratsalde ona cuki daizuela. Jaungoikoak bedeinka zuen bear egiteko gogoa ta besoetako sendotasuna.

EZPATARIAK. Ezta guretzat bear-gintza atsegingarriagorik: alkarren leian, miiña berba egiteko azkatuta daukagula, *olganizaan* egotea, neke gogorra ezta: gogorragoetara eginda gogoz, bakarrago ta gitxiago ianda.

acá; enseña a éste los utensilios de tu oficio.

HIJA. Sí, padre, con placer. En el taller los tengo, y vengan los dos allá. He aquí los telares. Este es el rodillo superior; éste de abajo el rodillo inferior. Le mencionaré a V. todos.

Emen dakusuzanak, oiñugalak	Los que aquí ve V. correas del pie.
Onako au, txirringea.	Este de aquí, el carrito.
Areck, mazurkak. .	Aquellas, las canillas.
Beste aek, orraziak.	Aquellos otros, peines.
<i>Ona emen beste batzuk ta dira:</i>	<i>He aquí otros y son:</i>
Iraztaskea, edo ariltegia	El urdidero.
Iraztramaak. . . .	Las aspás del urdidero.
Buztarriak.	Los yugos.
Arillak	Los ovillos.

P. ¿Quién podría decir, sin verlo, cuántas fatigas y ocupaciones hay que tomar desde la siembra hasta vestir una camisa? Cuando acabe la tejedora su quehacer fastidioso y fatigoso, se mete la costurera en nuevas labores. Esta necesita tijeras, aguja, hilo; y si es de vista débil, anteojos que le vengan bien; y aun cosida la dichosa camisa, de nuevo tiene que ir a la lejía para que quede más flexible y más blanca. Por eso se dice: *los sinsabores del lino* (son) sin término.

M. J. De mejor cabeza que yo era el que inventó tantas herramientas. Vayamos a ver cómo espadan.

Adiós, muchachas. Que tengáis buena tarde. Que Dios bendiga vuestra aplicación (lit. vuestra gana para trabajar) y la robustez de vuestros brazos.

LAS ESP. No hay para nosotras trabajo más agradable: teniendo suelta la lengua para hablar a porfía y estando en la holganza, no hay duro trabajo. Estamos hechas a más duros, comiendo más raras veces y

Gura dogunean kanteetan dogu geure soiñuan. Batek ekiten deutsa zortzikoari, ta gero besteak erantzuteari. Gura dozu entzun? Ona bada.

Ezparatien kantea liño gietako aldietan

Kantadu dagiguzan
Liñoaren penak
Ezpata oneen otsean
Izanik latzenak;
Alkar ondo artuta,
Soiñua neurturik,
Gorputzeko nekea
Isteko arindurik.

L E L O A
Gara neskatillak,
Euskaldun ez illak,
Ezta iñor lurrean
Gure bear eztanik;
Ez atso, ez agura
Alkandora barik.

Atxurlaria doa
Botaten lurrera
Liño azi eldua,
Eta estaldutera
Txoriak etorrita
Ian eztagiezan,
Ta gero ezer bagea,
Geratu ezтитеzan.

Elduten dan orduan
Bedar ain bearra,
Eskuakaz oi dogu
Gelditxu atara,
Egiteko eskudak
An bertan soloan,
Largateko arduraz
Etzunik alboan.

Eskutadak dituguz
Gero orraztuten
Ondo garramaduta;
Ta arik eroaten
Gabiko egitera,
Beratu ditezan
Pozu baten eukita
Egun batzuetan.

Ura iminten dabe
Dan dana loiturik,
Bazter guztietara
Atsa zabaldurik:
Baña ikusten dira
Ugarasioak,
Buruak aterarik
Emoten soiñuak.

menos. Cuando queremos cantamos en nuestra música. Una se aplica al zortziko y después las otras a su repetición (lit. a la contestación). ¿Quiere V. oír? He aquí pues:

Canto de las *espadadoras* en las épocas en que se trabaja el lino

Cantemos
Las penas del lino.
En los ruidos de estas espadillas,
Siendo las más ásperas (las penas)
Bien puestas de acuerdo mutuamente
Midiendo la música,
El cansancio del cuerpo
Para dejarlo aligerado.

ESTRIBILLO
Somos muchachas
Bascongadas, no muertas;
No hay en la tierra
Quien no tenga necesidad de nosotras:
Ni viejas ni viejos (hay)
Sin camisa.

El labrador (lit. el cavador) va
Echando a la tierra
La simiente de lino madura;
Y a cubrirla
Para que viniendo los pájaros
No la coman,
Y para que luego
No se quede sin nada.

Después que madura
Yerba tan necesaria,
Con la mano la solemos
Sacar poco a poco
Para hacer majaduras
Allí mismo en la heredad
Para dejarlos con cuidado
Tendidos al lado.

Las majaduras
Después las peinamos
Habiéndolas cardado bien,
Y de allí las llevamos
A hacer gavillas
Para que se ablanden,
Teniéndolas en un pozo
Durante algunos días.

Ponen el agua
Completamente sucia,
A todos los rincones
Esparciendo el hedor;
Pero se ven
Las ranas
Sacando la cabeza
Y cantando (lit. dando música).

Atsa darioela
Dagoz gabikoak
Pozuti aterata;
Eta gu lakoak
Eskuetan artuta,
Iguin bagarik,
Ditue zelaictan
Isten zabaldurik.

Leortuta daroetz
Gero mazupera,
Errukia aztuta
An banatutera;
Lan au egin oi dabe
Eguzki galdatan:
Liña ialla gaisoak
Izerdi-lamatan.

Ezta onenbestegaz
Nekea amaituten;
Bedar ain banatua
Dabe astotuten.
Astosapin batean
Isteke samurrik,
Gogorra egoana,
Ondo bigundurik.

Txarrantxea deritxon
Orrazi azkatuan,
Ikusten da ostera
Ondo katiguan;
Liño agorra bada
Iakoz ateraten
Ganak, eroateko
Gero ezpatatuten.

Emen sartuten dira
Gure lan barriak,
Soñuaz emoteko.
Pena lazgarriak
Astosapin ta mazu
Azpian ioari,
Egiten gareala
Guztiok kantari.

Tris traska dirautsagu
Erruki bagarik,
Isten ezteutsagula
Guk azur osorik,
Ispi txar ta erbatzak
Iakoz ateraten,
Eta largetan deusku
Guroguna egiten.

Onelan iru bat ordu
Egonik olgetan,
Soñu, algara eta
Barre gozoetan,
Liño iabea dator
Guri deitutera;
Erdue ori itxita,
Zerbait artutera.

Echando hedor
Están las gavillas
Sacadas del pozo,
Y las semejantes a nosotras,
Cogiéndolas en la mano
Sin asco,
En los prados
Las dejan extendidas.

Secas ya, las llevan
Después bajo el mazo,
Olvidando la compasión,
A que allí se tundán.
Este trabajo lo suelen hacer
Al caer el sol
Los pobres golpeadores de lino
En un sudor copioso.

No acaban con todo esto
Los trabajos:
La yerba tan macerada
la trancan
En un *astosapin*
Para dejarla tierna
La que estaba dura
Ablandándola bien.

En un peine suelto
Llamado rastrillo,
Se ve de nuevo
Bien sujeto:
Si es lino seco
Se le sacan
Las aristas, para llevar
Luego a espardarlo.

Aquí entran
Nuestros nuevos trabajos.
Para dar con música
Penas mortificantes
Al golpeado debajo de
Majador y maza,
Haciéndonos
Todos nosotros cantores.

Tris tras le damos
Sin compasión,
No dejándole
Nosotros hueso sano;
Las malas fibras y las amondas
Se le sacan,
Y nos permite
Hacer lo que queremos.

Así unas tres horas
Estando recreándonos
En músicas, algazara y
En dulces risas,
El dueño del lino viene
A llamarnos:
Venid, dejando eso,
A tomar algo.

Laster ta atzera baga
 Gara gu iagiten;
 Eztogu ez erbatzik
 Soñean itxiten:
 Garbi garbi egiñik
 Goaz mai batera,
 An gogo galantagaz
 Gauza asko iatera.

Goaz gero ostera
 Geure bearrera,
 Ta lan au amaituta,
 Barriro apaitara;
 Largaten ditugula
 Bertan kukusturik,
 Eta txarrantxarako
 Ederto giaurik.

Txarrantxariak ditu
 Txarrantxan iminten,
 Kukutsak kendu eta
 Erbatz baga isten,
 Kirrua alde batean
 Besteti amulua,
 Au gandua eta
 Perreztupetua.

Gorulak gero dabec
 Egiten aria,
 Matasarako bear
 Da itxoroskia;
 Lisiba ta iruntzak
 Dabec garbituten,
 Eta ariltokian
 Dira arilduten.

Tramankulua dauka
 Eunla andreak,
 Emen artu daroaz
 Arazo nekeak,
 Egiteko euna
 Besteen bearrekin;
 Korputz, esku ta oiñakaz
 Bear deutsa ekin.

Ioslaak artuten dabec
 Eun aterea,
 An da artaziakaz
 Zuzen ebatea.
 Alkandorea dago
 Guztia egiñik,
 Ari eta orraatzaz
 Lotu ta iosirik.

Euskaldun neskatilak
 Nekeak arturik,
 Eztabe onetako
 Gizonen bearrrik;
 Eurak dira ereila,
 Liño-giariak
 Eunla eta iostun
 Ta gorulariak.

Pronto y sin retraimiento
 Nos levantamos nosotras:
 No dejamos, no, amondas
 En el vestido:
 Limpiándonos bien
 Vamos a una mesa,
 Allí con gentil apetito
 A comer muchas cosas.

Vamos luego de nuevo
 A nuestro trabajo,
 Y, terminado este trabajo,
 De nuevo a cenar;
 Dejando nosotras [majaduras)
 Allí mismo retorcidas con moña (las
 Y para el rastrillo
 Bien cuidadas.

El rastrillero las pone
 En el rastrillo,
 Quita las moñas
 Y deja sin arestines
 Por un lado el cerro
 Por otro la estopa,
 Esta desamondada y
 Bien limpiada.

Las hilanderas luego suelen
 Hacer el hilo,
 Para la madeja menester
 Se ha el aspa;
 La lejía y el rocío
 Lo suelen limpiar
 Y en la devanadera
 Se hacen los ovillos.

Tiene armatoste
 La mujer tejedora,
 Suele tener aquí
 Fatigosas tareas,
 Para hacer el lienzo
 Con los trabajos de otros,
 Con el cuerpo, manos y pies
 Tiene que darle.

Las costureras suelen tomar
 El lienzo sacado,
 Allí es con tijeras
 El cortar derecho.
 La camisa está
 Toda hecha,
 Con hilo y agujas
 Sujeta y cosida.

Las muchachas baskongadas
 Soportan fatigas,
 No tienen para esto
 Necesidad de hombres;
 Ellas son las sembradoras
 Guiadoras del lino
 Tejedoras y costureras
 E hilanderas.

M. J. Eztakit topauko dan iñun andrakume euskaldunak baiño sendogorik.

P. Nik bere eztakit, Maisu Juan. Dira sona, dularre ta askotakoak. Nok sinistu lei; gizonen premiña baga artu daikeezala liñoak dakan, ta entzun dituzun arazo ta lor guztiak? Soloetan dakuskuz atxurretan, laietan, saraketan, iorran ta edozein bear egiten. Badakie idiak buztartuten, itzaintzea egiten, itaurreko dabiltzala noznai. Lau neska-tilla baserrian aziak, zuzenduko leu-kee etxaguntza andi bat, gizonen premiña baga ezertarako.

M. J. Aitatu dituzun ezkerro baserriko bearrak, aitatu ta erakutsi egidazuz orreetarako daukezan tresna edo erremientak.

P. Bai atsegiñez ta erakutsiaz bertan esango deutsudaz euren ize-nak; ta dira:

Area bere gia-kateaz ta areskuaz.	La rastra con su cadena guiadora y con la manilla.
Nabasaia bere idunaz.	El <i>nabasai</i> (es de cuatro púas) con su rastrea.
Iruortza	El de tres púas.
Nabarra	El arado.
Aaxea.	La
Atxurra.	La azada.
Atxurkulua	La azada de horquilla (es de dos púas).
Astaiorraia	La azadilla para maizales.
Galiorraia.	La azadilla para tri-gales.

Ona barriz burdiaren zure Anatomia ta nire azterketa.

Iduna	La viga (1).
Pertikak	Las pértigas.
Etxea.	La caña o cama o pértigo.

M. J. No sé si se encontrará en ninguna parte mujeres más fuertes que las baskongadas.

P. Tampoco yo lo sé, Maisu Juan. Son agraciadas, remangadas y hábiles. ¿Quién pudiera creer que sin necesidad de hombres pueden soportar todos los trabajos y sinsabores que trae el lino y V. ha oído? En los campos las vemos cavando, layando, recepando, sallando y haciendo cualquier labor. Saben uncir bueyes, cumplir el oficio de cuidarlos, andando guiándolos a cada rato. Cuatro muchachas criadas en la aldea gobernarían una grande granja, sin tener para nada necesidad de hombres.

M. J. Ya que ha hecho V. mención de labores de aldea, mencione V. y muéstreme los trebejos o herramientas que tienen para eso.

P. Sí, con gusto, y mostrándose los allí mismo le diré sus nombres; y son:

Laiak.	Las layas.
Eskuarea	El rastro.
Igitaia	La hoz.
Ota-atxurra	La azada para árgoma o esqueno.
Korta-atxurra	El relámpago (es de dos púas en el país y de tres en otros países).
Podaiña.	El dalle o guadaña.
Askorea.	El hacha.
Aiotea	La...
Sardea edo simaur batzailea	La horca o recolector de abono.
Naarra katetxukaz.	La narria (carretón) con cadenillas.
Burdia	El carro.

Mas he aquí su *anatomía* de carro y mi *azterketa* (análisis):

Ziriak	Las cuñas.
Akerra	El quicio (tarugo bajo la caña).
Ardatza.	El eje (2).

(1) *Iduna* ta *pertika* bat dira askoren ustez.
(2) *Zilla* bere esaten iako.

(1) *Idun* y *pertika* son lo mismo a juicio de muchos.
(2) También se le llama *zil* (omblijo).

Laakoak, iru . . . Las clavijas, tres (3).
 Ugalak Los aros de hierro
 (en la circunfe-
 rencia de cada
 rueda).
 Burpillak Las ruedas (4).
 Buztarria El yugo.
 Edea, edo lokaa-
 rriak La coyunda o las
 vendas.

Azkonarra La collada (5).
 Edergarriak Los adornos.
 Kolzaak Las palomillas (6).
 Garatzua La vigueta (7).
 Burtezpatca El inhiesto.
 Arasak Los aimones.
 Biurrak Las belortas (8).
 Akulua La aguijada.
 Itzaina El boyero (9).

M. J. Nekez irabazten dau atxurlariak bere ogia.

P. Ondo diñozu; baiña guri zor deusku mundu guztiak irautea il бага. Gure nekeakaz dator garia, dator artoa, dotoz baba, irar, indirar, garagar, olo ta iankai guztiak. Atxurak dakaz maastiak, ta oneen ardaoa. Atxurak dakar liñoa, edo iaazteko duin duiña. Nekezariak gizen duten ditu, idiak, okela ona iaateko; ta entzun neutsan nik gizon iakintsu bati, Jaungoikoak egieban (1) lenengo gizonari, emon eutsala lurra landuteko agindua, onek pekatu egieban (1) baiño leenago, lurra samur ta bear-erraza bazan bere; ta pekatu egiebanean (1) gogortu, arantzatu ta lartu iakola lur berez bigun ta samurra zana; baiña len ta gero izan zala Adan atxurlaria ta baserrikoa. Gerora asmau ebeela gizonak erri batuak egitea. Eztakit nik nozkoak direan bizargin ta gaiso-osatzaillak. Gizon iakitunak guzurrea esaezpeeban (1) atxurlaritzea da artez Jaungoikoak emoniko lana, lenengo gizonagandi datorrena.

M. J. Ori orrelan izanik, ezta izango lurean *opizio onrauagorik*.

P. Egia diñozu, bada ezin iñor izan zeitekean, ez izango da lenengo

M. J. Penosamente gana el labrador su pan.

P. Bien dice V.; pero a nosotros nos debe todo el mundo el durar sin morir. Con nuestras fatigas viene el trigo, viene el maíz, vienen la haba, arveja, alubia, cebada, avena y todos los alimentos. La azada produce los viñedos y el vino de éstos. La azada trae el lino o lo preciso para vestirse. El labrador ceba los bueyes para comer buena carne; y le oí yo a un hombre sabio que Dios dió al primer hombre que había creado la orden de labrar la tierra, si bien era tierna y trabajable la tierra, antes que éste (el hombre) pecase; y que cuando pecó se le endureció, se le cubrió de espinas y abrojos la tierra que de suyo era blanda y tierna; pero que antes y después fue Adán labrador y aldeano. Que más tarde inventaron los hombres el hacer pueblos reunidos. Yo no sé de cuándo son los Barberos y curadores de enfermos. Si el hombre no mintió, la agricultura es el trabajo dado directamente por Dios (trabajo) que viene del primer hombre.

M. J. Siendo así, no habrá en la tierra oficio más honrado.

P. Dice V. la verdad, pues no pudo haber nadie ni habrá de

(3) Bi dira bear bearak.
 (4) Txirrinkak bere baderitxe.
 (5) Arrokerizko edergarri bat zan au: gaur ezta oituten. Sapa ta sertzelak bai oitu doaz.
 (6) Koltza nai burtesi bat dira.
 (7) Askok gabixu ta nardei-izena emoten dautse.
 (8) Edo Bidurrak.
 (9) Onezaz ganera ona beste burtatal batzuen, izenak: azpiolak, erraillak (lau dira oneek), taketa, albolak atz-aurretako olak...
 (1) Egin eban, egin ebanean, esan ezpaeban.

(3) Son dos los imprescindibles.
 (4) También se llaman txirrinka.
 (5) Era este un adorno de vanidad; hoy no se usan. La melena y las borlas sí se usan.
 (6) Koltza o burtesi son lo mismo.
 (7) Muchos le dan el nombre de gabixu y nardei.
 (8) O Bidurrak.
 (9) Además de éstos he aquí los nombres de otras partes del carro: tablas de la caña, las cadenillas (éstas son cuatro), la telera, los tablonos, las portilleras... etc.
 (1) Hizo, cuando hizo, si no lo dijo.

gurasoa baiño odol garbiagokorik, ta bera izan zan atxurlaria.

M. J. Eta asko nekatu bear da egin arteraiño ogia?

P. Txito asko, ta alan iaana ta lantziak dakaz burukomin, arazo, lor ta atsakabe asko.

M. J. Zertzuk dira?

P. Erein-orduko garia oraingo euskaldunen lurrean, onek saratu bear dau; nabasaiaz igaro ta laiakaz ondeatuten da. Zodiak txikartu bear dira atxurraz; areak, nabasai ta nabarrak igaro bear dabee soloan, galgarua ondo gorde dedin, ta eroan eztagien kurrilloe, bela ta beste txori garau-zaleak. Zeinbat zimaurrezari bear esiako? Eta simaurra egiteko, zeinbat buruauste? Batu bear dira basoan iraurkiñak, orri igarrak ta ota-sostrak: eroan oneek etxera; hota kortaan; eragin nozean bein. Gero garia erne-ondoan, bear da iorratu, esku-etendu, salgea ta bedar txar guztia aterateko. Neke ta lor andi oneek igarota, dator garia elduteko aldi ain bioztua. Prestau oi dira igitaiak, itzinduten ezpadira buruak erri batzuetan legez. Bero anditan ebaten dira ta egin azaoak; onek lotu, ta mukirioak egin; onek zabaldu ta igartu ditezan. Arazo oneei darraiko *gal-iaite* nekagarria izerdi bitsetan, alkarren leian, ta soiñua neurtuaz gorputza mankauteariño.

Azao ioak edo lastotu dana alde-ratu bear da eskuareaz garia-ganik. Au geratuten da aotzez, ta galburu utsituz nãstaua. Andrakumeak artzaatu daroe, isteko galgarua zer-bait garbituta, ta guenean garbi garbi egiteko arkosko, lur-apur, olo-

(quien tenga) sangre más limpia que el primer padre y él fue labrador.

M. J. Y ¿es preciso fatigarse mucho hasta hacer el pan?

P. Muy mucho y así el comer y el vestir traen muchos dolores de cabeza, ocupaciones, sinsabores y aflicciones.

M. J. ¿Cuáles son?

P. Antes de sembrar el trigo en la tierra de los actuales baskongados, ésta debe ser receptada; se pasa con el *nabasai* y se ahonda con las layas. Los cavones se deben esterronar con la azada. La rastra, el *nabasai*, el de tres púas y el arado deben pasarse en la heredad, para que se conserve bien el grano de trigo y para que no lo lleven los gorriones, grajillas y otros pájaros granívoros. ¿Cuánto abono no se le debe aplicar? Y para hacer el abono ¿cuántos quebraderos de cabeza? Deben amontonarse en la selva los helechos, las hojas secas y residuos de árgomas: llevar éstos a casa; echarlos en la cuadra; revolverlos de vez en cuando. Luego a poco de brotar el trigo, se debe escardar, sallar para sacar la arvejana y toda la mala yerba. Pasados estos trabajos y grandes sinsabores, viene el tiempo tan deseado de que madure el trigo. Se preparan las hoces, si no se degüellan las espigas como en muchos pueblos. En gran calor se cortan y se hacen las gavillas; éstas se atan y se hacen haces. A esta ocupación le sigue la fatigosa de trillar el trigo en espumas de sudor, a porfía, y midiendo la música hasta baldar el cuerpo.

Las gavillas trilladas o lo que se ha reducido a paja se debe con el rastro separar del trigo. Este queda mezclado de cozuco y espigas desgranadas. Las mujeres lo zarandean, para dejar el grano de trigo algún tanto limpio y por fin para lim-

garau, auts ta loigarri guztietati, galbaatu bear da ardura andi battegaz. Gari garbitu ustekoa, zorroturik, daroe bolu edo errotara; ta nok esan zeinbat zeregin daukan errotari gaisoak uruna egin artean? Erroteak, zeinbat tresna ta erremienta? Eio-ondoan, bere laka edo mendea errotariak artuta, daroe urunzorroa etxera. Neke barriak ogigiñentzat. Eralgi bear da bae zaratuan; alderagin birzaiari; au garbitu bear da, zai utsa isteraiño. Egin oi dira batzuetan iru ogimueta: bata garbia; bestea tremesa, ta zantarrena ta txakurrentzat ohea, birzaizkoa. Ogi oneek egiteko, zeinbat lor? Txantxadurea aurrez eginda ezarri bear iako ogi-oreari. Zeinbat gorputzeko gorabera ta esku-eragite oreka egiten? Ogiak itxuratu ta iagi bear dau bere terzioan, ta onetan uts egiten bada, larregi edo gitxi-giaz, eztau ogi onak urtengo. Daroe labara, ta labazaiña ezpada zuurra ta aitua, edo suak igaroko dau ganea baltzitu ta barrua erre baga edo danak urtengo dau ezkotu ta erre-ariñak.

M. J. Etxataz niri iñoz burura etorri neke orrekek. Ian dot ogia ezegaz gomutau baga.

P. Alan iazoten iakee txito askori, gogoan artu baga nekezari gaisoen lan ta lorrak, zeintzuen izerdiaz daroen bizitza olgura ta gozo andikoa.

M. J. Badaukazu zer erakutsi geiago etxe-barruan?

P. Bai: mutil gaztea nintzanean ikasi neban arotzia, neure anaia nagusiagoak etxaguntza au eroango

piarlo bien de piedrecitas, residuos de tierra, granos de avena, polvo y de toda suciedad, se debe acercillar con un gran cuidado. El trigo que se cree limpio, metiéndolo en sacos, lo llevan al molino; y ¿quién (es capaz de) decir cuánto quehacer tiene el pobre molinero hasta hacer la harina? El molino ¡cuántos trebejos y herramientas! Después de molerlo, habiendo recibido el molinero su maquila o salario, llevan a casa el saco de harina. Nuevos trabajos para el panadero. Se debe cerner en cedazo cerrado; separar la harinilla; ésta se debe limpiar, hasta dejar el salvado puro. A veces se hacen tres clases de pan: el uno, limpio; el otro, la comuña; y el más ordinario (que es) mejor para los perros (es hecho) de harinilla. Para hacer estos panes ¡cuántos sinsabores! La levadura hecha de antemano se debe imponer a la masa de pan. ¡Cuántos altibajos de cuerpo y movimientos de mano para hacer la masa! Al pan se le debe dar cierta traza y tiene que fermentar en su punto; y si en esto se yerra, con exceso o defecto, no saldrá buen pan. Lo llevan al horno, y si el hornero no es despejado y entendido, o le transpasará el fuego ennegreciéndole la corteza y sin cocérsele el interior, o todo saldrá húmedo y no bien cocido.

M. J. No se me han venido jamás a la cabeza esas fatigas. He comido el pan sin acordarme de nada.

P. Así les sucede a muchísimos, sin tomar en cuenta los trabajos y sinsabores de los pobres artesanos, con cuyo sudor llevan (tienen) vida de gran placer y dulzura.

M. J. ¿Tiene V. algo más que mostrar dentro de casa?

P. Sí: cuando era soltero (lit. muchacho joven), aprendí el oficio de carpintero, creyendo que

ebalako usteaz. Ill iatan anaia a; ta gurasoak itxi nenduen euren oiñordekotzat ta etxe jaube. Nozean bein eguraldi txarrak eragozten deustazanean baso ta solo-bearrak, iardun daroat mai, aulki ta ezgauza batzuk egiten; ta daukadaz neure lantegia ta bear direan erremientak.

M. J. Ze erremienta bear da arotziarako?

P. Entzuzuz: askoria, azuelea, zeioa, laatroa, gimbaleta, eskoploa, zurmaillua, bear-maia, barrenea, gubia, zipillua, garlopea ta zerrea.

M. J. Asko da gaurko erakusterik, baiña biar goizean eroan bear nozu basoak erakustera, ta arbolen izenak esatera.

P. Ondo dago ori: baiña alperrik igaroko dogu neguko gau luzea? Gure bizitzeari ez iatoroko alpertasunik. Autu egizu badazeren ganean berba egingo dogun. Ezteutsut nik debekau ez galerazoko ondo dan gauzarik. Abagadune txito erazkoa da illuntzeta ta apal-orduraino suntuondoko inguruan berba egiteko, iñori ezetan ikutu baga. Nire etxean ezta entzuten dongarorik lagunaren bizierearen gañean. Zek sartu bear gaitu iñoren gauzeetan? Bakotxak iazten dau al daben alkandorea ta nik neurea. Iñoren begian badakusku edozein samar, geureetan abe andi bat bere ez... Olesa ta ateiotea da. Nor etedogu? Txomin, urteizu atera. Berbaroa da, ta bat baiño geiago dira.

TXOM. Aita: Juanis Prantzesa da, ta lagun bat dakar beragaz nik eztazaudana; baiña abarkeen itxurari begiratuta, uste dot dala zure ezagun kiptuzen bat.

mi hermano mayor llevaría esta casa. Se me murió aquel hermano y me dejaron los padres por heredero suyo y dueño de la casa. De tarde en tarde, cuando el mal tiempo me impide los trabajos de la selva y de la heredad suelo ocuparme en hacer sillas y algunas menudencias; y tengo mi taller y las herramientas que se necesitan.

M. J. ¿Qué herramienta se necesita para la carpintería?

P. Oiga V.: *el hacha, la azuela, el...*, *el barreno, el gusanillo (barreno pequeño), el escoplo, el mazo de madera, el banco del trabajo, la barrena, la gubia, el cepillo, la garlopa y la sierra.*

M. J. Para hoy basta de demostraciones, pero mañana a la mañana me tiene V. que llevar a mostrar y decirme los nombres de los árboles.

P. Eso está bien ¿pero pasaremos en vano la noche larga de invierno? A nuestra vida no le cuadra ociosidad. Elija V., por lo mismo, acerca de qué hemos de hablar. No le he de prohibir a V. ni estorbarle cosa que sea buena. Es un intervalo muy a propósito desde el anochecer hasta la hora de cenar, para hablar junto al fuego, sin tocar a nadie en nada. En mi casa no se oye (hablar) mal acerca de la vida del prójimo. ¿Qué tiene que meternos en cosas ajenas? Cada uno viste la camisa que le es posible y yo la mía. En ojo ajeno vemos cualquier mota, en los nuestros ni una gran viga... Se siente un saludo y golpeo de puerta. ¿Quién nos será? Domingo: salga V. a la puerta. Se siente rumor de palabras, y son más de uno.

DOM. Padre: es Juanis el francés, y trae consigo una persona a quien yo desconozco; pero mirando a la traza de las abarcas, creo que es algún guipuzcoano conocido de usted.

P. Datozala aurrera... O aspal-diko neure Joanis! Bizi zara? Ondo etorria izan zaitela. Nor dozu lagun ori...? O Txorgori! Emoidazu apalaztan bat. Zu bere emendi? Erdu bata ta besteori eskaratzera. Emen daukat egun oneetan adiskide barri bat, ta direanok igaroko dogu gau ederra.

M. J. Peru: erdu ona mandata-txu bat esan daizudan isillik... Ze gizon modugaz *tratetan* dozu? Zelan etxean artu prantzes ta kiputz bat? (1). Nok daki, daukazu guztia ostu, ta emen gau txarren bat emongo etedeuskuen? Eneban uste orren *konpiaua* ziñeanik.

P. A Maisu Juan! Burutaziño ta zaio donga orreek kendu egizuz. Biok dira neure ezagunak. Prantzes sari egon oi da emen, ta da zu ta ni baiño kristiñau ohea.

M. J. Prantzes ta kristiñau ona? Sartu eiozu ori zoro bati?

P. Egingo neuskezu tema edozein gauza, Jaungoikoaren gauzeetan zu ta ni baiño iakitunago dala.

M. J. Ara ezakiala Aita geurea bere?

P. Ara zu baiño geiago dala? Entzungo bazeuntsaz guk legez zelan Jaungoikoak mundua bere gauza guztiakaz egin eban; zeinbat egunean; zetati lenengo gizona, eta alan beste gauza asko, esango zenduke, abade izateko beste bada-kiala.

M. J. Peru: nik siniztuko ba-deutsut, neuk entzun bear deusadaz. Baiña beñik bein itandu bear deusagu *dotriña* puska bat, ta goazan orain eurakaz eskaratzera.

P. Ondo, baiña ez, arren, berba minduko dabenik esan, ez batari ez

P. Que vengan adelante... ¡Oh mi Joanis de hace mucho tiempo! ¡Vive V.! Que sea V. bienvenido. ¿Quién le es a V. (lit.) ese compañero...? ¡Oh Gregorio! Deme V. un abrazo apretado. ¿También V. por aquí? Vengan ustedes el uno y el otro a la cocina. Aquí tengo estos días a un nuevo amigo y todos pasaremos hermosa noche.

M. J. Peru: Venga V. acá para que le dé a V. un recadito en silencio... ¿Con qué clase de hombres trata V.? ¿Cómo recibir en casa a un francés y un gipuzkoano? (1). ¿Quién sabe si han de robar a V. todo cuanto tiene y han de darnos aquí una mala noche? No creía que fuese V. tan confiado.

P. ¡Ah Maisu Juan! Quite usted esas malas ocurrencias y recelos. Los dos son conocidos míos. El francés ha solido estar aquí muchas veces y es cristiano mejor que V. y yo.

M. J. Francés ¿y buen cristiano? Métale V. eso a un loco.

P. Apostaría a V. cualquier cosa que en las cosas de Dios es más instruído que V. y yo.

M. J. ¿A que no sabe ni el Padre nuestro?

P. ¿A que es más que V.? Si le oyera V. como nosotros cómo Dios hizo el mundo con todas sus cosas, en cuántos días, de qué el primer hombre, y así otras muchas cosas, diría usted que sabe tanto como para ser sacerdote.

M. J. Peru: si yo le he de creer a V., tengo que oírse las yo mismo. Pero por lo menos tenemos que preguntarle algo de Doctrina y vayamos ahora con ellos a la cocina.

P. Bien, pero por Dios no decirles palabra que les ha de molestar,

(1) Ezta Bizkaitarra dan Bizkaitarrek zaiorik inoiz erakutsi Giputz ta Lapurtarrakaz bat egiteko. *Maisu Juan* onetan inor ez langoa da, ta ezin aturau dogu zetarako asmau eban Mogel-ek euskaldun (?) au.

(1) Bizkaino que de veras lo sea no ha mostrado jamás recelo para juntarse con Gipuzkoanos y Labor-tanos. En esto *Maisu Juan* es como nadie, y no podemos averiguar cómo creó Moguel este baskongado. (?)

besteari Iñor ezta lotsatu bear, ta gitxiago minberatuko nintzate, neuri esango bazeunstaz amar berba astun ta garratz, oneci bat baiño. Nik eztakit oneen euskerea aituko dozun.

M. J. Zer? Euskerea izan, ta nik aitu ez?

P. Goazan bada eurakana, bada ioan dira eskaratzera.

M. J. Itxaraizu puska baten, ta esaidazu, zetara etorten da prantzesa?

P. Luebagiña ta otaepaillea da. Urteten dau illuntzeetan ibai-ondoe-tara, ta artu daroaz igarabiak txito erraz. Geiago esango deusut. Oneetan direan azeriak, dakaz nai dituan tokira, ta burdin-lakirio bat imifirik, artuten ditu. Berreun baiño geiago artu ditu urte bete barru, ta batzuk ementxe geure ataian.

M. J. Peru, eneban uste guzurrik esaten zenkianik. Ikusita siniztu; ta ikusita bere usteko neuke begitaziñoren bat dala. Alakorik bada, *enkantuak* daukaz ta pamerialak, ta laster atrapauko dabe, *inkisiziñera* eroateko.

P. Eztauka oneek orrelango artu emonik gaizkiñakaz.

M. J. Gurago neuke orrelango bat ikusi, orain artean ikusi eragin deustazuzanak baiño. Bide onez bada *albidade* ori, merezi leuke sari andi bat. Goazan bada bereala eurakana...

Eskaratzera doaz, da Maisu Juan-ek prantzes-euskalduna ta gipuzkoarrari agur egiten deutse.

M. J. Agur adiskideak; óndo etorriak izan zaiteala. *Alegretan* naz eukitea zuek ezaututeko *fortuna* au. Peruk esan deustanaz, bere adiskideak zaree; beraz adiskide on bat daukagu zuek eta nik.

JOAN ETA TXORG. Esker andiak: ta ondo *arkitua* izan *zaiteala* emen. *Eseri zaite, amildu gabe.*

ni al uno ni al otro. No se debe avergonzar a nadie y me resentiría menos si me dijese usted a mí diez palabras pesadas y agrias que una a éstos. Yo no sé si entenderá V. el bascuence de éstos.

M. J. ¿Qué? Ser baskuenze ¿y no entenderlo yo?

P. Vayamos pues a ellos, pues se han ido a la cocina.

M. J. Espere V. un momento y dígame V.: ¿a qué suele venir el francés?

P. Es hacedor de vallas y cortador de árgoma. Sale al anochecer a las orillas de los ríos y suele coger nutrias muy fácilmente. Le diré a V. más. Atrae a donde quiere los raposos que hay en estos (lugares), y poniendo un cepo de hierro los coge. Más de ciento ha capturado en el espacio de un año, y unos aquí mismo en nuestro portal.

M. J. Peru: no creía que sabía usted decir mentiras. Ver y creer; y aun viéndolo me parecería que es alguna ilusión. Si hay tal cosa, tiene encantos y hechizos, y lo cogerán pronto para llevar a la inquisición.

P. Este no tiene semejantes relaciones con los malvados diablos.

M. J. Querría más ver una cosa así que las cosas que me ha hecho usted ver hasta ahora. Si esa habilidad es de buena parte, merecería un gran premio. Vayamos, pues, en seguida a ellos...

(Van a la cocina; y Maisu Juan saluda al basko francés y al gipuzcoano).

M. J. Adiós, amigos: sean ustedes bienvenidos. Me alegro de tener esta fortuna de conocer a ustedes. Según me ha dicho Peru, son ustedes amigos suyos; por lo mismo ustedes y yo tenemos un buen amigo.

JOAN Y GREG. Muchas gracias y sea V. aquí bien hallado. Siéntese usted, sin caerse.

M. J. Zer esan dozue? Zer da *eseri zaite amildu gabe?*

P. Maisu Juan, laster katigatu zara oneen euskeran. Oraindiño entzungo dituzu gatxagoak. Esan gura deusue, iarri zaiteala jausi baga, labandu edo larrapastadaren bat emonda.

M. J. Peru, eta zuk aituko deutesezu? Eta nik ez?

P. Ni eginda nago oneei, entzutera, ta zuri baizen ondo aituko deutseet. Aitu ezin dituzunak, nik azal dau ta adierazoko deusudaz.

M. J. Aurra bada, itandu egiozu *Pater nosterra* euskeraz, ta au aituten ezpadeusatz, alperrik burua *kansauko* dot. Ez aliakee aserratuko.

P. Ez orren bildurrik izan. Ontzat eroango dabee itandutea edozein gauza. Baiña nori gura dozu esan eragin daiodan?

M. J. Lenengo, prantzes azeriartzaille oni, ta gero kiputzari.

P. Joanis, adiskide onek entzun gura leuskezu *aita gurea*, ta atsegin au emon egiozu. Entzun gura dau zuen euskerea. Eztaki onek bizkai-koa baiño, ta bera bere zelan alan.

B. Ori baiño nai ezpadu, *otoitz* laburra da. Ona bada:

Gure Aita zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena, etor bedi zure erresuma, egin bedi zure borondatea, zeruan bezala lurrean ere.

Iguzu egun gure eguneko ogia, eta barka detzagutzu gure zorrak, guk guregana zordun direnei barkatzen de-rauztegun bezala; eta ez gaitzatzula utz tentamentutan erortzera; aitzitik, begira gaitzatzu gaitzetik. Alabiz.

P. Maisu Juan, entzun ta aitudeutsazu?

M. J. Berba banaka bat bai, ezer ez geiago. Orren arin esatea, *ji aka* berbaak aitatutea, ezta niretzat.

M. J. ¿Qué han dicho ustedes? ¿Qué es *eseri zaite, amildu gabe?*

P. Maisu Juan: pronto se ha enredado V. en el baskuenze de éstos. Todavía oirá V. cosas más difíciles. Quieren decirle a V. que se siente V. sin caerse, resbalando o dando un gran resbalón.

M. J. Peru: ¿y les entiende? ¿Y yo no?

P. Yo estoy acostumbrado (lit. hecho a oír a éstos y les he de entender también como a ustedes. Las cosas que V. no pueda entender yo se las he de explicar y dar a entender.

M. J. Pues ea: pregúntele V. el *Pater noster* en baskuenze; y si esto no les entiendo, cansaré la cabeza en vano. Quizá no se incomodarán.

P. No tema V. eso. Llevarán a bien que les pregunte cualquier cosa. Pero ¿a quién quiere V. que se lo haga decir?

M. J. Primeramente a este francés, cazador de raposos, y después al guipuzcoano.

P. Joanis: este amigo querría oírle a V. el Padre nuestro y déle V. este gusto. Quiere oír vuestro baskuenze. Este no sabe más que el bizkaino y él así así medianamente.

B. Si no quiere más que eso es petición corta. He aquí, pues:

Padre nuestro que estás en los cielos; santificado sea el tu nombre; venga a nos el tu reino, y hágase tu voluntad así en la tierra como en el cielo.

El pan nuestro de cada día dád-nosle hoy; perdónanos nuestras deudas así como nosotros perdonamos a nuestros deudores; y no nos dejes caer en la tentación, mas líbranos de mal. Amén.

P. Maisu Juan: ¿le ha oído y entendido V.?

M. J. Alguna que otra palabra sí, nada más. El decirlo tan de prisa y el expresar las palabras con *jis*

Euskera apurren bat badaki, ta beste nik aituten eztoan *lenguajeren* bategaz nastetan dau, ta niri sinistu eragin gura zeunskede, euskera berba egiten dabela. Ez naz orretan engañauko. Esan dagiala *Abe* Maria.

P. Joanis: esaizu agur Maria, zuk esan daroazun legez.

B. Agur Maria, *graziaz* betea, Jauna da zurekin. *Benedikatua* zara emazten artean, eta *benedikatua* da zure sabeleko *fruitua* Jesus.

Maria Saindua, Jainkoaren ama, egizu otoiz gu bekatorentzat orai eta gere eriotzeko orenean. Alabiz.

M. J. Len bestean geratuten naz; igarriko bere eneutsan Abe Maria zanik, iakin ezpaneu zer esatera ioian. Aserraturen ezpaiako, esan egiozu esan daiala *kredoa*.

P. Etxako aserratuko, zeuk go-gait egiten ezpadozu... Ioanis, esan egizu sinisbidea.

B. Bai: ona.

1 Sinhesten det Iainko Aita bothere guzia duena baithan, zeruaren eta lurraren kreatzaillea:

2 Eta Iesukristo aren seme baxhar gure jauna baithan.

3 Zein *konzebitu* baitzen Ispiritu Sainduaren *bertutez*; sortu zen Maria Birjinia-ganik:

4 Paraitu zuen Ponzio Pilatusen manuaren azpian: *gurutzefikatu* zuten; hil zen, eta ehortzi zuten.

5 Jautsi zen Ifernuetara; hirur-garren egunean ieiki zen bizirik hilen artetik.

6 Igan zen zeruetara; iarria dago Iainko Aita bothere guzia duenaren eskuñean.

7 Andik ethorriko da bizien ta hilen iuiatzera.

8 Sinhesten dut Ispiritu Saindua baithan.

y *jas* no es para mí. Ya sabe un poco de baskuenze y lo mezcla con algún otro lenguaje que yo no entiendo, y querría hacerme creer a mí que habla baskuenze. No me engañaré yo en eso. Que diga el Ave María.

P. Joanis: diga V. el Ave María, como acostumbra a decir.

B. Dios te salve María; llena eres de gracia; el Señor es contigo; bendita eres entre todas las mujeres, y bendito es el fruto de tu vientre, Jesús.

Santa María Madre de Dios, ruega por nosotros pecadores, ahora y en la hora de nuestra muerte. Amén.

M. J. Me quedo como antes (lit. en tanto como antes), ni hubiera conocido que fuera el Ave María, si no hubiera sabido lo que iba a decir. Si no se (le) incomoda, dígale V. que diga el Credo.

P. No se incomodará si V. no se fastidia... Joanis, diga V. el Credo.

B. Sí: he aquí.

1 Creo en Dios Padre Todopoderoso, Criador del Cielo y de la tierra:

2 Y en Jesucristo su único Hijo, nuestro Señor.

3 Que fue concebido por obra y gracia del Espíritu Santo; nació de María Santísima:

4 Padeció bajo el poder de Ponzio Pilatos; fue crucificado, muerto y sepultado.

5 Descendió a los infiernos; al tercer día resucitó de entre los muertos.

